

# Jakin<sup>•eus</sup>203

herria kultura hizkuntza    uztaila-abuztua  
2014



JAKINeko idazlanez inon baliatzerakoan  
aipa bedi, mesedez, iturria



aldizkari irekia da eta ez dator nahitaez  
idazleen iritziekin bat

**LEHENDAKARIA**

Joan Mari Torrealdai

**OHOREZKO KIDEAK**

Paulo Agirrebaltzategi, Joxe Azurmendi, Joseba Intxausti

**ZUZENDARIA**

Lorea Agirre

**ERREDAKZIO BURUA**

Xabier Eizagirre

**KONTSEILU EDITORIALA**

Lorea Agirre, Haizea Barcenilla, Harkaitz Cano, Xabier Eizagirre,  
Idurre Eskisabel, Patxi Juaristi, Joanmari Larrarte, Maialen Lujanbio,  
Imanol Murua, Andoni Olariaga, Olatz Osa, Gexan Sors,  
Joan Mari Torrealdai, Eguzki Urteaga

**IDAZKARITZA ETA ADMINISTRAZIOA**

Tolosa Hiribidea, 103-1.C / 20018 Donostia

Tel. 943 21 80 92

[jakin@jakin.eus](mailto:jakin@jakin.eus)

[www.jakin.eus](http://www.jakin.eus)



*Aldizkari honek Gipuzkoako Foru Aldundiko Euskararen  
Normalkuntzako Zuzendaritza Nagusiaren laguntza jaso du*



*Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak diruz lagundutako aldizkaria*

## SUMMARY

### 5

## ZUZENDARIAREN HITZAK

### 7

## GAI NAGUSIA Parte hartzea eta herrigintza

- 11** Botere politikoa eta herri ekimena indartzeko prozesuak

Zesar Martínez

Elite ekonomiko eta politikoek egun ezartzen duten hegemoniaren aurrean, herri ekimena aktibatu eta komunitatea antolatzeko premiaz egiten da gogoeta. Herri-hezkuntza, Esperientzien Sistematizazioa edo Ikerketa-ekintza Prozesuak proposamen baliagarriak dira sektore gutxiagotu eta zapalduak ahaldundu eta antolatzeko, eta baita herri mugimenduen arteko artikulazioa errazteko ere.

- 31** Erakundeak eta parte hartzea: paradigma berri bat elkarrekin eraikiz?

Nicola Foroni

Krisi garai honetan zenbait erakunde parte-hartzearen alde egiten ari diren apustua aztertzen da, gizarte eraldatzea eta paradigma aldaketa sustatuko duen funtsezko lanabes gisa. Egungo aldaketa soziokulturalek dakartzaten erronkak pertsonak, mugimenduek eta erakundeek kudeatu beharko dituzte paradigma berriarekin koherente izanez.

- 49** Euskal berrikuntza demokratikoak eta feminismoak. Emakumeen biografia politikoetatik begiratu bat

Jone Martínez

Emakumeek berrikuntza demokratikoko espazioetan parte hartzeko dituzten oztopoei buruz egiten da gogoeta, euskal gizartean egun abian dauden esperimendu parte hartzaile eta deliberatiboetan parte hartzen duten emakumeen bizipenak aztertuz.

**67** Gaztea eta partaidetza: distantziak

Jon Markel Ormazabal

Gaztea/gazteria eta partaidetzaren arteko distantzia neurtzea da helburua. Horretarako, ezinbestekoa da, lehenik, gaztea zer den zedarritzea, politikarekiko gazteen usteak arakatzea, gizarte kezka eta inplikazioaren bide orriak ezagutzea eta horietatik partaidetzara jauzia nola egiten den aztertzea.

**81** Guztiontzako partaidetzarako baldintza eta aukera errealak jomugan

Nerea Agirre • Olaia Jimenez

Haur eta gazteen parte-hartzea abiapuntu gisa hartuta, herritar ororentzako ikaskuntza eta partaidetza aukerak sortzeko prozesuen izaera eta baldintzez hitz egiten da. Egin beharreko bidea honetan datza: demokrazia parte-hartzailea egikaritu eta guztiontzako ongizate, inklusio eta ikaskuntza aukerak gehitzean.

**93** Metamilitantzia. Herri mugimenduen baitatik gogoeta

Marta Luxán • Andere Ormazabal

Unai Txurruka • Olatz Dañobeitia

Joxemi Zumalabe Fundazioak 2012an abiatutako prozesu parte-hartzailearen emaitzen eta horietan oinarritutako hausnarke-ten laburpena eskaintzen da. Egindako prozesuaren nondik norakoak, orain arte militantziarekin lotu izan diren ideia eta bizipe-  
nak, gaur egungo egoeraren diagnostia eta, aurrera begira, jorratu beharreko gakoak zein diren aztertzen da.

## EGUNEN GURPILEAN

**111** Kultura  
Nagore Amondarain

**117** Ekonomia  
Joseba Barandiaran

**123** Soziolinguistika  
Dabid Anaut

**129** Telepolis  
Gorka Julio

## PARTICIPATION AND NATIONAL BUILDING

### Processes involved in reinforcing political power and popular initiative

Zesar Martínez, member of the Joxemi Zumalabe Foundation and sociology lecturer, reflects on the need to stimulate popular initiative and community organisation in order to confront the hegemony imposed by economic and political elites at the present time. To this end, Popular Education, the Systematisation of Experience and Research-Action Processes constitute emancipating traditions that may prove to be valid for the empowerment and organisation of minority or oppressed sectors, as well as fostering popular movements. [Zesar Martínez](#)

### Institutions and participation: building a new paradigm together?

Nicola Foroni, advisor and enabler of processes involving participation and transformation, analyses the commitment being made by institutions at this time of deep crisis to citizens' participation as a key tool for contributing to social transformation and a change of paradigm. Incipient socio-cultural changes that are starting to gestate provide us with major challenges, all of which needs to be coherently administered by individuals, movements and institutions in a way that is consistent with the new paradigm. [Nicola Foroni](#)

### Basque democratic renewal and feminism. The view of women's political biographies

The political science lecturer Jone Martínez reflects on the difficulties women face in participating in areas associated with democratic innovation. To this end, the experiences gained by women who take part in various participative and deliberative experiments that are currently underway in Basque society are analysed. [Jone Martínez](#)

### Youth and participation: distances

Jon Markel Ormazabal, researcher at Aztiker, focuses on gauging the distance existing between youth and participation. The author is of the view that to do so it is first necessary to define what being young involves, to examine young people's thoughts about politics, and to analyse the road maps for concern and social involvement and the move towards participation. [Jon Markel Ormazabal](#)

### Real conditions and possibilities for participation

By taking child and youth participation as a starting point, the pedagogy lecturers Nerea Agirre and Olaia Jimenez focus on the nature of and conditions attached to the processes involved in the creation of learning and participation possibilities for all citizens. In short, this would mean setting participative democracy in motion and increasing the welfare, inclusion and learning options available to all. [Nerea Agirre • Olaia Jimenez](#)

### Meta-militancy. Reflection by popular movements

Marta Luxán, Andere Ormazabal, Unai Txurruka and Olatz Dañobeitia, members of the Joxemi Zumalabe Foundation, reflect on the results of the participative process embarked on in 2012 by the Foundation. Starting from the premise that political militancy is currently undergoing change, the finer details of the process that has been set in motion, the ideas and experiences that have thus far been linked to militancy, a diagnosis of the current situation and the keys to the future are all analysed. [Marta Luxán • Andere Ormazabal • Unai Txurruka • Olatz Dañobeitia](#)

### NEWS TODAY

This gathers together cultural information focusing on the present from various areas and perspectives. This year we shall be closely following culture, economic, sociolinguistic and communication matters. This section draws on various specialists: Nagore Amondarain, Joseba Barandiaran, Dabid Anaut and Gorka Julio. [Various authors](#)

**H**errigintza paradigma berri baten kimuak ernetzen ari ote dira? Azalean jarri dugu galdera.

Galdera ate joka dugu, ate joka dugulako parte hartzearen gaia. Ohikoa bihurtu da etxeko postontzian ere parte-hartze prozesuetarako gonbidapena jasotzea. Alderdi politiko eta agintaritza politikoetan, udal eta aldundietan, gizarte erakundeetan, tankera anitzeko talde eta elkarteetan, hedabideetan, kalean... Gero eta leku gehiagotatik entzuten dugu parte-hartze prozesuen beharra. Eta horrekin batera demokrazia zuzena, gobernantza modu irekiak, partaidetzazko aurrekontuak, erabaki guneak eta baliabideak partekatzea, eraldaketa soziala, militantzia modu berriak, herrigintzan sakontzea, eta beste.

Bizi dugun errealitatea konplexua da, Kanadako baso itxien antzera, poetak zioen bezala. Bizi gaituen krisi sistemikoak gizarte demokratikoen mugak eta ezinak gero eta argiago jarri dizkigu begien aurrean. Gero eta biluziago ageri zaigu demokrazia, alegia hartako erregea nola. Baina, bestetik, paradoxikoki, azken urteetan, politika neoliberalak gero eta indar handiagoz eragiten ditute geure eguneroko martxan. Errealitate bortitz hori indartzen ari delarik –edo ari delako, hain justu, agian– herrigintza mailako militantzia apalduta dagoela dirudi, beste garai batzuekin alderatuz gero. Orain, nahiago omen dugu kontsumitzaile izan militante baino. Baina, aldi berean, eta hau ere paradoxikoki, demokrazia errealagoa eskatzen duten ahotsak eta praktikak ugaritzen ari dira azkenaldian.

Parte hartzea eskatzen da, res-publica deitzen dugun eta denon egunerokotasuna gobernatzen duen plaza horretan erabakimena izatea. Parte-hartze prozesu horiek behetik gora eta herritarrek bultzatutakoak dira kasu askotan; baina, asko dira, baita ere, erakundeek proposatutakoak, herritarrei parte hartzeko gonbidapena eginez antolatzen direnak. Errealitate berria da honako hau, XXI. mendea urratzearekin batera berdatu dena.

Galdera jarri dugu azalean, baina galdera gehiago ditugu: nondik dator parte-hartze galdegite hau guztia? Zeri erantzuten dio?

Zer da benetako parte hartzea? Ze baldintza bete behar ditu? Ze onura eta ze muga ditu? Ze oztopo ditu? Zertan da emakumeen parte hartzea tradizionalki gizonezkoena izan den eremu publikoan? Eta gazteena? Eta urrats bat sakonago emanda, haurrena? Nola konpondu behar dira botere politikoa eta herri ekimena? Militantzia zertan da gaur egun? Zenbateraino da parte hartzailea? Nola eragiten da eraldaketa soziala? Nola egiten da parte hartzetik partaidetasunerako urratsa?

Galdera horiek guztiak partaidetasunaren gaineko teorian eta jakintzan jantziak diren eta parte-hartze prozesuetan buru-belarri jarduten duten hamar aditu-arituri luzatu dizkiegu. Zesar Martínezek marko orokorrean kokatu gaitu; Nicola Foronik bereziki Gipuzkoako erakunde publikoen jardun oparoari erreparatu dio; Jone Martínezek emakumeen parte hartzearen berezitasunez hitz egin digu, Jon Markel Ormazabalek gazteenez, eta Nerea Agirre eta Olaia Jimenezek haurrenez, gizarte inklusibo baten jomuga ez galtzeko. Eta, azkenik, Marta Luxán, Andere Ormazabal, Unai Txurruka eta Olatz Dañobeitiak herri mugimenduen baitatik bertatik egindako militantziaren gaineko gogoeta dakarkigute.

Hori dena gutxi balitz, ohiko laukoteak azken asteetan gertatu-koen kronika dakarkigu. Nagore Amondarain kulturaz ari zaigu, Joseba Barandiaran ekonomiaz, Dabid Anaut soziolinguistikaz eta Gorka Julio teknologia digitalen munduaz.



## PARTE HARTZEA ETA HERRIGINTZA

- 11** Botere politikoa eta herri ekimena indartzeko prozesuak  
Zesar Martínez
- 31** Erakundeak eta parte hartzea: paradigma berri bat elkarrekin eraikiz?  
Nicola Foroni
- 49** Euskal berrikuntza demokratikoak eta feminismoak. Emakumeen biografia politikoetatik begiratu bat  
Jone Martínez
- 67** Gaztea eta partaidetza: distantziak  
Jon Markel Ormazabal
- 81** Guztiontzako partaidetzarako baldintza eta aukera errealak jomugan  
Nerea Agirre • Olaia Jimenez
- 93** Metamilitantzia. Herri mugimenduen baitatik gogoeta  
Marta Luxán • Andere Ormazabal  
Unai Txurruka • Olatz Dañobeitia

# Botere politikoa eta herri ekimena indartzeko prozesuak

Zesar Martínez

*Joxemi Zumalabe Fundazioko kidea eta soziologia irakaslea*

## Krisiak, boterearen kontzentrazioak eta herri mobilizazioak

Azken urteotako barbarik erabiliena aukeratu beharko bagenu, zalantza gutxi, 'krisia' izan da behin eta berriro entzun eta ahoskatu dugun berba. Krisi finantzarioa hasieran, ekonomikoa ondoren, enplegukoa jarraian, pensio eta oinarrizko zerbitzu publikoena azkenik; eta horiei gehitu behar diegu lehenagotik ezagunak ziren krisi energetikoa (petrolioren agorpen hurbila), klimatikoa (planetaren beroketa, ozono geruzaren zulaketa...), eta emakumearen lan ikusezinaren bitartez ezkutuan mantentzen dugun pertsonen zaintzaren krisia (zaintzaren kate globala deituriko efektua sortu duena)<sup>1</sup>.

Eta ez gaude soilik hitz potoloak bata bestearen atzean jartzen; izan ere, eliteen iruzur eta gehiegikeriek sorturiko krisialdi horien ondorioz, bai Euskal Herrian eta baita mundu zabal honetan bizi diren pertsona gehienek ere, gehiengo zabal batek, biolentzia eta sufrimendu handia pairatzen ari baita euren eguneroko bizitzan. Batez ere gurearen moduko azal zuria ez duten pertsonak (eta bereziki emakumezkoak),

mundu-sistema hau gizonezko zurien zapalkuntza kolonialaren gainean eraikita baitago<sup>2</sup>.

Horrela, ondoren ikusiko dugunez, kolonialismoa, patriarkatua eta kapitalismoa jendarte-eredu honen matrize kulturalean sendo errotuta dauden pentsamoldeak dira, eta, hirurak loturik, jendarte-eredu honen krisi sistemikoaren iturburuan daude.

Euskal Herrian, testuinguru sozioekonomiko gatazkatsu horrekin batera, badugu ere Europaren baitan historikoki pairatu dugun kolonialismoarekiko erresistentzia eta borroka; horretan ere badaude aldaketa esanguratsuak azkenaldian. Ezker abertzaleak protagonizatu dituen alde bakarreko mugimendu politikoek goitik behera aldatu dute gutariko asko jaio ginenetik ezagutzen genuen panorama. Baina ETAK jardun armatua bertan behera lagatzeak eta ezker abertzaleak bere osotasunean eman dituen urrats esanguratsuak emateak, ez dute; sortu gainerako eragileen partetik pareko erantzun hauspogilerik; gatazkaren mami politikoari heltzea berandutzearen, egoera blokeatua mantentzearen aldeko apustua egin dutela dirudi. Horrela, euskal jendartean adostasun zabala badago ere eta mobilizazio erraldoiak aldiro-aldirokoak badira ere, presoek sakabanaketak sortzen duen zigor estrajudiziala ez dute bertan behera utzi nahi; eta gazteen militantzia politikoa edota presoek eskubideen aldekoa oraindik epaitzen eta zigortzen ari dira. Baina errepresio horien inguruan elkartasuna eta babesak (herri harresiak, kasu) oso indartsuak eta berritzaileak izan dira, hunkitu egin gaituzte.

Krisi eta blokeo anitzeko testuinguru hori da gogoeta honen abiapuntua. Baina zer adierazi nahi dugu 'krisia' eta 'krisi sistemikoa' aipatzerakoan? Esan genezake krisiaz hitz egiten dugula harreman-sistema batean zerbait lehen bezala edo espero bezala ez doanean, eta horrek sortzen dituen arazoek eta kalteek eskura dauzkagun soluziobideak gainditzen dituztenean. Kasu honetan, aipatu ditugun krisi ezberdinen larritasuna kontuan izanda, jendarte-sistema honen eredu-agorpenaren intuizioa sentitzen dugu; Kortatuk zioen bezala, «hay algo

aquí que va mal». Askoren ustez, agerikoak egiten ari dira zibilizazio honen gainbeheraren zantzuak. Hau da, argi dago jendarte-eredu hau alderdi ezberdinetan ez dela iraunkorra, begi-bistakoa da; baina sistemaren funtsak eta bere funtzionamenduaren inertiak norabide aldaketa tratatzen du, eta horrek sistemikoa bihurtzen du krisialdia.

Era berean, nabarmena da indarrean dagoen antolakuntza politikoa ez dela aski aurrean ditugun erronka kolektiboei aurre egiteko, ez die erantzunik ematen arazo latz horiei. Sistema politikoaren funtzionamendua, sinesgarritasuna eta zilegitasuna ere krisian dago. Eta, horren ondorioz, erregulazio eta antolakuntza sozialaren eta politikoaren debata zabaldu egiten da; jakina, horrek tentsioak eta gatazkak sortzen ditu: azken urteotan bizi izan ditugun greba orokorrak, protestak, plaza publikoen okupazio iraunkorrak, Euskal Herriko eskubide sozialen Kartaren inguruko lan-dinamika, erabakitzeke eskubidearen aldeko giza kate erraldoiak... Oro har, herritarrok erregulazio eta aldaketa politiko eta ekonomikoan eragiteko galdu dugun ahalmena (botere politikoa) berreskuratzeko nahia, bizitzaren arlo ezberdinetan erabakitzeke eskubidea gauzatzeko borondatea. Jendartearen elite ekonomikoak eta politikoak kontzentratzen ari diren boterearen aurrean, jendartearen herriko sektoreek herri boterea (demo-krazia) aktibatzeke nahia.

Izan ere, oso agerikoa suertatzen ari da defizit demokratikoa edo demokrazia gabezia; hau da, botere ekonomikoaren eliteak gailentzen ari direla demokrazia formal-elektoralaren gainetik. Edo, beste modu batez esanda, alderdi politikoaren eliteak beste elite ekonomiko horien interesen arabera gobernatzen ari dira, eta oligarkiarako (boterea esku gutxitan

Alderdi politikoaren eliteak beste elite ekonomikoaren interesen arabera gobernatzen ari dira, eta oligarkiarako joera horrek amorrua eta haserrea sorrarazten ditu

kontzentratzea) joera horrek amorrua eta haserrea sorrarazten ditu. Herritarren ustezko ordezkariak noren interesak ordezkatzan dituzte?

Jendarte sektore zabalak mobilizatu egin dira aurkakotasuna erakutsiz murrizketei, pisuen desjabetzei eta mota ezberdinetako erreformei (laboralak, hezkuntzakoak, erretirorako pentsioenak, abortuaren legearena...). Baina mobilizazio horien eragin politikoa hutsaren hurrengo dirudi, abortuaren legearen kasuan izan ezik, agintarien erantzuna ez ikusiarena edota errepresiboa izaten baita. Erantzun horien bitartez, etsipena, apatia, desaktibazio politikoa eta fatalismoa sustatzen ari dira etengabe: dagoena onartu beharra beste biderik ez dagoelako.

Ahots ugari adierazten ari diren moduan, begi-bistakoa da boterea (eragiteko ahalmena) eta instituzioen politika aldendu egin direla. Ignacio Ramonetek metafora egoki batez adierazten du:

Orain dela gutxi arte, politika eta boterea batera zihoazen. Gaur egun, Europa neoliberallean, ez da horrelakorik gertatzen. Agintari politiko batek hauteskundeak irabazi arren, horrek ez dio bermatzen benetan boterea izango duenik. Izan ere, hauteskundeetan hautatuak izan ez diren bi botere goren daude politikarien gainetik, zein jokabide izan behar duten adierazten dieten bi botere: Europako teknokrazia eta finantza merkatuak. [...] Bi ibaiertz zurrun horien ur-jarioan harrapaturik, politikaren ibaiak norabide bakar baterantz egin behar du aurrera ezinbestez, bestelako maniobrarik egiteko ia aukerarik gabe. Hau da, botererik gabe.

Zygmunt Baumanen aipamena gehituz, Ramonetek hone-labukatzan du: «sistema politiko berri bat eraiki behar dugu bizitzeko eredu berria eduki ahal izateko, eta herriaren benetako demokrazia berria lortu ahal izateko» (*Le Monde diplomatique* 203, 2012ko iraila).

«Herriaren benetako demokrazia» hori urruti dagoela dirudi, nabarmena izaten ari baita elite politikoei eta nazioarteko erakundeetako teknokratek (enpresa handien eta bankuetako eliteen lobbyen pean) funts publikoak

desbideratu dituztela finantza-sistema kapitalista egonkortzeko eta elikatzeko.

Horrela, urte askotako lorpen eta eskubide sozialak murriztuz, aurrekontu publikoekin egin diren erreskateek argi erakusten digute merkatuko eliteek duten diru-gosea, eta baita ez direla beren burua erregulatzeko gauza ere. Lotsagabea da gezur eta zinismo neoliberalak, alde batetik, merkatu askearen alde egiten baitu dena pribatizatu eta, etekinak maximizatzea eta gastuak minimizatzearen logika ezarriz, aberatsak are aberatsago egiteko orduan; baina, beste aldetik, esku-hartze publikoaz baliatzen baita, galerak sozializatuz eta elite ekonomikoek zein politikoez egin dituzten gehiegikeria espekulatzailerak herri xeheari ordainarazteko.

Sistema kapitalistaren eliteek duten irentsi nahi horrek argiro erakusten du merkatuaren logikak (etekinak maximizatzea, kapitala metatzea) sortzen dituen ustelkeriak eta patologia sozialak, are gehiago bere bertsio neoliberalen: «aberasteko, denak balio du». Izan ere, kapitalismoa eta demokrazia ezkonezinak direla erakutsiz, hauxe da merkatuaren ideologia horrek ezarri duen beste perbertsio bat: ustelkeria eta elite ekonomikoen parte-hartze abantailatsua eta mafiosoak instituzionalizatu du, lobbyak eta are ilun eta ustelagoak diren beste molde batzuk erabiliz: saldukeria, prebarikazioa, nepotismoa... Bai usteldu publikoen partetik, bai ustelkeria sorrarazten duten usteldu pribatuen aldetik ere.

## **Hegemonia merkatuzalea eta herri mugimenduen erantzuna**

Egia esan, urteotan bizitzen ari garena 1989an Berlingo harreria erortzean piztu zen euforia merkantilista eta kapitalistarekin lotu beharra dagoela pentsatzen dut. Ekialdeko jendarte komunisten gainbeherarekin batera, mozkorraldi merkatuzalea erabatekoa izan zen: gizartea erregulatzeko tresna eraginkor bakarra merkatu kapitalista eta bere logika espekulatzailerak eta lehiakorra zen. Eztabaida ideologikoak

itxi egin ziren, ideologia ultraliberalak nagusitasun osoa bereganatu eta pentsamendu bakarra bihurtu zen.

Horrela, ekonomia gero eta gehiago desarautzea eta sektore publikoa gutxiagotzea/pribatizatzea etorri zen, nazioarteko instituzioen indartze-joerarekin batera, eta horrek areagotu du enpresa transnazionalen eta finantza eliteen boterea. Merkatuen bertikalismo inposatua mozorrotu egiten da askatasun, garapen, demokrazia eta aurrerapenaren itxurakeriarekin. Mundua kasino bihurtu denetik, dena salgai dago; gizaki modernoaren handikeria eta itsukeria antropozentrikoak baliabide mugatuak dituen planeta ustiatzera darama, inongo neurri, oreka edo harmoniaren erreferentziarik gabe.

Izan ere, langabezia eta ezberdintasun ekonomikoak izugarri areagotu dituen finantza-iruzurra gertatu zenetik (2008tik hona) igaro diren urteetan ikusi dugunez, kapitalismo neoliberalaren hegemonia ideologikoa –hasierako uneetan kolokan jarri bazen ere– berriz egokitu da finantza-sistemak dituen egonkortasun-beharrizanen izenean. Horrela, orain arte krisiei eman zaizkien erantzunek ez dituzte inondik inora onartzen indarrean dagoen ‘aurrerapen’ eta ‘garapen’ ereduak dituen egiturazko ahuldadeak. Are gehiago, sakontzen ari

dira merkatuko logika neoliberal eta garapen zaleetan: lehiakortasuna, espekulazioa, metaketa, hazkundera, ekoizpen-zalekeria eta kontsumismoa.

Azken batean, logika neoliberaleretan sakontzen ari dira eta entzungor egiten zaio demokrazia gabeziari, krisi ekologikoari, energetikoari, zaintzen krisiari...

Eta kapitalismo neoliberalaren

sustatzaile nagusiak beren diskurtsoak eta politikak berregituratzen ari dira aurrerapen moderno eta zientifizistaren imajinarioa eta ideologia zabaltzen jarraitzeko. Imajinario

Kapitalismo  
neoliberalaren  
hegemonia ideologikoa  
berriz egokitu da  
finantza-sistemak  
dituen egonkortasun  
beharrizanen izenean

horren arabera, arrazoi zientifikoak eta aurrerapen teknologikoek ekarriko dute gure jendarte- eta garapen-ereduak dituen arazoan eta krisien konponbidea.

Hain zuzen ere, itsukeria horrexegatik, gero eta ugaria-  
goak dira sistema-mundu hau zibilizazio-krisi sistemiko  
batean sartzen ari dela planteatzen ari diren ahotsak. Izan  
ere, egun krisian dagoena ez da finantza-sistema edota eko-  
nomia, zibilizazio modu oso bat da, munduan egoteko eta  
bizitza ulertzeko modu bat: beste herrien kolonizazioan, na-  
turaren suntsiketean, sexuaren araberako lan banaketan eta  
bizikidetzaren desartikulazio komunitarioan oinarritzen den  
jendarte-eredu modernoa.

Modernitatearen oinarrian, Europatik burututako beste  
herrien kolonizazioa eta esklabizazioa dago, baita gizakia  
naturatik bereizi eta harreman hori hierarkizatzea amalurra  
menperatzeko eta ustiatzeko. Eta, aurrekoekin batera, sexua-  
ren araberako lan-banaketa: bizitza sortzeko ezinbestekoak  
diren zaintza-lan guztien feminizazioa eta desbalorazioa.  
Mendebaldeko zibilizazio modernoa, sistema-mundu mo-  
dernoan, naturalizatuak dituen zapalkuntza horien gainean  
eraikita dago. Sexismoa, arrazakeria, klasismoa eta natura-  
ren ustiaketa loturik daude eta jendarte-eredu honen funts  
patriarkal, kolonial eta kapitalistaren ondorio dira, hurrenez  
hurren.

Hasieran esan dugunez, finantza, energia, klima, lan edo  
zaintza bezalako esparruetan dauden ziurgabetasunek eta  
asaldurek goitik behera zeharkatzen dituzte gure jendarteak  
eta, oro har, sistema-mundu hau. Eta horietako bakoitzak  
zein euren arteko loturak (gogoratu zaintzen kate globala-  
ren fenomenoak erakusten duen arraza, sexu eta klasearen  
araberako subordinazio lotua) oinazea eta indarkeria eragi-  
ten die planeta honetan bizi diren pertsona gehienei. Zentzu  
horretan, gero eta nabarmenagoa da kapitalaren eta bizitza-  
ren arteko gatazka: akumulazioaren eta etekinaren logika  
bateraezina baita bizitzaren erreproduzioaren eta elkarren  
zaintzaren logikarekin.



## **Erresistentziak eta borrokak**

Sistema-mundu honetan sektore sozial batzuek beste batzuek gutxiagotzeko, menperatzeko eta zapaltzeko dauden mekanismoak ulertzeko orduan eta botere-harreman horiek eraldatzeko orduan, herri mugimenduak garrantzi bereziko agenteak dira.

Izan ere, menpekotasun modu ezberdinen aurrean, herriko sektoreen aldetik, hau da, nolabaiteko subordinazioa pairatzen dutenen aldetik, erresistentzia eta borroka modu askotarikoak sortzen dituzte beste jendarte-sektore batzuen pribilegioen kontra eta aukera-berdintasunaren alde borrokatzeko: emakumeen borroka; gazteena eta ikasleena; langabetuena; langileena; migranteena; nekazariena; komunitate linguistikoko gutxiagotuena, askapen nazionalaren aldekoa; homosexualena; ekologistena; errepresaliatuena; aniztasun funtzional fisiko edo mentalena; internazionalista eta antimilitaristena...

Jendarte- edo herri-mugimenduek badute euren jardun politikoaren bereizgarri den izaera irekia, informala, antagonista eta eraikitzailea. Euren jarduera disidentearen bitartez interpelatzen diete (beren buruei eta besteei) zein ote diren sektore sozial batzuek pairatzen dituzten oinaze eta menpekotasunezko egoerak sorrarazten dituzten mekanismoak eta prozesu historikoak.

Ekintza kolektibo mota hori elkarte eta talde ezberdinek protagonizatzen dute, edozein pertsonarentzat sarbide erraza izaten dutenak haiekin bat egiteko –beti ere zapalkuntza, kontrola edo infiltrazioa dela-eta funtzionamendu klandestinatorik edo erdi klandestinatorik ez badute–. Haien egitura ez da izaten oso formalizatua, ez eta hierarkizatua ere. Beren autonomiari eutsiz, mundua ulertzeko eta munduan egoteko modu kritikiko edo ez-konformista (menderakaitz, errebelde, disidente) baten inguruko talde nortasuna, kidesuna eta sozializazio politikoa sortzen dute. Ezarrita dauden botere-egitura jakin batzuek salatzen eta desnaturalizatzen dituzte,

eta ez dute onartzen indarrean dauden gizarteko egiturek eta konbentzioek ezartzen dutena.

Hargatik, mezuak, diskurtsoak eta eskema kognitiboak sortzeko duten gaitasunaren bidez, interes orokorreko zenbait eskaera eta beharrian kolektibo agertzen dituzte. Eta horretarako gatazkaren logika politikoa baliatzen dute, aurkariak eta erantzukizun politikoak identifikatuz eta sarritan arau-hausleak diren mobilizazio-moldeak erabiliz. Instituzioen sistema juridiko-politikoak sarritan errepresioaren bitartez erantzuten du; izan ere, gehienetan herri mugimenduek botere politiko instituzionalizatua eskuratu nahi ez badute ere, bai eraldatu nahi dituzte gizartean (bere osotasunean) indarrean dauden botere-harremanak.

Horrekin batera, herri, giza-talde eta pertsona guztientzat aldarrikatzen duten menpekotasunik gabeko harreman aske eta solidarioen aurrerapena egin nahian, praktika alternatiboak eta eraikuntzan dauden proposamenak gauzatzen dituzte.

Gaur egun, inkonformismo kritiko eta disidente horrek bultzatuta, herri mugimenduak eta herri ekimenak, beren aniztasunean eraikitzen dituzten praktika politikoen bitartez, modu osatuago batez birplanteatzen ari dira jendartean dauden botere eta zapalkuntza harremanak, baita eraldaketa emantzipatzaileak ulertzeko moduak ere. Hala, sexu-genero, klase, etnia eta naturaren ondare komunen ustiaketaren arabera sortzen diren menpekotasunen arteko lotura dela eta, gero eta indar gehiagoz proposatzen ari da erresistentzia eta borroka desberdinak artikulatzeko dagoen beharra. Izan ere, era horretan bidea zabalduko genuke izaera osatuagoa eta intersektorialagoa duten praktika politiko alternatiboak sortzeko, begi-bistatik galdu barik gure praktiketan ezin ditugula birproduzitu botere-, baliabide- eta aukera-ezberdintasunak areago handitzen dituzten subordinazio edo hierarkiak.

Horrela, sormen eta alternatiba askatzaile horien bilaketa proaktiboan adibide gisa, hor ditugu praktika euskaltzaleak, feministak, ekologistak, nekazariak edota

Hor ditugu praktika  
euskaltzaleak,  
feministak, ekologistak,  
nekazariak edota  
autodeterminazio  
eskubidearen inguruan  
sortzen ari diren  
proposamen eta  
prozesuak

autodeterminazio eskubidearen inguruan sortzen ari diren proposamen eta prozesuak: hizkuntza komunitateak trinko-

tuz, zaintzaren dimentsioa ekonomian eta egunerokoan parekidetasunez txertatuz, deshazkundera eta elikadura-burujabetza sustatuz edo erabakitzeke esku-bidea bezalako proposamen politikoak landuz, bizitzaren birsortze prozesuak zainduko dituen beste ipar zibilizatorio baterako bideak erakusten eta sortzen ari dira. Izan ere, aldi berean agerian jartzen ari dira delegazionismoa, 'desarrollismoa' eta kapitalaren mugarik gabeko metaketa beza-

lako egungo logikak guztiz bateraezinak direla bizitzaren zaintza eta bizikidetzaren duinarekin; bateraezinak ere kultur aniztasuna, hizkuntza ekologia eta herrien egiazko burujabetzarekin; edo bizitzaren erreproduktzio eta iraunkortasunarekin, baliabide mugatuak dituen planeta honetan.

Proposamen politiko horien eskutik eta herri mugimendu bakoitzak sortzen dituen ezagutza propioekin eta garatzen duen borrokarekin, beste jendarte-ereduak eraikitzeke imajinario eta izateko molde berriak sorrarazten ari dira ares-tian aipaturiko krisien alternatiba gisa. Gizakiek bizitzaren gainerako alderdiekin beste era bateko harremanak izatea proposatzen ari dira, erreferentzia berriak eta konplexuagoak eskaintzen bizitzaren hauskortasuna dela-eta pertsonen arteko interdependentziari buruz, bizitzak erreproduzitzeko dituen mekanismo zikliko sofistikatuei buruz eta bere iraunkortasunerako zaindu beharreko prozesuei buruz.

Era horretan, aurrerapen modernoaren imajinarioak duen linealtasun eboluzionista gaindituz, beren ekintza kolektiboaren bidez alternatibak erakusten eta eraikitzen ari dira, eta izan daitezkeen bestelako etorkizunak seinalatzen.

Demokrazia eta Eraldaketa Globalerako Programako gure perutar kideek diotenez, praktika teoria baino lehenago izaten da, eta, hargatik, mugimenduen ekintzak bideak zabalitzen ditu, baita berrikuntza teorikoa eta epistemologikoa sortu ere.


## **Botere politikoa eta eraikuntza politikorako eremuak**

XXI. gizaldiko koiuntura historiko honen ikuspegitik begirata, artikulua hasieran aipatzen genuen merkatu globalak ezartzen duen elite ekonomiko eta politikoen hegemoniaren aurrean, bi estrategia dirudite osagarriak herri ekimenaren aktibazioaren ikuspegitik. Alde batetik, sare instituzionalatik erabat autonomoak diren ekimenak eta espazioak indartzea, beti ere endogamian jauzi barik eta izaera irekia eta komunitarioa mantenduz. Horrela, merkatuaren logika lehiakorretik urrunduz, bestelako dinamika alternatiboak aktibatzea gure eguneroko beharrezanaren inguruan (elika-duran, etxebizitzan, arlo produktiboan, kulturalen...). Hau da, arlo politiko-instituzionalaren zain egon barik, praktika eratzailerriak abiatzea. Hori bera gure tradizio kulturalen dago eta baita gure historia garaikidean ere (kooperatibismoan, hezkuntzan, euskararen alorrean, komunikabideetan, agroekologia eta kontsumoaren alorrean...).

Beste alde batetik, aurrekoarekin batera eta tentsio dialektikoan, ezinbestekoa dirudi politika eta administrazio publikoaren esparrua birsortzeko estrategiak lantzea; artikulua hasieran aipatu bezala, botere publikoek herritarren gehiengoaren interesen arabera (interes kolektiboak) funtziona dezaten, eta ez gutxiengo pribilegiatuen interesen arabera. Urgentea baita erakunde publikoak gobernatzeko modu burokratizatuak eta elitistak gainditzea, eta gobernatzeko modu irekiak eta komunitarioak sortzea. Horretarako, inplikazio kolektiboa eta herritarren parte hartze zuzena eta iraunkorra bideratuko dituzten prozesuak eta mekanismoak

behar ditugu. Administrazio publikoak, gerentzia burokratizatu baina, herritarren agentzia dinamizatzailea eta mobilizatzailea izan beharko luke; baina horretarako erakunde publikoen funtzionamenduaren birmoldaketa sakona behar da, bai maila politikoan bai teknikoan, hau da, arlo publikoaren birdefinizio parte-hartzaile eta demokratizatzailea.

Zaharrak berri, estrategia batean zein bestean, kontua hau-xe da: herri ekimena aktibatzea eta komunitatea antolatzea, gauzak aldatzea edo *statu quo*-a iraultzea ez dirudi eratuta dagoen botere-egituran hegemonia lortzea denik, baizik eta egunerokoa (behetik eta egunerokotik hasita) gauzak beste modu batez produzitzen hastea eta, jendartearen jakintza eta sormena aktibatuz, bide berriak ibiltzea.



## Ekimen politiko ez-instituzionala: autoeraketa autonomoa

Antolatuta dagoen herriak bere bilakaeran eragiteko gaitasuna du, bere etorkizuna gidatzeko ahalmena. Herritarren autoantolakuntza funtsezkoa dugu gure historiaren subjektua izateko. Gaur egun, aldiz, merkatu kapitalistak eta

administrazio publikoek euren logika merkantilistak eta normatibistak ezartzen dituzte eta, ondorioz, gure bizimoduak gero eta merkantilizatuago eta normatibizatuago daude.

Herritarren autoantolakuntzak, auzolanak eta herrigintzak, bere logika propioetan autozentratuz (ez logika merkantilistak ez estatalistak), beste modu batez produzitu dezake jendartearen antolakuntza; gizarte bizikidetzeta eta natur ingurunea errespetatuko dituen modu batez, bizitzaren birsortze prozesuak zainduko dituen modu batez.

Horrela izan da historikoki, eta horrela izan daiteke aurrerantzean ere. Auzolanak, herri ekimenak eta antolaketa-modu komunitarioak, gure tradizioan dauden bizikidetzeta modu preliberal eta prekapitalistak diren neurrian, modu kritikoa aztertu behar ditugun argibide ugari eman ahal digute.

Autoantolakuntzak, energia askatzaileak katalizatzen dituen oinarri gisa hartuta, indarra ematen dio itxoiten ez egoteko eta alternatiba askatzaileak eraikitzen jarduteko ideiarri. Arlo politikoa zabaldu eta egunerokotasunean sartu beharra dago, autonomia eta desmerkantilizazioa eraikiz (arlotan lotura du jaten dugunarekin, kontsumitzen dugunarekin, erabiltzen ditugun komunikabideekin, ikasten dugunarekin, harremanetan jartzeko dugun moduarekin, eta etxean, auzoan edota erakundeetan zaintzeko dugun moduarekin, besteak beste). Horrek berezko molde autonomoak sortzen ditu bizitza kolektiboa sare eta komunitate kooperatiboen bidez antolatzeko; hau da, logika solidarioetatik abiatuta, zaintzaren etika-politika indartzeko, berdintasuna eta pertsona zehatzekiko erantzukizuna –hurbil nahiz urruneko, tokiko nahiz global– gure gain hartzeko.

Azken batean, eraldaketa emantzipatzaileak aktibatzen haxe ari gara proposatzen: herri ekimenez sareak eta espazioak eratuz joatea. Eta, horrela, merkatua eta estatu liberala jendarte-antolakuntzaren arautzaile nagusiak ez daitezela izan. Hortaz, oso garrantzitsua da instituzionala ez den ekintza politikoa, oro har jendarteari beste molde batzuk proposatzeko, eta herriaren ekimenez burokratizatuak ez dauden eta

merkataritzakoak ez diren guneak eta zerbitzu publikoak eraikitzeke. Hau da, merkatu kapitalistaren logikatik at dauden ekimen, sare eta espazioak: baserriar eta kontsumo taldeak, birziklapenaren inguruan sortzen diren kooperatibak, euskara elkarteak, herri komunikazioan dauden ekimenak, gazte-txeak eta kulturaz gozatzeko dauden espazio autogestionatuak, ekonomia sozialaren alorrean dauden ekimenak eta sareak...

Isabel Rauber-ek dioenez, lortu nahi den jendarte berria ez da goitik behera ezarritako dekretuen bitartez sortuko; jendarte hori diseinatzeko eta eraikitzeke, herri parte-hartzea izango dugu ezinbesteko oinarria. Izan ere, boterea ez da okupatzen den instituzio, eraikin edo lurralde zehatz bat, eta ez da gobernu edo estatuko instituzioen eremura murrizten –XX. mendeko praktika iraultzaile ekonomizisten eta abangoardiakoen ezaugarria izandako ikusmolde kosifikatu eta murriztailea da hori–. Aitzitik, boterea sortu eta berregiten dugu jendarte harremanetan nagusitzen diren (hegemonia lortzen duten) orientabide etiko-politiko jakin batzuen arabera, eta horiekin bat datozen praktika materialen arabera. Horregatik, kontu bat da gobernuan egotea eta arlo instituzionalaren kudeaketaz arduratzea, eta beste kontu bat da hegemonia edo nagusitasun etiko-politikoa aldatu ahal izatea, horrek arlo kulturala, ideologikoa, subjektibotasuna eta beste esparru batzuk barne hartzen baititu. Eta nagusitasun hori ez da ‘hartzen’, ez ‘konkistatzen’ edo ‘dekretatzen’; hori eraiki egin behar dugu gure eguneroko praktikekin (Rauber, 2011).

Horiek horrela, Rauberrekin bat eginez eta lerro hauetan planteatzen ari garen bezala, prozesu askatzaileek ezinbestez uztartu behar dituzte bi gune: behetik eraikitako jendarteko harreman berrietatik sortutako boterearen gunea, eta gobernuaren eta administrazioaren arlo instituzionalena. Hortaz, beharrezkoa da instituzionalitatea lehian dagoen lurralde gisa hartzea, gobernuak lehentasunezko interlokuzioa eta elkarlana jendarteko herri sektoreekin eta arestian aipaturiko herri mugimenduekin edukitzeke –eta ez elite pribilegiatuekin–. Horrela, sektore horien protagonismoa bermatzea eta, euren

parte hartzearen bitartez, administrazioaren berreraikuntza demokratikoa eta parte-hartzailea abiatzea.

Jarraian ikusiko dugunez, aipatzen ari garen alderdi horiek bereziki kontuan hartzekoak dira 'lagunak' diren mugimendu eta gobernuen arteko harremanetan; hau da, Euskal Herriko hainbat udalerritan eta udalez gaindiko zenbait instituziotan gertatzen den legez, mugimenduen eta gobernuaren artean nola-halako kidetasun ideologikoa dagoenean.

### **Instituzionalitatea**

Arlo publikoaren berreraikuntza demokratikoa abiatzea bestelako gobernu-modu eta administrazio publiko irekia eraikitzea da, herriko sektoreekiko irekia eta hurbila izango den administrazio publikoa. Hau da, zapalkuntza modu ezberdinak bizi dituen jendarte-sektoreak lehenetsuen erdigunean ipintzen dituen, eta jendarte-sektore horien emantzipazioaren alde lanean ari diren eragile eta mugimenduak elkarlanerako lehenetsuzko interlokutoreak izango dituen. Baita herri eragile horiekin bestelako hartu-eman eta elkarlan mota garatzeko bere burua eraldatzen duen administrazioa ere.

Arlo publikoaren  
berreirakuntza  
demokratikoa abiatzea  
herriko sektoreekiko  
irekia eta hurbila  
izango den bestelako  
gobernu-modu eta  
administrazio publikoa  
eraikitzea da

Hau da, barrura begirako lana lehenetsiz, administrazioaren baitan nagusi diren joera normatibistak eta parte hartzea oztopatzen duten bestelako trabak (batetik, alderdikeriak erdigunean egotea eta, bestetik, administrazioaren errekerimendu formalak, juridikoak, papeleoak, teknifikazioa...) eraldatuz joatea, sinplifikatzea eta erraztea.

Eta, aldi berean, herri ekimena, auzolana eta antolakuntza komunitarioa sustatzen duen administrazioa. Oztopatu



barik, sektore eta eragile horien ekimenez sortzen diren prozesuak, juridikoki babesten, burokratikoki errazten eta ekonomikoki laguntzen dituenak. Beti ere euren autonomia errespetatuz eta administrazioak dituen erritmo, errekerimendu eta kodeetara eraman gabe. Edota kurtso politikoak, legealdien amaierak eta hauteskunde-egutegiak interferentziarik sortu gabe.

Kontua bada, horrenbestez, politika egiteko modua eraldatzea; herritarren parte hartzea eta herri sektoreen protagonismo kolektiboa politikaren ardatz bihurtzea, alderdien eliteen arteko 'sukaldeetan' egiten diren 'konponketak' politikaren ardatz nagusia izan gabe. Labirinto normatibo-burokratikoetan trabatuta gelditu gabe, eta teknikari, aditu edo aholkularien botere ez-agerikoaren amarruek irentsiak izan gabe.

Ildo horretan, herri parte-hartzean oinarritutako prozesuak, metodologiak eta dinamikak ezinbestekoak dirudite herriaren protagonismo kolektibo hori eraikitzeke. Hau da, herrigintzan parte hartzeke kontzientzia, borondatea eta antolakuntza eraikitzea, gizarte debateetan, proposamenen sorkuntzan eta alternatiben eraikuntzan parte hartzeke. Eta, horrela, subjektu kolektiboa indartu, eraldaketa prozesuak sostengatzeko gai izan dadin. Beti ere, parte hartze prozesuak abiatu aurretik, horretarako beharrezkoak diren baldintza egokiak bermatu daitezkeela ziurtatuz: adostasun politikoak, ondo prestatutako dinamizatzaileak, denbora eta baliabide ekonomiko nahikoak, prozesuaren nondik norakoa eta erabakimena adostasunez zehaztea...

Azken batean, zertaz ari gara? Ordezkaritza politikoaren eta gizarte protagonismoaren artean dagoen amildegia ezabatzeaz. Horretarako, gobernuak herriko sektore eta jendarte-erakundearen protagonismo politiko indartsu batekin artikulatzea; eta, horrela, bestelako legezkotasuna, instituzionalitatea eta zilegitasuna eraiki ahal izatea, erabaki politikoak herriaren parte-hartzean oinarritzeak ekarriko duen bestelako zilegitasun eta instituzionalitatea.

Administrazio publikoa ezin da modu demokratikoan eta parte-hartzailean berreraiki, langile teknikarien eta adituen zentralitatea eta protagonismoa ardatz gisa hartuta. Haren diagnostikoak, azterketak eta proposamenak herri erakundeen eta herriko sektoreen parte-hartzearekin sortu behar dira ezinbestez; hau da, teknikarien lana jakintzaren eraikuntza kolektiboa erraztea da, eta, horren bitartez, autoantolakuntzako eta subjektu herrikoien protagonismoa indartzeko prozesuak dinamizatzea. Horrexegatik, administrazioaren langile eta teknikarien artean (eta baita arduradun politikoen artean ere) ezinbestekoa dirudi formakuntza eta esperientzien trukea, ahalduntze prozesuak errazteko metodologia eta lan egiteko moduen inguruan.

Izan ere, herri mugimenduek goitik baino behetik eraiki nahi dituzte prozesu politikoak; horregatik, ez dira batere fidatzen goitik abiarazitako dinamikez eta metodologiez, horiek eliteei, abangoardiei, despotismo ilustratuari edo agintekieriaz baliatzen diren gutxiengoei dagozkielako. Eta behetik eraikitzeko –izan komunitatearen eta mugimenduetako sareen herri-ekimenez, edo instituzionalitatearen borondate eta ekimenez–, arazo zehatzean eta tartean sartuta dauden eragileengan arreta jartzen duen praktika politiko-metodologikoa behar da, alternatibak batera aztertu, diseinatu eta gauzatu ahal izateko. Izan ere, herritarrak eta herriko sektoreak aktibatu egiten dira eta parte hartzen dute, beren ekintza alferrikakoa ez dela izango sumatzen dutenean, besteren interesek manipulatu ez dutela, edota bizitzeko baldintzak aldatu eta hobetu ditzakeen prozesu batean parte hartuko dutela intuitzen dutenean.

Horregatik, zeregin politikoak ez da jakintza, egia edota prozesu politikoaren protagonista izatea, egia ideologikotik edo jakintza adituaren egiatik zer egin behar den dekretatzeko. Aitzitik, zeregin politikoak parte-hartze askotarikoa erraztea eta gauzatu dadin lortzea da, delegazionismorik gabeko herri protagonismoa eta ardura partekatua izango duten prozesuetan erabaki ahal izateko.

## Politikagintza eta herri ekimena aktibatzeneko prozesuak

Herri-hezkuntza, Esperientzien Sistematizazioa edo Ikerketa-ekintza Prozesuak gurean oihartzun apala izan duten tradizio emantzipatzaileak dira. Paulo Freire brasildar pedagogoak abiatu zituen eta herri mugimenduek bere egin dituzten pro-

Herri-hezkuntza,  
Esperientzien  
Sistematizazioa edo  
Ikerketa-ekintza  
Prozesuak gurean  
oihartzun apala  
izan duten tradizio  
emantzipatzaileak dira

posamen politiko-metodologiko horiek sektore gutxiagotu eta zapalduen ahalduentze eta antolatze prozesuak errazteko proposamenak dira. Norberaren bizi-esperientzia abiapuntu hartuta, ingurune materiala eta kulturala kolektiboki aztertu eta ingurune horretan eragiteko ahalmena indartzeko proposamenak. Auto-

konfiantza eta ahalduentze pertsonala zein kolektiboa (aliantzak, sinergiak...) kolektiboki eraiki, jendartearen bilakaera gidatzen duen botere dialektikan (indar eta zilegitasun korrelazioetan) sektore gutxiagotuak eta zapalduak indartzeko.

Ahalduentze prozesu askatzaile horietan, norbere jakintza norbere boterearekin lotzeko saiakera dago, maila pertsonalean zein kolektiboan. Hau da, bizi baldintzak, horietan izaten ditugun praktikak, eta praktika horiek baldintzatzen dituzten elementu kulturalak eta materialak artikulatuz, kontzientzia politiko pertsonala eta kolektiboa garatzen dugu baldintzatzaile kultural eta material horietan eragiteko ahalmen kolektiboa indartzeko.

... eta hori ez da lortzen aulkiak zirkulu bat eratuz jarrita [...] parte hartzea ez da aulkiak areto batean kokatzeko modura murrizten, ez eta hitz egiteko modu batera, edo erakusteko formatu batera ere [...] alde batetik, ezinbestekoa da jakintza eta boterearen eta horren ondorioz eratzen diren menpekotasunezko harremanen artean ezarrita dagoen egitura zurruna eta hierarkikoa haustea; eta, bestetik, esatearen eta egitearen arteko koherentziari eustea.

[...] Herri-hezkuntza tresna eta jarrera politiko *sine qua non* bat da, arrazoimenaren eta bihotzaren ateak zabaltzen baititu, bestea onartzeko, balioesteko, entzuteko eta entzunak izateko [...] eta horiek funtsezkoak dira beste pentsamendu askatzaile mota bat sortzeko-erakitzeko (Rauber, 2011: 241).

Horrexegatik guztiagatik, orri hauetan proposatu dugun ikuspegitik, herritarren parte hartzea aktibatzea botere harremanetan esku-hartzeko bidea da, botere harremanak demokratizatzeko aukera; herritarrok politikaren eta merkatuaren eliteek kendutako eragin-indarra (boterea) berreskuratzeko ezinbesteko zeregin politikoa. Horretarako, testuan agertu dugun bezala, erronka dugu, alde batetik, herri ekimenez sorturiko kolektiboek euren autoantolakuntzarako prozesuak eta espazio autonomoak indartzea (sinergia eta aliantza zabalak sortuz); eta, beste aldetik, erakunde publikoek gobernatzeko dituzten modu elitistak (elite ekonomikoen menpekoak) eta burokratizatuak gaindituz, politika publikoak diseinatzeko modu irekiak eta komunitarioak exijitu eta eraikitzea. 🌱

### Oharrak

1. «Zaintzen kate globala: hemen emakume etorkinek enplegua hartzen dute haurrak eta adinekoak zaintzen, garbiketa eta elikaduraz arduratzen, konpainia eta laguntasuna ematen, etab. Zaintza-lan horiek gizarte-egoerarik ahulenean dauden emakumeentzat sortutako lan ez-egonkorren merkatua osatzen dute. [...] Emakume horiek, aldi berean, eginkizun horiexek uzten dituzte beren sorterrietan beste emakume batzuen esku –amonek, ahizpek, izekoek, etab. hartuko dituzte lan horiek beren gain, halamoduz hartu ere» (Herrero eta Pascual, 2010). «Zaintzen arloan, mendebaldeko jendarte-eredu honek dituen egiturazko arazoak egunerokotasunean nola materializatzen eta azaleratzen diren ikusten dugu. [...] Jendarte-eredu hau, besteak beste, sexuaren araberako lan-banaketan oinarritzen baita; hau da, emakumeei zaintza-lan ikusezinak esleitzea, doako lanak; eta gizonei, berriz, lantzat onartutako enpleguaren arloa ematea, soldatapeko lana, alegia. [...]. Doako lana ezinbestekoa da sistemak aurrera egiten jarrai dezan, bere logikak ez baitu lehenesten bizitza, kapitalaren me-

taketa baizik, eta egunerokoan bizitzari eusteko eta bizitza sortzeko ezinbestekoak diren zaintza-lan guztien kostua doako lan feminizatu-tuetan lagatzen du. Zaintzaren krisia eredu horren krisia da, egitura ekonomikoak, lan-merkatua eta ongizate estatua sostengatzen zuen sexuaren araberako lan-banaketarena» (Pérez Orozco, 2010).

2. Uste baino gehiago barneratua dugun ikusmolde kolonialagatik, mendebaldekoak hobeto, aurreratuago bizi garela pentsatzeko joera daukagu, eta besteak atzerago daudela, azpigaratuak. Pentsamolde eboluzionista, lineal eta hierarkiko horrek, pentsamolde hierarkiko guztiek bezalaxe, goratzen ditu batzuk eta beheratzen ditu besteak. Eta, horrela, azalaren kolorearen araberako aurreiritzi zein konplexuak sortzen ditu (besteak baino gehiago izatearen konplexua eta, ondorioz, besteak gutxieteko joera), baita hortik eratortzen diren jarrera paternalista eta arrazistak ere.

## **Bibliografia**

- Daza, Mar; Hoetmer, Raphael; Vargas, Virginia (arg.) (2012): *Crisis y movimientos sociales en Nuestra América. Cuerpos, territorios e imaginarios en disputa*, Programa Democracia y Transformación Global (PDTG), Lima.
- Herrero, Yayo; Pascual, Marta (2010): 'Ecofeminismo, una propuesta para repensar el presente y construir futuro' ([www.rebelion.org/noticia.php?id=103036](http://www.rebelion.org/noticia.php?id=103036); kontsulta: 2014-10-08).
- Hoetmer, Raphael (koord.) (2009): *Repensar la política desde América Latina. Cultura, Estado y movimientos sociales*, Universidad de San Marcos, Lima.
- Martínez, Zesar; Casado, Beatriz (2013): 'Acerca de opresiones, luchas y resistencias. Movimientos sociales y procesos emancipadores', *Hegoa. Cuadernos de Trabajo* 60.
- Pérez Orozco, Amaia (2010): 'Feminismo anticapitalista, esa Escandalosa Cosa y otros palabros' ([www.rebelion.org/noticia.php?id=104450](http://www.rebelion.org/noticia.php?id=104450); kontsulta: 2014-10-08).
- Rauber, Isabel (2011): *Dos pasos adelante, uno atrás. Lógicas de superación de la civilización regida por el capital*, Ediciones desde abajo, Bogota.
- Santos, Boaventura de Sousa (2008): *Conocer desde el Sur. Para una cultura política emancipatoria*, CLASO, CIDES-UMSA, Plural Editores, La Paz.
- (2009): *Una Epistemología del Sur. La reinención del conocimiento y la emancipación social*, Siglo XXI, Mexiko Hiria.
- Zibechi, Raúl (2008): 'Ecos del subsuelo: resistencia y política desde el sótano', in Raúl Zibechi: *Autonomías y emancipaciones: América Latina en movimiento*, Bajo Tierra Ediciones, Mexiko Hiria, 71-99.

# Erakundeak eta parte hartzea: paradigma berri bat elkarrekin eraikiz?

Nicola Foroni

*Parte hartze eta eraldatze prozesuetan aholkulari eta bideratzailea*

## Krisia, aldaketa eta erakundeak

Aldaketa aroa bizi dugu, aldaketa ekonomiko, politiko eta sozial sakonen garaia. Horrek, jakina, erronka eta aldaketa instituzional handiak eragiten ditu. Artikulu honetan, batik bat Gipuzkoan demokrazia zuzenari, parte hartzeari eta herrigintzari buruzko ikusmoldeen inguruan gorpuzten ari diren aldaketa instituzional horien prozesu hasiberriari buruzko zertzelada batzuk eskainiko ditut, bereziki gauzak egiteko moduari dagokionean.

Herritarren parte hartzeak eta demokrazia zuzenak erakunde publikoekin duten erlazioari buruz idazten hasterakoan, erakunde publiko horiei buruzko hausnarketa labur eta soil bat egin beharra dago: sistema batek, jardun ahal izateko, eratzen dituen lanabesak dira erakunde horiek; sistemaren beraren logikari jarraitzen diote, dinamika berberak errepikatzen dituzte eta botere harreman berberak islatzen dituzte. Bestela esanda, bere buruarekin sintonian aritzen den sistemaren beraren osagaiak dira.

Bigarren auzi bat ere azpimarratu nahi dut, oro har mundu guztiak onartzen duela uste baitut: 'mendebaldeko gure

demokraziak, indarrean dagoen sistema sozioekonomikoaren isla politiko zehatzak direnak, krisi sakonean daude. Krisia jarduera-esparru guztietara heltzen da, eta 'ustezko demokrazia' horren kalitateari buruzko zalantza larriak sortzen ditu.

Izan ere, 'mendebaldeko sistema demokratikoa' munduko eremu mugatu bateko eboluzio historiko jakin baten emaitza da. Bere osagai nagusiak hautatzeko eta hautatua izateko eskubideak dira, 'formatu politiko sozial berri' horren funtsezko ezaugarrietako bat, alegia. Hau da, 'demokraziak' gure ordezkagarritasunaren delegazio sistema batean oinarritzen dira berez (hainbatero hauteskundetan hartzen dugu parte), parte hartze zuzen eskasarekin. Gabezia hori arazo gisa ikusi eta sentitzen da. Azpimarratu behar da, orobat, sistema hori azken hamarkadetan oso gutxi garatu dela, eta egun gizarte zilegitasun eta sinesgarritasun oso txikia duela.

Dena den, gure 'demokraziek' bizi duten krisiaz gogoeta egiten dugunean, ia automatikoki erakunde publikoetan krisi horixe bera identifika dezakegu. Baina, are larriago, erakunde publikoak normalean gizartean gertatzen diren aldaketen azken lerroan joaten dira, edo hala ikusten ditu gizarteak.

Aurreko guztia, jakina, erakunde publikoei, demokrazia zuzenari, parte hartzeari edo herrigintzari buruzko azterketa eta gogoetari heltzerakoan aintzat hartu behar dugun testuinguru eta abiapuntua besterik ez da.

Parte hartzeari dagokionez, gauzak nola garatzen ari diren eta zein logikari erantzuten dioten eta, berritasunaren erai-kuntzaren ikuspegitik, dauden zailtasunak eta erakundeetatik heldu beharreko erronkak zein diren ulertzeko, Gipuzkoaren egoera oso argigarria delakoan nago. Beraz, hortxe jarriko dut arreta, batik bat.

## **Parte hartzeari buruzko erakundeen ikusmoldea eta ekimen batzuk**

Azken hamarkadatik aurrera, aipatutako krisiaren ondorioz, diskurtso politikoak eta erakunde publikoek (aldundi

eta udalek) eboluzio baten premia planteatu zuten, nolabait zilegitasun handiagoa berreskuratzeko asmoz.

Ikusmolde berri horren oinarrian zegoen diskurtsoa honela laburbil liteke: «herritarrengana hurbildu behar dugu, horien eta erakundeen artean gero eta distantzia handiagoa baitago (berdin alderdi politikoekin...)». Bestela esanda, azken urte hauetan erakundeek ikuspegi parte hartzaile-rantz egin duten hurbilketak ikusmolde instrumental hutsa izan du, eta, horregatik, hasiera-hasieratik porrotera bideratuta egon da.

Lehen momentu horretan egin ziren ahalegin txikiak 'formalak/tradizionalak' izan ziren gehienbat: kongresuak, solasaldiak, liburu argitalpenak, teoriak... Ez ziren harago joan, salbuespenak salbuespen (egia da udal batzuk prozesu benetakoago batean murgildu zirela...).

Aurreko agintaldira arte (2007-2011) ez zen hasi Aldundia ekimen zuzenari lotutako ahalegin taxutuagoak egiten lurraldean. Aurreko gobernuak, horrenbestez, urtero hamar udalentsako laguntzak aurreikusten zituen programa bat jarri zuen abian, herritarren parte hartzeari lotutako egitasmo txikiak egiteko.

Programa horren diseinuak, egitasmo motak, diru kopuru txikiak eta marjinaltasunak azaltzen dute lortutako emaitzen urritasuna, agintaldiko azken urteetan egitasmoren bat egiteko prest egongo liratekeen hamar udal lortzeko zailtasunak izatera ere iritsi baitziren. Herritarren parte hartzea oso mugatua izan zela ere azpimarratu behar da, egitasmo guztien artean urtero hamarka herritar batzuen parte hartzea baizik ez baitzen erdietsi.

Azken urte hauetan erakundeek ikuspegi parte hartzaile-rantz egin duten hurbilketak ikusmode instrumental hutsa izan du, eta, horregatik, hasieratik porrotera bideratuta egon da



Agintaldi berean beste gertakari aipagarri bat dugu: Baztar Nagusiek herritarren parte hartzeari buruzko lehen foru araua onartu zuten. Araua aurrerapausoa da, baina ahulezia esanguratsuak ditu: besteak beste, hainbat parte-hartze mekanismo ‘formal/tradizional’ aurkezten ditu (kontseiluak –‘adituenak’, gainera–, plan lanketak...), baina herritarren parte hartzearen bidez sustatzen dituen mekanismo guztiek kontsulta izaera dute, hau da, «ongi da, baina azken buruan nik erabakiko dut, eta zuek erabaki edota proposatzen duzuenaren komeni ez bazait, ez nau ezerk horretara lotuko».

Parte hartze zuzenerako mekanismoen kasuan (herri galdeketak, esate baterako), egoera are mugatuagoa da. Legeak aukera bezala baizik ez ditu aipatzen, galdeketa horiek nola egin behar diren zehaztu gabe; eta, noski, izaera guztiz hautazkoa dute, ez soilik emaitzen kontsulta-izaerari dagokionez, baita Aldundiak galdeketa horiek antolatzeke eskumenari dagokionez ere.

Legean islatzen den herritarren parte hartzeari buruzko ikusmolde ‘ikarati’ horrek ateak ireki daitezzen ahalbidetzen du, baina erabateko kontrolari eutsiz. Herritarrei komunikatu nahi zaiena gorabehera, mezu hauxe jasotzen dute: «zuk parte har dezakezu, baina azken hitza edo boterea nik daukat».

Onar dezagun, hala ere, foru arauaren hautazkotasun horrek, herritarren parte hartzeari buruzko konpromiso politiko zintzo eta sakon batez lagunduta, aukera interesgarriak irekitzen dituela (Igeldoko galdeketa, kasu, desanexioari buruzko Aldundiaren erabakiaren oinarri izan zena).

Egoera orokorra hori ez den arren, ezta gutxiago ere, azpimarra dezagun aurreko agintaldian udal batzuek asko aurreratu zutela esparru honetan (kasu batzuetan, udalek hasitako jarduerak sakontzen jarraitzen dute), egitasmo eta ekimen askotan herritarren parte hartzearekin lan eginez. Aldi berean, udal batzuek herritarren parte hartzearen inguruko arau eta ordenantzak onartu dituzte, nahiz eta horrek ez duen esan nahi kasu horietan herritarren parte hartzea zabalago eta zuzenagoa izan denik.

## Praktiken ikusmolde berria eta eraldatzea

Herritarren parte hartzeari begira, aldaketarik esanguratsuen, ez bairik gabe, agintaldi honetan gertatu da; egindako jauzi kualitatibo eta kuantitatiboak ez du aurrekaririk lurraldearen historia instituzionalean. Erakunde publikoetatik (Aldunditik eta udal askotatik) herritarren parte hartzearen alde egin den apustua oso indartsua da, eta abian jarritako lana harrigarria.

Lan hori aurrerago jorratuko ditudan zailtasun eta erronkez josita dagoen arren, Aldundian (herritarren partaidetzaren zuzendaritzan) eta udaletan egindako ahalegin esanguratsuenak deskribatzeari beharrezko irizten diot. Kontua ez da egindakoari konplazentziaz begiratzea: pertsonalki funtsezkoa iruditzen zait ahalegin hori dimentsionatzea, horrek ahalbidetu baitezake, herritarren parte hartzeari dagokionez, ekimenen leherketak instituzionalki ekarri duen iraultza dagokion neurrian ulertzea eta benetan balioestea. Laburrean:

- Lehenik, partaidetzaren *zuzendaritza berri baten sorrera*, ordura arte ez zegoena.

- Parte hartzea sustatzeko *udalen eta Aldundiaren sare baten eraikuntza kolektiboa*. Sare horrek Gipuzkoako udal gehienak biltzen ditu, denon artean kudeatzen da eta, hartzen dituen erabakietatik abiatuta, udalen jarduera errealetan oinarritutako truke eta elkar ikaskuntza eremuak jartzen ditu abian, eredu parte hartzaileak eraikitzekeo lantaldeak sortzen ditu, formaziorako aukerak eskaintzen ditu, parte hartze gaien inguruko lan komunak sustatzen ditu...

- Udaletako herritarren parte-hartze ekimenak babesteko *diru-laguntza* lerro berri eta irekia. Lurraldean ikuspegi globalarekin diharduten gizarte-eragileen herritarren parte-hartze ekimenak babesteko beste lerro berria. Ehunka egitasmo lagundu dira urte hauetan, esparru ugaritako gaiak ukituz: gazteak, zaharrak, sozioekonomia, kultura, euskara, hezkuntza, plan estrategikoak, tokiko agendak, hondakinen kudeaketa, hirigintza planak, indartze instituzionala, metodologiak... Herritarren parte hartzea da egitasmo horien guztien osagai

komuna. Udal mailan parte-hartze sistema eraikitzeko helburu duten ekimenak ugariak izan dira. Azken kasu horietan ikus daiteke udal batzuk beste urrats bat ematen ari direla eraikuntza eta sistema instituzionalaren beste aldaketa maila baterantz. Bestalde, azpimarra dezagun udalak ere progresiboki parte hartuz joan direla diru-laguntzen deialdiaren eztabaidan eta berrikuspenean –irizpideen definizioa, kopuruak...

- Aldundian, *bertako sail guztien zereginetan herritarren parte hartzea gero eta gehiago sustatzen duen barne antolakuntza* prozesu bati ekin zaio. Sail batzuetan praktika gero eta interesgarri eta askotarikoagoak sortzen ari dira horrenbestez, lurraldeko herritarren parte-hartze maila kualitatiboki eta kuantitatiboki duela gutxi arte pentsaezinarekin. Aipa ditza-gun, adibidez: garraio zerbitzuaren berrikuspen eta hobekuntza prozesua (urte bat lanean, sei eskualde, 54 herri, eta 4.500 lagun baino gehiago parte hartuz, gehienbat emakumeak: %60); desanexioa erabakitzeko Igeldoko galdeketa (prozesu osoa Igeldoko Herri Kontseiluarekin batera kudeatua,

## Aldundian, bertako sail guztien zereginetan herritarren parte hartzea gero eta gehiago sustatzen duen barne antolakuntza prozesu bati ekin zaio

herritar gehienen parte hartzearekin –hauteskundeetan baino gehiago–, herritarren borondatea errespetatzeko Aldundiaren konpromisoa). Berdintasun eta euskara plan eta politiken eraikuntza komuna (lan kolektiborako eremuak, lankidetzeta iraunkor eta parte hartzailea gizarte eragileekin). Gipuzkoako parte-hartze aurrekontua (eskualde guztiak hartzerainoko egitasmoa, urte

osoan zehar, eskualde mailako ikuspegiarekin, foru aurrekontuari buruzko erabaki zuzena hartzeko ahalmena duten herritarrekin, eskualde bakoitzari diru kopuru bat esleituta, Aldundiaren sail gehienak inplikatur). Lurralde garapena bultzatzeko eskualdeen arteko dinamika berria (eskualde arteko mahaia udal eta garapen agentzia eta mankomunitateekin,

bideratzaileei trebakuntza, lurraldeko ikuspegia, dekretuen analisi kolektiboa, trukea eta elkar ikaskuntza). Gipuzkoako herri txikiei laguntza hirigintzan (azpiegiturak egokitzeko herritarrekin partaidetzazko prozesuak egiteko aholkularitza eta elkarlana Itten eta udalen artean). Urtetan errotutako barne lan-gatazka baten soluzioaren eraikuntza parte-hartzaile eta kolektiboa: suhiltzaileen egoera (erantzukizunean oinarritutako lan esparruak, lurraldeko talde guztien parte hartze zuzena, maila guztietako jendea, kontsentsuen eraikuntza kolektiboa, erabaki hartzea). ‘Herritarrekin herrira’, herrietara bisitak (eskualdeka, hileroko herri bat, neurri eta egoera ezberdinetakoak, diputatu nagusiaren eta hainbat zuzendariren parte hartzea, eragile sozioekonomikoekin eta herritarrekin zuzeneko topaketak).

- Euskal Herrian zein nazioartean garatutako esperientzietan oinarritutako *formazio-topaketa* baten bitartez, dinamikak, gogoeta eta inplikazioa sortzeko ahaleginak egin dira. 500 parte hartzaile: Aldundi, udal eta beste zenbait erakundetako teknikariak; foru eta udal hautetsiak; herri mugimenduko eragileak eta oro har herritarrak. Hiru egunetan zehar erakunde, udal, gizarte prozesu eta beste herrialde batzuetako esperientziak aurkezten dira, eta herritarren parte hartzeari eta horren sustapenari buruz gogoetatzen da.

- Udalen alorrean ere agintaldi hau mugarria da. Udal gehienek (handi eta ertainen artean ia guztiek) era guztietako *parte-hartze ekimen eta egitasmoak* jarri dituzte abian. Lan batzorde irekiek indar handia hartu dute, eta udalen ekimen asko eta asko parte hartzearen bitartez lantzeko joera ohikoa bihurtzen ari da: analisian, proposamenen eraikuntzan eta erabakiak hartzeko ahaleginetan parte hartzera deitzen dituzte taldeak, elkarteak, herritarrak oro har. Auzoetara bisitaldiak eta aurrekontuen lanketarako lan sektorialak ugarietzen dira. Zerrenda oso luzea da: agintaldi honetan udaletatik sustatutako esperientziak mila inguru izatera irits litezke.

- Aldi honetan hasi dira ugarietzen, orobat, udal eskumeneko gaien inguruan herritarrei egindako *galdeketa zuzenak*

(bozketekin). Azpimarratzekoa da, ildo horretan, galdeketen emaitzak –direnak direla– onartzeko udal gobernuen konpromiso politiko eta etikoa (Zestoa, Tolosa, Igeldo, Itziar, Azpeitia, Segura... eta zerrenda luzatzen ari da... Mutriku, Azkoitia...). Eta konpromiso horiek bete egin dira. Hots, ‘hautazkotasuna eta kontrola’ alde batera utzi eta herritarrak erabaki zuzenen subjektu gisa aintzatesten hasi dira. Hauxe da herritarrek parte hartze zuzenaren kasuetan (galdeketak, esaterako) jasotzen duten mezua: «har ezazu jarrera bat, eta erabakitzen duzuen onartuko dugu». Konfiantza handia sortzen du horrek.

- Auziak sortu duen gizarte eztabaida eta horren inguruko amarru politikoak ukitzera iritsi gabe, ezin ditugu artikulu honetan aipatu gabe utzi *hondakinen kudeaketari* lotuta konsortzioek eta udalek sustatutako parte-hartze prozesuak. Parte hartzearen ikuspegitik, zalantzarik gabe, hauxe da erakundeetatik sustatu den eta lurraldearen historian herritarren parte hartze handiena izan duen *prozesua*: hogeit hamar herriatik gora, 18.000 lagun inguruk parte hartu dute zuzenean, luze eta zabal. ‘Sistema hautatzeko’ aukerari buruzko polemikak azterketa eta debate luze eta bizia merezi dezake, baina puntu batzuk eztabaida ezinak dira: politika publikoaren eta horren inplementazioaren definizio partekatua masiboki landu da; inoiz kontuan hartu izan ez den jende askorentzat, prozesu hori beren bizitzako lehen parte hartzea izan da, politika publiko bati begira, trinkoena; herri askotan jauzi kualitatiboa suposatu du herritarrekin lan egiteko moldean. Parte hartzaile guztiek zuzenean hitz egin eta eztabaidatu dute, eta ekarpenak egin eta erabaki asko hartu dira.

- Udal batzuetan barruranzko enfasia ere jartzen hasi dira: *barne antolakuntza*, egiturak, lan moldeak, protokoloak, parte-hartze eredu eta sistemak... Bide oso berria da hori, dena den, bai Aldundian, bai udaletan... Urtetan zehar jarduera hierarkikoetan ohitutako erakundeak birbideratzea eskatzen du.

## **Aldaketa soziokultural sakon baten hastapena, parte hartzeari dagokionez**

Laburbilduz, agertzen ari diren zailtasun eta erronkak ulertu eta balioesteko, garrantzitsua da kontuan hartzea Gipuzkoan azken hiru urteotan parte-hartze prozesu eta ekimenek hartu

duten dimentsioa ikaragarria dela: hamarika/ehunka lagun esperientzia eta gaitasunak erritmo azeleratuan garatuz; ehunka ekimen udal, eskualde edo lurralde mailan; milaka pertsona eraikuntza eta definizio prozesuetan modu zuzenean sartuta. Horrek guztiak eragin orokorra du lurraldean (izan ere, beste lurralde batzuen funtzionamen-

duan ere eragiten hasi da). Gizarte mailan, aldaketa prozesu bat da: oraindik herritar gehienak inplikatu ez dituen arren, neurri handiko inpaktu soziokulturala ekarri du. Izan ere, erakundeetatik gauzak nola egin daitezkeen eta egin behar diren azaltzen duen paradigma berri bat hasi da taxutzen; herritarrek erakundeei begira jartzen dituzten itxaropenak eta eskakizunak aldatzen ari dira; pertsonak aintzat hartuak izan behar dutelako baieztapena sendotzen ari da; eta gero eta sektore zabalagoen kontzientzian irmotzen ari da zuzenean parte hartzea eskubidea dela, posible dela eta aurrera eramanez gero benetako eragina duela.

Sortzen ari den prozesua deskribatzen saiatu naiz, itxura positiboegia emateko arriskua gorabehera, funtsezkoa delako, nire ustez, gizarte fenomeno hasiberria bere dimentsio egokian ulertzea: herritarren parte hartzeari eta demokrazia zuzenari dagokionez, pixkanaka gizarte dinamika berria ari da abian jartzen, politika eta lan instituzionala egiteko modu berria, erakundeak eta herritarrak harremanetan jartzeko

Aldaketa soziokultural sakona dugu begi aurrean: bere buruaren kontzientzia, gogoberotasuna, erabakitasuna eta apustua ditu funtsezko osagai

modu berria. Hau da, aldaketa soziokultural sakona dugu begi aurrean: bere buruaren kontzientzia, gogoberotasuna, erabakitasuna eta apustua ditu funtsezko osagai.

## **Erronkak, zailtasunak eta mugak**

Baina horrelako prozesu bat ez da erraza; eta hain zuzen ere duen irismenagatik, sortzen dituen aukerak bezain handiak dira aurre egin beharreko zailtasun eta erronkak.

Zailtasun eta erronken artean, gizarte eraikuntza oso fin-  
katu bati jarraitzen dioten batzuk aipatuz hasi nahi dut: badago botere harreman hierarkikoen gain eraikitako rol esleipen eta imaginario jakin bat, non, boterea, kontrola eta ahalmena 'gauza publikoaren' kudeaketaz arduratzen diren erakunde publikoetan (eta, bide batez, pribatuetan) kontzentratzen den. Horren aurrean, herritarrak politika publikoen onuradun eta hartzaille soiltzat jotzen dira; pertsonak izaki heldugabetzat jotzen dira, norbanakoen interesen arabera jarduten dutenak eta onura komunean pentsatzeko gai ez direnak (eginkizun hori 'objektibotasunaren berme' den teknikari taldeak 'hartu behar du bere gain').

Herritar/administrazio erlazio desitxuratu batean mugitzen gara: herritarrak subjektu pasibo bilakatzen dira, 'gauza publikoari' denbora eta ahaleginik eskaintzeko asmorik gabe, eta administrazioak arazoak konpontzen dituen heinean pozik dagoena. Bestalde, administrazioak bere erlazioak desitxuratzen ditu, herritarrak 'bezero' gisa hartzeraino, demokrazia (hots, herriaren gobernu) ikusmolde merkantilista hutsetik kudeatu ahalko balitz bezala: nik saltzen dut zuk erosten duzu, hau da, zerbitzu bat eskaintzen da 'zergen' truke. Testuinguru horretan, hau da kudeatzaile ona: zerbitzu ona eskaintzen duena eta bezeroak pozik uzten dituen... horiek ahalik eta gutxien molestatuz.

Ikusmolde patriarkal, babesle eta emaille hori gogor errotuta dago gizartearen esparru guztietan, hots, funtzionariotzan eta klase politikoan ez ezik, herritarren artean ere. Ikusmolde

hori, gainera, gero eta erlazio merkantilista/komertzialago baterantz degeneratzen ari da: zerbitzu 'ez-emankor' gisa hartutako eskubideak, eta, ondorioz, doikuntza gehiago, esplotazio handiagoa, kostu txikiagoak (murrizketak...), zerbitzu gutxiago, erantzun erreal gutxiago...

Beraz, erakundeen rola bera birpentsatu eta birdefinitzeko funtsezko erronkaren aurrean gaude: Aldundiak eta udalek rol berria hartu behar dute bere gain, demokrazia erreal eta parte hartzaileagoarekin bat etorriko dena. Zuzena izateak sistemaren ezaugarri funtsezko eta orokortua izan behar du, ordezkapenaren edo delegazioaren nagusitasunari lotutako egungo gelditasuna gainditu nahi bada.

Ildo horretatik, erakundeen eta gizarte subjektu antolatuen arteko harremanen esparruan izandako aldaketa azpimarratu behar da. Harreman horiek rol oso desberdinetatik abiatuta eraiki diren garai luze baten ondoren, horiek 'berrirakurri' eta birdefinitu behar dira. Egun, erakunde batzuek alde batera utzi dute harremanen paradigma zaharra: «nik definitzen dut eta zuk betetzen duzu, eta hortik abiatuta babesten edo baztertzen zaitut, nire alde edo aurka zauden balioetsiz». Gero eta erakunde gehiago hasi dira gizarte eragileengana hurbiltzen elkarrekin eraikitzeko ikuspuntu batetik; horrek, jakina, ekimen berriak, konfiantza berriak, metodologia berriak eta birkokatze berriak eskatzen ditu (erakundeen zein gizarte subjektuen aldetik), eremu partekatuagoetan jarduten dela kontuan hartuta, subjektuarekin berarekin –herri-tarrekin– interakzio zuzenean eta 'identitate eta autoritate moral' berrietatik.

Erakundeak honela birdefinitu behar dira: lurraldeko politika eta ekimenak herritarrekin batera eraikitzea erraztu, sustatu eta kudeatuko duten subjektu berri gisa.

Erronka horrek talka egiten du erakundeen egungo mugekin; izan ere, horien egiturak, eta sarritan izaerak eta lan moldeak berak ere, gehiago erantzuten die hemeretzigarren mendeko ikusmolde bati egungo gizarte egoerari baino, eta are gutxiago aurrez aurre ditugun aldakuntza erronkei.



Erakundeek, oraindik, batik bat beren barne funtzionamenduari eta premiei erantzuteko diseinatuta jarraitzen dute hein handi batean, eta ez herritarrekin eraginkortasunez eta elkarriketaren bidez erlazionatzeko. Protokoloak, maiz, beren formulazio eta aplikazio zorrotzean, funtzionarioari 'segurtasuna' bermatzera bideratuta daude, herritarrekin batera elkarrekin eraikitzeke erlazio egoki batera baino.

Erabiltzen diren formatuak eta hizkuntzak ere –horien artean, hizkuntza 'teknikoaren' erabilera, ustez beharrezkoa dena, baina praktikan berdinen arteko interakzioa eragozten duen hesi artifizial bihurtzen dena– herritarren eta fun-

tzionariotzaren arteko botere harreman desorekatuak betiketzen dituzten bitarteko bilakatzen dira (pentsa dezagun, kasu, Elizan latinaren erabilerak betetzen zuen rola eta ezartzen zituen botere harremanak). Premiazkoa da erakundeen eta herritarren arteko formatuak eta informazio eta komunikazioa sinplifikatzea, ulergarriago bihurtzea, mediatizatzea, 'norbaiten gaineko bo-

Premiazkoa da erakundeen eta herritarren arteko formatuak eta informazio eta komunikazioa sinplifikatzea, ulergarriago bihurtzea

terea onesten duen errituaren' atalak ezabatzea, benetan eskuragarriak izatea. Hau da, eskuragarritasun fisikoa egon dadila (eskuz edo informatikaren bidez), baina baita argitasunean eta sinplifikazioan oinarritutako eskuragarritasuna ere, herritarrek konplexutasun instituzionala ulertu eta kudeatu ahal izan dezaten, horri denbora osoko dedikazioa eskaini beharrik izan gabe. Funtsezkoa da, horretarako, erakundeek, beren ezaugarrietatik abiatuta, gauzak ez konplikatzea (konplexua eta konplikatua ez dira gauza bera: gauza bat, oso konplexua izanagatik, bere zatien eta horien arteko erlazioen ulerkuntzatik azal daiteke; aldiz, gauza konplikatua bat ulertezin bihurtu daiteke pentsatzeko modu berberak aplikatzen ez ditugunontzat).

Beste elementu bat baliabideak dira (aurrekontu mailakoak). Horiek esleitzeko 'tradizio finko eta hauskaitz' bat aplikatzen da: gauzak egiteko modu berri bat sortzeko egitasmoek ez dute estaldurarik, zerotik abiatzen dira eta, sarritan, lehiakidetzat hartzen dira baliabideak esleitzerakoan. Eta zer esango dugu pertsonalari buruz? Udal batek herritarren parte hartzea sustatzeko teknikari edo arduradun bakar bat ere ez baldin badu eta, aldiz, 40 edo 50 udaltzain baldin baditu, zein da bere benetako ahalmena herritarrei begira? Gehiegikeriak direla pentsa liteke. Zer esango dugu bi mila langile inguru dituen aldundi bati buruz, oraintxe baizik ez bada hasi parte hartzearen inguruko bere lantaldea osatzen? Zer, lurraldeko 88 udaletatik hiru edo lautan soilik baldin badago parte hartzearen inguruko pertsonal teknikorik?

Erakundeetako politikari eta teknikari asko hasi dira ulertzen premiazkoa dela erakunde horien barneko aldaketa sakona, antolakuntzan, funtzioetan, roletan eta jarreretan. Dena dela, oraindik ez da orokorra. Batzuek aldaketa hori posible egingo duen prozesu motel eta luze bati ekin diote, sarritan oinarrizko gauzekin hasten diren urrats txikiak eginez: esaterako, sailen egungo egoera gainditzea, teorikoki 'espezializazio' ikusmolde bati erantzuten badio ere, berez zatiketa praktika bat eta barne komunikazio eskasa erakusten baititu. Uste ez badugu ere, zatiketa instituzional horrekin eta horren ondorioekin borrokatu behar dute herritarrek erakundeetara hurbiltzen direnean, eta horiexek eragiten dituzte, orobat, beharrezkoak ez diren distantziak.

Egun, erakunde eta prozesu gehienetan, politikariak dira oraindik herritarren parte hartzea sustatzeko eginkizunaren ardura daramatenak, eta horrek gehiegizko lan-zama eta higadura sortzen die, noski. Areago, parte-hartze prozesuak kudeatzeko erakundeen gaitasunean muga bat ezartzen du (lan hori pertsona gutxiren esku uzten denez, ezin dituzte gaur egun daudenak baino askoz prozesu gehiago abian jarri). Kontuan hartu behar da, gainera, horrek eskatzen duen ahalegina; batzuetan, halaber, prozesu horiei herritarrek

erantzun eskasa ematea jasan behar da, eta horrek politikariari frustrazioa eta atzera egitea eragin diezaioke.

Horixe da erronka nagusietakoa, nire aburuz, parte hartzea sistemikoa bilaka dadin bermatzerakoan eta benetan zer esan nahi duen ulertzerakoan –hots, gauza publikoa kudeatzeko era demokratikoagoa–; ez dadila ikusia izan aukera politiko edo alderdikoi gisa, non alderdi batzuk ez diren interpelatauta sentitzen, edo aukera pertsonal gisa, non «gainerakook ez dugun zertan gauza bera egin».

Bada beste erronka bat: politikari (eta teknikari) askorentzat, parte hartze zuzena mehatxu bat da, jendearen parte hartze zuzenak eta gai jakinen gaineko erabaki-hartzeak beren rolari zilegitasuna kenduko lioketela pentsatzen baitute; bestela esanda, beren zentzua galduko lukete eta ‘sobera’ egongo lirateke. Pentsatzen dute, gainera, batetik, maila tekniko eta globalean erabakiak hartzeko prestatuago daudela, jendeak ez baitu beharrezkoa den maila, eta, bestetik, hauteskudentan lortu duten babesa (boto kopurua) askoz handiagoa dela prozesu batean zuzenean parte hartzen duen jende kopurua baino.

Nire ustez, auziari heltzeko moduak bestelakoa izan behar luke: parte hartzearen kasuan, horrek ez du zertan beti masiboa izan, herritarren eraikuntza prozesuak gehiago oinarritzen baitira eraikuntzaren kalitatean herritarren gehien-go numerikoa biltzean baino. 5.000 biztanleko herri batean 200 pertsonak ekiteak, gogoetatzeak, jarrera bat hartzeak eta kalitatezko parte hartze prozesu bati heltzeak egindakoa aberasten du eta kualitatiboki erantzuten dio herriari, erakundeetatik egindako diseinu tekniko zoragarri batek baino askoz gehiago. Izan ere, kolektiboki landutako halako prozesu batek sekulako gizarte-energia eraldatzailea erakusten du.

Maila politikoan, bestalde, hautaketa bat egiten denean, ezinezkoa da hautagai edo alderdi baten ikuspuntu guztiekin bat etortzea; horrenbestez, ordezkarien hautespenaren bidez ezarritako delegazioak beti du izaera orokorra. Hau da, alderdi bati emandako botoak ez du adierazten alderdi horrek kasu bakoitzean hartzen duen jarrerarekin bat gatozenik.

Bestalde, eta funtsezkoagoa da hau: zergatik ukatu espazioa parte hartze zuzenari, hori posible denean? Zergatik gelditu behar dugu ordezkarien bitartezko parte hartze delegatuan, hots, zergatik mugatu behar dugu gure erabakimen zuzenerako ahalmena, hori posible denean?

Hemen itzultzen da lehen aipatu dudan hemeretzigarren mendeko ikusmoldea, oraindik politikari eta erakunde asko bustitzen dituen... Ikusmolde horrek orduko egoera objektiboari ere erantzuten zion: batetik bestera mugitzeko denborak eta bertan egoteko zailtasunak, bitartekoen urritasuna eta informazio eta komunikazio prozesuen arazoak, jendeari kontsultatzeko eragozpen logistikoak... Faktore horiek ez dute gaur egun garrantzirik, erraz antzera konpondu daitezke (pentsa dezagun, adibidez, Suitzako galdeketen sisteman, parte hartze zuzena sustatzeko benetako borondatea egongo balitz oso erraz moldatu ahal izango bailitzateke).

Erroren zerrenda luzea da, eta erakundeen ustezko mugiezintasunaren, pentsatzeko moduen eta abarren aurrean ezintasuna sentitzera eramán gaitzake. Ez da, ordea, akats horretan erori behar: aldagetak posibleak dira eta hasiera batean dirudiena baino gertuago egon litezke...

## Etorkizunari begira

Bide horretan, eta amaitzeko, ezinbesteko elementu batzuk nahi nituzke azpimarratu:

- *Gizartea eraldatzeko prozesu horiek pedagogiko gisa* ulertu behar dira eta, zentzu horretan, pazientzia pedagogikotik kudeatu behar dira. Gizarte testuinguruak ez duenean bereziki lagundu edo bultzatzen bizi dugun eraldaketa beharra, kontua ez da eraldaketa sortzen dituen tentsioengatik atzeratzea baldintza hobeak dauden arte, baizik eta eraldaketa lortzeko estrategiak, xedek eta ekintza zehatzak dituzten prozesuak diseinatu eta garatu behar dira, betiere beharrezkoak diren gizarte denborak aintzat hartuta. Hau da, gizarte egoera konkretuetan honakoak konbinatuko dituzten prozesuak:

«pixkanaka, baina geratu gabe eta metatuz» eta «jauzi kuantitatibo eta kualitatibo esanguratsuak denbora tarte oso laburretan». Horrenbestez, denboran eutsitako apustu bat, babes instituzionalarekin, errealitate berriak eratuz joango dena, eta ekintza multzo batera (oso zabala izanda ere) mugatuko ez dena. Nabarmena da erronka, baita erakundeek ibili beharreko bidea ere.

- *Lan sistemikozko prozesu eta eremuak* ere eratu behar dira, beste esperientzia batzuetatik elikatzen direnak. Praktikak izan behar du funtsezko oinarria, horietan, gaitasun handiagoen sorrera, atzeraelikadura, ikaskuntza, antolakuntza aldaketa eta teoria berrien formulaziorako. Hots, aldian behingo eta maila guztietako analisi eta definizio jarraituetarako espazio eta denborak izango dituen prozesu bat; eraldaketarako gako gisa, aldaketa horren subjektuak paradigma berriaren eraikuntzara atxikiko dituen prozesu bat. Kontua ez da egitea, egitea, egitea, baizik eta pentsatuz egitea, birpentsatzea eta berregitea..., elkarren arteko ikaskuntzarako espazio handi batean egotea eta murgilduta sentitzea. Errotik sistemati-

Ezinezkoa da prozesu benetan parte hartzaileak egitea, baldin eta gure erakundeetako sailek hala jokatu gabe jarraitzen badute

koak diren prozesuak egin behar dira: seriotasunez, dokumentatuta, egindakoa sistematizatuz eta eguneroko bizitzak arrastak eraman gaitzan utzi gabe. Lan gehiagoren aurrean, antolakuntza gehiago; ekintza gehiagoren aurrean, gogoeta gehiago; koiuntura gehiagoren aurrean, definizio estrategiko gehiago. Horretan ere asko dago ikasteko.

- *Barnekoa eta kanpoko errealitate bera taxutzen duten adierazpen gisa*, hau da, herritarrekin sustatu nahi dugun parte hartzeak *koherentzia eta egokitza*ren ia mimetikoa eduki behar du antolakuntza mailarekin. Ezinezkoa da prozesu benetan parte hartzaileak egitea, baldin eta gure erakundeetako sailek hala jokatu gabe jarraitzen badute. Ezin

dugu herritarren eraikuntza kolektiboa sustatzea lortu, baldin eta gure erakundeek gaitasun eta zeharkakotasun horixe bera garatzen ez badute. Ezin diegu herritarrei inplikazioa eskatu, baldin eta gure erakundeetako langileak inplikatzeko ez badira. Esango nuke, koherentzia instituzionalaren eraikuntza prozesu horretan, konpromiso politikoa eta egindako ahalegina gorabehera, hastapenean baizik ez gaudela.

- Eraikuntzaren beste gako bat *nolakotasuna* da. Lan egiteko moldeak, metodologiak, hizkuntzak funtsezkoak dira. Nolakotasuna –alegia, ‘nola’ egin– ez da ‘zer’ egin erabaki ondoren hartzen den erabaki bat. Eraldatze prozesuetan, ‘zer’ eta ‘nola’ elkar lotuta daude eta batera erabaki behar dira. Bizikleta baten gurpilak bezalakoak dira: berdinak eta koherenteak izan behar dute eta ezin dira banatuta pentsatu. ‘Zer’ hori bizikleta bideratzen duen aurreko gurpila da, eta ‘nola’ hori, berriz, engranajeari lotutako atzeko gurpila. Gogoratu behar da norabidea eta bultzada subjektuak eragiten dituela, eta, hein berean, ez dagoela benetako parte-hartze prozesurik pertsona parte hartzaileen ahalduntzerik gabe. Egun, kasu askotan, prozesu batzuek mende hasierako bizikleten antz handiagoa dute, gurpil erraldoi eta txiki banarekin; halakoetan emaitzak zein diren erraz asma daiteke.

- Azkenik, *kontzientzia*. Prozesu horiek ez ditugu egiten gai konkretuen inguruan eta gainerakoentzat: eraldatze sakona eragiten duten gizarte eraikuntza eta berreraikuntza prozesuak dira. Prozesu horietan geu gara subjektuak, eta bertan geure identitatea (pertsonala, erakundearena, lurralde mailakoa, sektoriala...) dago jokoan: berori berrikusi, birformulatu eta birposizionatzeko espazioak sortuz. Horregatik, funtsezkoa da argi edukitzea ez garela ari besterik gabe jarrera bat hartzeaz edo auzi tematikoak definitzeaz: gure historiatik eta garen horretatik abiatzen gara; eztabaidatuz, erabakiak hartuz eta gure etorkizunaren eraikuntzan ekinez goaz. Prozesu horiek identitate mailako ondorio sakonak dituzte, ikusgarri bihurtu eta kontzienteki eta modu zuzenean kudeatu behar direnak, delegaziorik gabe.

Bidea luzea da, baina argi dago dagoeneko hasi dela, interesgarria dela, egiteko modukoa dela eta gure lurraldeko botere-harreman sozioekonomikoen eraldatze sakon batean esku har dezakegula... Prozesu horren ezaugarriak zehaztasunez identifikatzeko ezintasuna ez da huts edo muga gisa hartu behar. Nire aburuz, gizarte eraldaketarako prozesuen erronka nagusia horiek bizirik mantentzean datza, aurretik esandako guztian oinarrituz, eta: prozesuaren baitan beharrezko diren praktikak, eztabaidak, interakzioak eta berre-  
raikuntzak gauzatuz; kontraesanak ikaskuntza-eremu gisa kudeatuz, beti eta kasu guztietan ebatzi beharrik gabe; eta, azkenik, prozesuan bertan subjektu aktibo bezala eusten saiatuz... Sintesi modura, «se hace camino al andar...». 🌱

[Erredakzioan euskaratua]

# Euskal berrikuntza demokratikoak eta feminismoak. Emakumeen biografia politikoetatik begiratu bat

Jone Martínez

*EHUko Politika eta Administrazio Zientzia*

*Saileko irakaslea*

## Sarrera

XXI. mendearen hasieran, euskal gizartean elkarrekin bizi diren bi errealitatekin egiten dugu topo<sup>1</sup>. Alde batetik, gero eta demokratizazio prozesu gehiago sortzen ari dira, bai oldarka (behetik gora, herritarrek bultzatuta), bai gonbidapenez (administrazioek –estatuek– proposatuta). Beste alde batetik, emakumeak gero eta presentzia handiagoa dute demokrazia ordezkatzailaren egitura publikoetan eta erabaki publikoaren kudeaketan.

Bi errealitate horien intersekzioan problematika berri bat sortzen da: emakumeen partaidetzaren egitura gero eta askotarikoagoak diren demokratizazio prozesuetan. Artikulu honetan problematika orokor horretan kokatzen diren bi galderei erantzuten hasiko gara: zer oztopo dituzte emakumeek demokratizazio prozesuetan euren parte-hartze proiektua gauzatzeko? Eta zein estrategiaren bitartez erositzen dute euren proiektua emakumeek? Erantzuten hasteko, 'Berrikuntza demokratiko feministak' ikerketaren lehenengo faseko landa lanaren zati baten aurkezpena egingo dugu. Zehazki, euskal berrikuntza demokratikoaren hamasei esperimintutan parte hartutako hogeita hamar emakumeren bizitza-historia



oinarri hartuta, eta parte hartutako emakumeen partaide-tza-kartografiaren azterketa eginez, ikusi ahal izango dugu euskal berrikuntza demokratikoak genero araez zeharkatuta izateak dituen inplikazioak.

## **Berrikuntza demokratikoak, alorra eta kapitalak**

Asko idatzi da, bereziki 80ko hamarkadaren ondoren eta lurralde anglosaxoietan, berrikuntza demokratikoei buruz (Saward, 2000; Smith, 2009). Autore askok berrikuntza demokratiko nozioa erabili izan dute deliberazioan oinarria duten esperientzia demokratizatzaileak<sup>2</sup> identifikatzeko (Dryzek, 2000); beste batzuek, ordea, nozioaren dimentsio parte hartzailea azpimarratu izan dute. Azken horien artean, Graham Smith estatubatuar zientzia politikoko irakaslearen ikuspuntua azpimarra genezake. Berrikuntza demokratikoak, Smithen ustez, mendebaldean ezagutzen dugun demokrazia ordezkatzaileari demokratizaziorantz jotzen laguntzen dioten esperimentuak dira. Berrikuntzek, zehazki, lau ongi orokor dakarzte demokrazia ordezkatzaileari: inklusibitatea edo barneratzea –ertzetan dauden talde sozialak erabaki hartze prozesuan barneratzea–, herritarren kontrola –herritarrek erabaki-hartze prozesuetan eragiteko gaitasuna izatea–, epaiketa –herritarrek erabaki publikoetan jorratzen diren gaiei buruz iritzi bat sortzeko gaitasuna izatea– eta gardentasuna (Smith, 2009: 12-13).

Horrezkero, Pierre Bourdieu frantziar soziologoaren ikuspuntua gure eginez, esan daiteke berrikuntza demokratikoak ‘alor sozialean’ beti presente diren kapital mota guztien demokratizazioa –eta ez bakarrik birbanatzea– izan beharko lukeela helburu.

Artikuluaren puntu honetan, Bourdieuren mundua ikusteko ereduari buruzko apunte bat ematea komenigarria iruditzen zaigu. Hainbat ekarpen egin zizkion Bourdieuk gizarte zientzien esparruari. Euren artean, ‘alorraren’ nozioa eta kapitalen bere teoria dira aipagarri. Gizartea alor desberdinetan

banatuta dago, Bourdieuren ustez. Horrela, alor intelektuala, alor politikoa, alor artistikoa eta abar identifika ditzakegu. Alor horietan gizabanakoek euren mundu ikuspegia inposatu nahi dute, eta botere harreman desberdinak gertatzen dira alorraren barnean. Gainera, alor horiek arau propioak dituzte bai sartzeko bai ateratzeko. Alor politikoan sartzeko, adibidez, ezagutu behar dira: kode sozial berezi batzuk, kode linguistikoak eta gorputzaren kode bereziak –nola mugitu, esaterako–, *habitus*-ak, hain zuzen ere. Alorretan, norbanakoak kapital desberdinen metaketa bat edo beste aurkezten du. Eta norbanakoak duen kapital kultural, sozial eta ekonomikoa, eta horien –edo horietako batzuen– metaketa eta ezagutzatik sor daitekeen kapital sinbolikoak mugatzen du zein mailatan parte hartuko duen alor horretan<sup>3</sup>. Gizabanakoek errealitatea alorretan izendatzeko duten boterea, beraz, duten kapitalaren arabera izango da (Bourdieu, 1981; Bourdieu 1988; Bourdieu, 1997).

Demokratizazio prozesuez ari garela, bada bereziki interesatzen zaigun alorra: alor politikoa; izan ere, demokratizazio prozesuak bideratzeko sortzen diren berrikuntza demokratikoak alor politikoaren produktu dira<sup>4</sup>.

Hainbat definizio eskaini zituen Bourdieuk alor horri buruz; baina artikulua honetan lantzen dugun gaiari begira, *Actes de la recherche en sciences sociales* aldizkarian proposatzen zuena iruditzen zaigu aproposena. Alor politikoan, akitanierak baieztatzen zuenez,

... berezkoa lehiakor den testuinguru horretan, produktu politikoak, arazoak, programak, analisiak, kontzeptuak sortzen dira. Produktu horien guztien artean, hiritar *profanoak* –alorraren barnean ez dena profanoa da– erabakiak hartu behar ditu. Egun, aukeratze hori gero eta gatazkatsuagoa da, hiritarren eta produktuen sortzaileen artean dagoen distantzia dela eta (Bourdieu, 1981: 3-4)<sup>5</sup>.

Gonbidapenezko berrikuntza demokratikoak (aurrekontu parte hartzaileak, mini-publikoak, kontseiluak, asanbladak...) alor politiko instituzionalizatuaren produktuak dira.

Oldarkako berrikuntzak, berriz, alor politiko militantearen produktuak.

Aurreko guztia oinarri, artikulua honetan defendatzen dugun ideia honakoa da: gure ustez, genero arauak berrikuntza demokratikoaren esparruak zeharkatzen dituzte. Genero arau horiek oso irmotuta dauden ilusio sozial objektibatu eta ‘gorpuztuak’ –*embodied, incorporé*– dira, eta berria, berritzailea edo askatzaileagoa kontsideratzen den horretan ere eragiten dute (berrikuntza demokratikoak, kasu). Izan ere, berritasun oro, bai oldarka bai gonbidapenez, estatuaren bermearekin eta estatuak dituen errekurtsioekin erreproduzitzen dira. Egun, estatua da egitura sozial objektibatu eta gorpuztuak birsortzeko ‘fabrikarik’ legitimoena. Pentsa daiteke berrikuntza demokratikoetan emakumeen parte hartzea oztopatzen duten elementuak daudela esatea ez dela ezer berria. Izan ere, lehen esan bezala, berrikuntza demokratikoak alor politiko baten produktu dira. Alorra «menderakuntza maskulinoko sexu-genero sistema»<sup>6</sup> baten produktua den heinean, nola ez du dominazio sistema bera erreproduzitzeko? Baina bada

Artikulu honetan defendatzen dugun ideia honakoa da: gure ustez, genero arauak berrikuntza demokratikoaren esparruak zeharkatzen dituzte

berrikuntza horiek bereziki interresgarria egiten dituen ezaugarri bat: espazio horietan, modu esplizitu batean estatu bateko espazio publikoa demokratizatu nahi da. Hori ez da gertatzen, adibidez, supermerkatuetan, non genero arauak nonahi dauden, baina ez dagoen demokratizatzeke aspiraziorik. Horrela, uste dugu berrikuntza demokratikoetan emakumeen parte hartzea oztopatzen

duten elementuak ere badirela –demokratizazio prozesuetan, oro har–, baina, beste esparru sozialekin alderatuta, horiek sotilagoak direla. Berrikuntza horrek eraldatzea ekarri du demokrazia eredu zabalduenean. Baina, berrikuntza demokratikoak ez du desagerrarazten genero arauak emakumeen

parte hartzeari eragiten dioten presioa. Aitzitik, presio hori eraldatu egiten du; alegia, oztopoak eraldatu egiten dira, baina hor diraute.

## **Berrikuntza demokratikoei begiratu feminista bat**

Lehen aipatu bezala, 'berrikuntza demokratiko' terminoarekin eredu parte hartzaile eta deliberatiboan koka daitezkeen esperimenduei egiten diegu erreferentzia, beti ere, Smithek aipatzen zituen lau onurak bermatzen badira. Izan ere, us-te dugu edozein demokratizazio-prozesu bien gurutzaketaz osatuta egon daitekeela.

Berrikuntzei buruzko literatura aztertuta eta maila normatiboago batean kokatuta, estatu batean hartzen diren erabaki guztiak kudeatzeko berrikuntza demokratikoak erabiltzeko arrazoiak gutxienez lau dira: erabakien legitimazioaren hazkundera, hiritartasun errepublikazalearen hazkundera, subjektuen berdintasunaren bermea eta kapitalen banaketarako aukeraren hazkundera.

Berrikuntza demokratikoei, beraz, demokrazia parte hartzaile edo deliberatiboago batera joateko bidea eskaintzen dute. Baina zer gertatzen da berrikuntza horiek guztiak genero arauetzeharkatuta daudenean? Zer gertatzen da estatu patriarkal batek bultzatuta inplementatzen badira (gonbidapenez) edo estatu patriarkal batean hesituak izandako pertsonak jartzen badituzte abian (oldarka)? Nahi eta nahi ez: erreprodukzioa.

Demokrazia ordezkatzailerari sexua axola zaion bezala (Jónasdóttir, 1993), parte-hartzaile eta deliberatiboari ere axola zaio (Martínez, 2015a). Horregatik esan dezakegu erabaki hartze prozesuetan, proposamen parte-hartzaileen interes estrategikoa talde sozial guztien parte hartze berdinzalea aldarrikatzean datzala; planteamendu horiek bultzatzen duten parte hartzearen nozioaren unibertsaltasun nahia eta publiko eta pribatuaren banaketa, sakontze demokratikoa mugatzen eta baldintzatzen dutela.

Prozesu parte-hartzaileek emakumeen parte hartzea egituratzen duten elementu mugatzaileak dituzte. Lehen esan dugun legez, elementu horiek erraz identifikagarriak eta sotilak izan daitezke. Sotilagoak diren elementu horiek naturaltasunez hartu ditugu eta gure gorputzetan integratu ditugu; horrela, parte hartzean gure desioak entzuteko gorrak diren 'bizitako gorputzak' (*lived bodies, cuerpos vividos*) sortu ditugu (Moi, 2001). Edo Bourdieuk esango lukeen bezala, *habitus* bihurtu ditugu.

Hori guztia kontuan izanda, beste leku batean esan dugun bezala (Martínez, 2015a), feminismoak bi kritika egin diezazkiokegu, maila normatiboan, demokrazia parte hartzaileari zein deliberatiboari: alde batetik, parte hartzearen neutraltasun kulturalaren ilusioa; beste alde batetik, espazio publiko eta pribatuen arteko bereizketaren erreprodukzioa.

Neutraltasun kulturalaren ilusioari dagokionez, eta Bourdieuk zioen moduan, unibertsaltasuna da, ikuspuntu partikular baten unibertsalizazioa (Bourdieu, 1997: 213). Teoria parte-hartzaile ez feministak, partaidetzaz ari direnean, partaidetza sozial, komunitario edo politikoaz ari dira (Cunill, 1991). Hurbilketa normatibo batetik, partaidetza horren bidez: norbanakoa alor sozialean dituen kapitalaz jabetzen da (1. pausoa), kapital horiek nola saldu eta erosten diren azaltzeko gaitasunak hartzen ditu (2. pausoa), eta kapitalen birbanaketa justuago bat diseinatzera bideratzen du bere ekintza (3. pausoa). Horrela, parte hartzearen eta deliberazioaren aldeko argudioetan topatzen dugun ideietako bat honakoa da: «parte hartzearen bidez, ahotsa ez duen norbanakoak hitz egiteko gaitasuna izango du», alegia, subalternoak edo zapalduak hitz egiteko gaitasuna izango du. Baina, Gayatri Spivak-ek esaten zuen bezala, subalternoak ez dio subalterno izateari utziko horren erraz, ez duelako hizkuntza-jarrera sozial sasi unibertsal horren *habitus*-a (Spivak, 2003). Kontuan izanda erreproduzitzen den parte hartzearen forma/egitura/modua estatu patriarkal batek sustatua eta irakatsia dela, eta hori unibertsal bezala plazaratzen dela –neutro bailitzan–,

nola eman hitza *habitus* parte hartzaile hori jaso ez dugun subjektuei? Parte hartzearen bidez?

Bigarren kritika bat egin diezaiokegu ikuspuntu feministaz begiratu ez duten demokratizaziorako saiakera horiei. Carole Pateman-ek zioen demokraziak parte hartzailea izan behar zuela: aireportuetan, supermerkatuetan eta parkeetan (Pateman, 1989: 222). Horrekin esan nahi zuen, oro har, demokrazia parte-hartzailearen planteamenduak etxeko atetik at hasten direla, eta espazio pribatuan demokratizazioaren eztabaida ez dela sartu. Jakina da genero arauak etxekotasunerako emakume subjektibitate bat sortzen dutela. Familiak ere alor bezala funtzionatzen du; baina familiaren alorrak behar dituen trebetasunak ez dira, gaur planteatuta dagoen moduan, berrikuntza demokratikoen alorrak behar dituen trebetasunak. Deslerrokatze horrek publiko-pribatu banaketan du jaiotza.

Demokrazia  
parte-hartzailearen  
planteamenduak etxeko  
atetik at hasten dira,  
eta espazio pribatuan  
demokratizazioaren  
eztabaida ez da sartu

## **Emakumeen partaidetza demokrazia ordezkatzailan**

Demokrazia ordezkatzailari dagokionez –aurretik aipatu bezala, gaur egun harreman soziopolitiko arautzeko eredu zabalduena–, ikertzaileek, aktibistek, feministok identifikatu ditugu emakumeen proiektu parte hartzaileak oztopatzen dituzten zenbait elementu (Caul, 1999; Kunovich eta Paxton, 2005; Gilligan eta Tremblay, 2005; Inglehart eta Norris, 2001). Elementu horiek estatuaren desoreken erreproduktore rola kontuan izanda ordenatu daitezke (ikus 1. taula). Mugatzaile horiek emakumeen bizitza-proiektua mugatzen duten «kris-talezko teilatua» eta «iragazten duen zorua» azaltzeko erabil ditzakegu, hain zuzen ere (Burin, 2003)<sup>7</sup>.

*1. taula. Demokrazia ordezkatzaillean eta estatuaren rola erdigunean dagoela, emakumeen parte hartzea mugatzen duten elementuak*

*Estatu baten sistema politikoarekin zerikusia dutenak*

- Hauteskunde sistema ez proportzionala izatea
- Erreklutamendu politiko eredia
- Alderdi biko sistema izatea
- Erljio fundamentalistako estatuak

*Estatu baten kultura politikoarekin zerikusia dutenak*

- Boto emaileek ez dute emakumerik nahi
- Kultura politiko patriarkala

*Estatu batek proiektatzen duen irudi mediatikoarekin zerikusia dutenak*

- Masa hedabideek emakumei buruz proiektatzen duten irudia
- «Emakumei ez zaigu politika interesatzen» mito faltsua
- Politikarekiko mesfidantza

*Estatu baten kapitalen banaketa-eredua egiten den moduarekin zerikusia dutenak*

- Kapital sozial gabezia
- Etxeko lana eta familia ardurak
- Kapital kultural gabezia
- Kapital ekonomiko gabezia - Egoera ekonomikoa

*Estatu baten errealitate nazionalarekin zerikusia dutenak*

- Lurraldearen tamaina eta zonaldea (Herria-Hiria haustura –*cleavage*–)
- Hizkuntza

*Estatu batek emakumeen gorputzak arautzera bideratuta daudenak*

- Amatasuna
- Kontratu sexualaren formak

Iturria: egileak berak egina.

Berrikuntza demokratikoak demokrazia ordezkatzaille esparruetan gertatzen direnez, 1. taulan aipatzen diren elementu mugatzaile askok eragina izango dute horietan ere: estatuaren kultura politikoarekin zerikusia duten elementuak, edo estatu batek, masa hedabideen bidez, proiektatzen duen emakumeen irudia, kasu. Baina berrikuntza demokratikoetan, badira berrezkoak eta sotilagoak diren elementu mugagarri batzuk.

Elementu horien nolakotasuna aztertzeko, ‘Berrikuntza demokratiko feministak’ ikerketa jarri dugu martxan. Hurrengo orrialdeetan azaltzen diren elementu eta estrategiak ikerlanaren lehenengo fasearen landa laneko datuen behin-behineko azterketatik ondorioztatu dira (ikerlanari buruzko informazio gehiago izateko, ikus Martínez, 2015a; Martínez, 2015b; Martínez et al. 2015; Suso eta Martínez, 2015).

## **Emakumeen parte hartzea berrikuntza demokratikoetan: zer oztopo?**

Oldarka eta gonbidapenezko hamasei euskal berrikuntza demokratikoetan parte hartu duten hogeita hamar emakumeren biografia parte hartzailea egin dugu –gogoratu behar dugu hogeita hamar biografia horiek lagin zabalagoa duen proiektu baten parte direla–. Biografia horiek norbanako batek bizi dituen intersekzioetatik sortzen den diskurtsoa eta ekintza ematen digute, opresioak dituen hainbat aurpegi buruzko informazio pribilegiatua. Biografiaren bidez, bai gorputzean bai diskurtsoan *ostatatuta* dauden mugatzaileak aurkitzea posible da. Hots, alor politikoaren produktu batean norbanako batek duen posizioa aurkitzea (kapital globalaren arabera), norbanakoaren partaidetza proiektua zein modutan mugatzen duen aztertzea.

Hamazortzi eta berrogeita hamabi urte bitartean kokatzen diren hogeita hamar emakumeak Euskal Herriko zazpi lurraldeetan bizi dira, baina Espainiako Erkidegoren batean edo munduko beste kontinenteetan (Afrika, Asia eta Hego Amerika) jaiotakoak dira. Kulturalki, sozializazio desberdina jaso duten emakumeak dira. Belaunaldi desberdinetakoak. Horregatik, gauza guztien gainetik, hogeita hamar emakume horiek gauza bera egiteko hogeita hamar modu desberdin aurkezten dituzte. Bakoitzak alor sozialean bere posizioa izanda ere, hainbat elementu partekatzen dituzte, besteak beste: proiektu parte hartzaile bat izatea (intentsitate desberdinarekin eta fokatzeko desberdinarekin); Euskal Herriko demokratizazio prozesu batean parte hartzea, beste kontinente batean jaio diren emakumeak kenduta (horiek alor politikoan sartzen dira euren atzerritar identitateagatik); ikasketa unibertsitarioak, hau da, kapital kultural formala izatea. Hogeita hamar emakume horietatik lauk ezik besteek partekatzen dute seme-alabarik ez izatea bere kargu; halaber, euren burua ezker muturrean edo zentro ezkerrean kokatzen dute (pertsona batek izan ezik); eta guztiek, batek



izan ezik, diruz saritua den lana dute. Beraz, kapital kultural formala izatea, lana izatea (prekarioa maiz) eta autoidentifikazio politiko bat partekatzen dute.

Horren aurrean, hogeita hamar emakume horiek aniztasuna erakusten dute beste egiturazko elementuetan. Lehenik, kapital ekonomikoari dagokionez, emakume gehienek euren burua klase sozial ertainekotzat kontsideratzen badute ere, badira euren burua klase baxukotzat dutenak ere. Oro har, esan liteke berrikuntza instituzionaletan parte hartzen duten emakumeak klase altukoak autokontsideratzen direla. Bigarrenik, emakume horiek jaso duten lehen mailako hezkuntza mota askotarikoa da: ikasketa erlijiosoetatik ikastoletara, eta ikasketa alternatiboak jaso dituzten emakumeak dira. Hirugarrenik, ibilbide parte hartzaile desberdinak izan dituzten emakumeak dira: hau da, badira zortzi urterekin parte hartzen hasi zirenak eta alor politikoa oso gazte ezagutu zutenak, eta alor politikoa helduaroan ezagutu dutenak. Laugarrenik, euren feminismoan pentsatu duten eta pentsatu ez duten emakumeak daude, hau da, 'kontra publiko subalterno feminista' direnak eta ez direnak: horiek publiko menperatzailearekiko

«esparru diskurtsibo paraleloak dira. Horietan, menperatutako talde sozialetako kideek euren nortasun eta beharrian propioen arabera kontra-diskurtsuak sortzen eta hedatzen dituzte» (Fraser, 1992: 61).

Aniztasun horietatik guztietatik, bada azpimarratu nahi genukeen bat: kontra publiko subalterno feministek berrikuntza

espazioetan egiten duten ekarpena. Carol Gilligan-ek Kohlberg-en moralaren garapenaren kritika egin zuenean, emakumeen moralaren garapenerako eredu bat proposatzen zuen (Gilligan, 1982). Gure ustez, Gilliganen eredia erabilgarria izan daiteke kontra publiko feministek berrikuntza demokratikoei ekartzen dieten ikuspuntu orokorra azaltzeko.

Hogeita hamar emakume horiek aniztasuna erakusten dute egiturazko beste elementuetan

Hogeita hamar emakumeen parte hartzearen biografia aztertuta, badira euren ibilbide parte hartzaile desberdinetan bat egiten duten hiru etapa nagusi eta bi trantsiziozko momentu. Lehenengo etapa norbanakoaren biziraupenean zentratutako etapa bat da. Horretan, emakumeek ez dute sentitu izan eurengandik kanpo parte hartze proiektuei lehentasuna emateko beharrezana, eta bizitzako beste esfera batzuetan mugitu izan dira: familia, eskola eta lanean, bereziki. Etapa horretan emakume askok galdetu zieten euren buruei kanporako parte-hartze proiektu bat ez izateak gizabanako berekoi bat izatea suposa lezakeen. Berekoitasun sentsazio horrek motibatu izan du, emakume askoren esperientzian, euren parte hartze proiektua esplizituki adieraztea. Zenbait emakumek honela adierazten dute trantsizio momentu hori: «sentitzen nuen besteekiko zer edo zer egin behar nuela», «sentitzen nuen itzuli behar niola gizarteari nik neukan zortea», «gizartean gertatzen zena ikusita zer edo zer egin behar nuela uste nuen». Bigarren etapa batean, elkarrizketatutako emakume gehienek neke egoera bat deskribatu dute: 'ni'-a besteen atzetik kokatu izanak, eta besteekiko disponibilitate maila altua erakutsi izanak, emakumeak nekatu ditu. Emakume asko sufrimendu egoera hori bizitzen ari ziren bizitza-historia garatu zen momentuan; beste batzuek, ordea, sufrimendu egoera hori dela eta, euren parte-hartze proiektuari eutsi zioten. Baina kontra publiko feministak diren emakumeek bigarren trantsizio etapa bat jaso dute parte-hartze proiektu sostengarri bat jorrazteko bidean, sufrimendu egoera horretaz ohartu, eta 'ni'-aren eta besteen arteko oreka gauzatzeko estrategiak garatuz. Beraz, «hemen naukazue edozertarako» diskurtsotik, «nik ahal eta nahi dudanean emango dut nahi dudana» diskurtsora jauzi egiten dute emakume horiek, artikulua honen ondorioen atalean ikusiko dugunez, bereziki 'sororitatearen' eta 'bidaiaren estrategiaren' bidez.

Ibilbide orokorra labur aipatu dugula, posible da ikerketaren lehenengo fasean detektatu ditugun oztopoetako batzuk modu eskematikoan aipatzea (ikus 2. taula).

2. taula. *Berrikuntza demokratikoetan emakumeen parte hartzea  
oztopatzen duten zenbait elementuen laburpena*

<i>Elementua</i>	<i>Azalpena</i>
Kapitalen akumulazioa eta kapital ekonomikoa eta oinarrizko betebeharrak asetzeari	Estatuak proposatzen dituen berrikuntza demokratikoei elite sozial batekin konektatzen dute. Elite horrek kapital sozial, kultural eta ekonomikoa metatzen du. Kasu batzuetan sinbolikoa ere. Beraz, berrikuntza demokratikoen diseinua elite sozialen erreproduktzioarako bide eraginkor bezala identifikatzea posible da. Elite horren parte ez diren emakumeak, 'ertzetan dauden emakumeak', at geratzen dira.
Lana, prekarietatea eta denboren kudeaketa	Emakume askok, bai oldarka zein gonbidapenez, adierazi dute euren lanak momenturen batean euren parte-hartze proiektua mugatu izan diela. Bai lan zamagatik, bai lan prekarietateagatik (esaterako, hiru lan partzial edo ordutegi arazoak izanda). Lan-eredu antolaketak ez du bat egiten gaurko espazio parte hartzaile askoren beharrezkinen.
Amatasuna, familia eta zaintza	Ikerketan parte hartutako hogeita hamar emakumeentatik oso gutxi sartu dira amatasun proiektu batean. Sartu direnen artean, nahiz eta negoziaketa bat dagoen amatasunaren inguruan euren bikotekideekin, jaioberriaren lehenengo bi urteetan emakumeak beti utzi dio bere parte hartze proiektuari, umearen zaintzari ekiteko. Amatasunaren proiektuaren eta parte hartze proiektuaren arteko tentsioa nabaritzen da.
Maitasun erromantikoa eta bikote-harremanak	Kontra publiko ez diren emakumeen artean bereziki eragiten du oztopo horrek, alor parte-hartzailearen arauak ezagutzen ez dituztenen artean ere. Nahiz eta hori emakumeen artean diskurtsoetan neutralizatzeko joera egon den, emakumearen parte hartzearen hasieran bikotekideak erresistentziak izan ditu honako diskurtsoen bidez: «jada ez duzu nirekin bazkaltzen», «ez zaitut ikusten», «ez dugu denbora guretzako».
Ereduen gabezia eta kapital sozial eskasa	Ereduen gabezia horretan belaunaldiak badu eraginik. Emakume gazteagoek euren biografietan eredu identifikagarriagoak izan dituztela diote. Euren berdinen taldeko ereduak dira gehienetan. Eredu horiek nora bide parte hartzailea bideratu dute. Belaunaldi zaharragoek, aldiz, eredu gabezia sumatzen dute. Azpimarratu behar da, emakume batzuek, beste batzuentzako eredu direla jakitean, gehiegizko presioa nabaritu dutela. Bereziki kontra publikoak diren emakumeak dira askotan pisu bikoitza jaso dutenak: eurentzako eredurik ez izatea, eta besteentzako eredu izatea.

Adina «Hay que peinar canas para poder decir algo que sea tenido en cuenta» esaldiarekin, emakume gazteek adierazten zuten adina haustura gisa hartzen dutela, hots, euren iritziak legitimatzeko arazoak dituztela.

Iturria: egileak berak egina.

2. taulan azaltzen ditugun mugatzaileez gainera, arreta berezia eskaini nahi genieke genero arau zehatz batzuei, emakumeen parte hartzean duten eraginagatik. Genero arauak, gutxienez bi estaitan dute eragina: autopertzepzioan eta bestearen pertzepzioan. Horrela, emakumeek bi presio mota jasaten dituzte parte hartzen dutenean: alorraren arauak eta generoaren arauak: «ez dut hau esango *gaia ez dudalako menperatzen*, eta ez dut hau gogorregi esango *atentzioa gehiegi ez emateko*». Genero arau guztien artean, badira bi paper mugatzaile azpimarragarria erakusten dutenak: eraginkortasunaren eta umiltasunaren araua, eta bikaina izateko ezintasuna, hots, atentzioa ematearen debekua. Lehenengoari dagokionez, nabaritu dugu norberaren begiradarekiko desajuste bat dagoela. «Nik egiten dudana ez da garrantzitsua» esaldia behin eta berriz errepikatu da, bereziki kontra publiko feministak ez diren emakumeengan. Norberaren ekintzen gutxiespen horren seinale: euren bizitzako episodio parte hartzaileak ahaztea, behin eta berriz «hau ez da garrantzitsua» edo «hau ez da parte hartzea» esatea. Azpimarragarria da diskurtso horiek elkarrekin bizi izan direla emakume askok bere gain hartu dituzten arriskuekin. «Egin nuen hori ez da garrantzitsua» diskurtsoaren atzetik, emakumeek euren proiektuak aurrera eramateagatik kaleratze bat edo euren lanetan etete bat jasan dute. Hau da, euren bizitza proiektuei zuzenean

Genero arau guztien artean, bik paper mugatzaile azpimarragarria erakusten dute: eraginkortasunaren eta umiltasunaren araua, eta bikaina izateko ezintasuna

eragiten dieten arriskuak hartzen dituzte bere gain, baina ez dituzte balioan jarri izan. Bikaina ezin izatearen debekuari dagokionez, oso nabaria da, bereziki kontra publikoak ez diren emakumeengan, bai biografia egiterako momentuan bertan, bai berrikuntza demokratikoaren espazioa deskribatzerakoan, honako amaierako argibideak esatea: «barkatuko didazu, ez dakit horretaz», «agian ez da oso argi geratzen esan dudana»... Hitz egin aurretik barkamena eskatzeak argi erakusten du non kokatzen garen (gure posizioaren autopertzepzioa). Gure proiektuak egiteko guk ditugun aukeren balorazioari buruz informazioa ematen digu. Amaierako argibide horiek botere-harreman barneratu baten emaitzak dira.

## **Ondorioak eta estrategiak**

Emakumeen parte hartzeak berrikuntza demokratiko testuinguruetan problematika agenda berri bat irekitzen du ikerketaren alorrean. Begirada desberdinez (antropologikoa, soziologikoa, politika zientziarena...) egin behar zaio aurre agenda berri horri. Artikulu honetan, begirada soziopolitologiko batekin begiratu nahi izan dugu emakumeen parte hartzea demokratizazio prozesuetan.

Agerikoa da emakumeek gero eta askatasun gehiago dutela euren parte hartze proiektuak eta bizitza proiektuak garatu ahal izateko. Hala ere, horrek ez du esan nahi gizarte berdinzaleetan bizi garenik, hots, ez du esan nahi euskal gizartea berdinzalea denik. Nonahi daude emakumeen bizitza proiektuak baldintzatzen dituzten genero arauak, baita espazio demokratizatzaileetan ere.


Askotarikoak dira demokrazia ordezkatzailerik testuinguruetan emakumeen proiektu parte hartzaileak mugatzen dituzten elementuak: kultura politiko patriarkalarekin lotuta daudenak, sistema politikoarekin lotura dutenak, alderdi sistemari atxikita daudenak edo masa hedabideek erreproduzitzen dituzten emakume ereduarekin zerikusia daukatenak, besteak beste. Berrikuntza demokratiko testuinguruetan ere elementu

horietako askok eragiten dute, baina berrikuntzarekin batera elementu oztopatzailleen eraldakuntza bat gertatu da, mugatzaileen ikusgarritasuna sotilduz. Artikulu honetan aurkeztu ditugu emakumeen parte hartzearen proiektua muga dezaketen elementuak, batzuk erabat gorpuztuta daudenak eta naturaltasunez erreproduzitzen direnak: genero arauen eskutik datozenak, bereziki. Beste batzuek egitura objektibatuagoekin dute zerikusia: kapitalen metaketa, esate baterako.

Baina oztupoekin batera, emakumeek euren parte hartzea erositzeko estrategiak ere identifikatu dituzte euren biografiatan. Estrategia asko, gorpuztu diren heinean, ez dira modu esplizituan estrategia bezala definitzen. Horregatik, hurrengo ikerketa pausoetan, beharrezkoa ikusten dugu gorpuztutako estrategia horien ibilbidea aztertzea. Identifikatutako estrategia guztien artean, badira bi adierazgarriak, izan ere, esportagarritasun maila altua baitute: alde batetik, bidaiaren estrategia; beste alde batetik, sororitatea.

Lehenengo strategiari dagokionez, emakume askok nabaritu dute genero arauak *stand by* jartzearen beharrezana. Helburu horrekin, bidaiatzeak, norbanakoaren eguneroko testuingurutik ateratzeak norberaren situazioa (*situation*) partzialki aldatzea ahalbidetzen du. Bidaiatzen dugunean, noski, atzerrira ere genero arauekin goaz (zentzu zabalean ulertu behar da *atzerria*, egunerokoa ez dena bezala), baina kanpotik norbere egoera ikusteak gorpuztutako arauetz jabetzea bermatzen du, itzulitakoan horiekin hausteko aukera gehiago izatea. Besteen begirada *stand by* jartzea. Bigarrenari dagokionez, bada denbora Marcela Lagardek proposatzen duela emakumeen arteko paktuak eta sororitatea emakumeen askatasunak hazteko estrategia gisa erabiltzea (Lagarde, 2006). Ikerlanean parte hartutako emakumeek ez dute inoiz sororitate hitza erabili, baina askok adierazi dituzte, euren ekintzen bidez, sororitatean oinarritutako strategiaren inplementazio gorpuztu desberdinak. Horien guztien progresioan honako puntu komunak aurkitu ditugu: lehenik, emakume asko sufrimenduz bizitako egoera batekin gogoratu dira; bigarrenik, bestea identifikatu

dute egoera horretan; eta, hirugarrenik, beste horrek norberak izandako esperientzia txarra izan ez dezan jardun dute.

Bukatzeko, azpimarratu nahi genuke artikuluko honetan aipatutako oztopoen irakurketa eta estrategien identifikazioa problematika zabalagoa duen lan baten atal bat baino ez direla; aurrerantzean, bai oztopoen bai estrategien inguruan sakontzen duten ikerketa lanak egin beharko dira. 

### *Oharrak*

1. Artikulu honen lehenengo bertsioa Jule Goikoetxeak eta Ainhoa Gueñenek zuzendutako 'Feminismoa, aniztasuna eta euskal estatuaren eraikuntza' uda ikastaroan aurkeztu zen (Udako Euskal Unibertsitatea, Baiona, 2014-07-10/11). Bereziki eskertu nahi dizkiet biei nire lanari egindako ohar eta ekarpen guztiak. Halaber, uda ikastaroan parte hartu zuten emakumeei eskertu nahi nieke erakutsitako interesa eta egindako iruzkin guztiak.
2. Demokratizazio prozesuak ulertuko dira, era zabalean, Charles Tillyk ulertzen dituen moduan: «Estatua eta bere hiritarren arteko kontsulta lotesleago, bermatuago, berdinzaleago eta zabalago batera doan mugimendua», hain zuzen ere (Tilly, 2010: 45).
3. Hitz gutxitan esanda, kapital ekonomikoak norbanakoak dituen ondasun ekonomikoei egiten die erreferentzia, kapital kulturalak norbanakoak dituen jakintza eta erreferentzia kulturaleri, kapital sozialak norbanakoak dituen harreman eta eragin sareei, eta kapital sinbolikoa aurreko kapitalen metaketa eta errekonozimendutik sortzen da, errealitatea izendatzeko gaitasuna da.
4. Berrikuntza horiek, oro har, bi motatakoak izan daitezke: oldarkakoak, behetik gora sortzen direnak, hau da, herritarron ekimenez sortzen direnak eta demokrazia ordezkatzaila sakontzea bilatzen dutenak deliberazioaren eta parte hartzearen bidez; eta gonbidapenezkoak, alegia, erakundeek, hots, estatuak, herritarron parte hartzea sustatzeko proposatzen dituzten espazioak.
5. Artikuluaren autoreak frantsesetik itzulia.
6. Chantal Mouffe teorialari politikoa feministak sexu-genero sistema hiru motatakoa izan daitekeela dio: berdinzalea, dominazio maskulinokoa (patriarkatua) edo dominazio femeninokoa (Mouffe, 1984).

7. Kristalezko teilatua, batez ere, emakumeen lan ibilbidean horiek hierarkian goian dauden karguetara iristeko dauden oztopo ikusezinei erreferentzia egiteko erabiltzen da. Iragazten duen zorua, berriaz, emakumeak piramide ekonomikoaren beheko pisan geratzera bultzatzen dituen egitura sotilen multzoa da. Gure kasuan eta parte hartzeari dagokionez, esan dezakegu kristalezko teilatua eta iragazten duen zorua emakumeen parte hartzearen proiektua mugatzen duten egitura sozial objektibatu eta gorpuztuen multzoa direla.

### **Bibliografia**

- Blas, Asier; Ibarra, Pedro (2006). 'La participación: estado de la cuestión.' *Hegoa. Cuadernos de Trabajo* 39.
- Bourdieu, Pierre (1981). 'La représentation politique. Éléments pour une théorie du champ politique.' *Actes de la recherche en sciences sociales* 36-37: 3-24.
- Bourdieu, Pierre (1988). *La distinción*. Madril: Taurus.
- Bourdieu, Pierre (1997). *Razones prácticas*. Bartzelona: Anagrama.
- Bourdieu, Pierre (1998). *La Domination masculine*. Paris: Seuil.
- Burin, Mabel (2003). 'El deseo de poder en la construcción de la subjetividad femenina.' In Almudena Hernando (koord.). *¿Desean las mujeres el poder?* Madril: Minerva (Emakunderen webgunean: [www.emakunde.euskadi.net/u72-20020/es/contenidos/libro/liburuteka\\_online/es\\_liburu/emakunde.html?&Alt=675&Anch=855&Root=DeseanLasMujeres&pagTot=264](http://www.emakunde.euskadi.net/u72-20020/es/contenidos/libro/liburuteka_online/es_liburu/emakunde.html?&Alt=675&Anch=855&Root=DeseanLasMujeres&pagTot=264); kontsulta: 2014-07-25).
- Caul, Mike (1991). 'Women's Representation in Parliament: The Role of Political Parties.' *Party Politics* 5/1: 79-98.
- Cunill, Nuria (1999). *Participación ciudadana: dilemas y perspectivas para la democratización de los Estados latinoamericanos*. Caracas: CLAD.
- Dryzek, John (2000). 'Discursive Democracy vs. Liberal Constitutionalism.' In Michael Saward (arg.) (2000). 78-89.
- Fraser, Nancy (1992). 'Rethinking the Public Sphere: A Contribution to the Critique of Actually Existing Democracy.' *Social Text* 25-26: 56-80.
- Galligan, Yvonne; Tremblay, Manon (arg.) (2005). *Sharing Power: Women, Parliament, Democracy*. Aldershot: Ashgate.
- Gilligan, Carol (1982). *La moral y la teoría. Psicología del desarrollo femenino*. Mexiko Hiria: Fondo de Cultura Económica.
- Inglehart, Ronald; Norris, Pippa (2001). 'Cultural Obstacles to Equal Representation.' *Journal of Democracy* 12/3: 126-140.
- Jónasdóttir, G. Anna (1993). *El poder del amor. ¿Le importa el sexo a la Democracia?* Madril: Cátedra.



- Kunovich, Sheri; Paxton, Pamela (2005). 'Pathways to Power: The Role of Political Parties in Women's National Political Representation'. *American Journal of Sociology* 111/2: 505-552.
- Lagarde, Marcela (2006). 'Pacto entre mujeres y sororidad'. Hitzaldia. Coordinadora española para el Lobby Europeo de Mujeres ([http://webs.uvigo.es/pmayobre/textos/marcela\\_lagarde\\_y\\_de\\_los\\_rios/sororidad.pdf](http://webs.uvigo.es/pmayobre/textos/marcela_lagarde_y_de_los_rios/sororidad.pdf); kontsulta: 2014-07-25).
- Lagarde, Marcela (2003). *El feminismo y la mirada entre mujeres* (<http://e-mujeres.net/ateneo/marcela-lagarde/textos/-feminismo-y-mirada-mujeres>).
- Martínez, Jone (2015a). '¿Le importa el sexo a la democracia participativa?'. *Revista de Estudios Políticos*.
- Martínez, Jone (2015b). 'Mujeres y democracia participativa. ¿Qué limita los proyectos participativos de las mujeres?'. Errebisiopean.
- Martínez, Jone et al. (2015). 'Les innovations démocratiques à l'épreuve du féminisme. Les obstacles de la participation des femmes aux processus d'innovation démocratique: un regard sur le Pays Basque». In *Participations* (2). Paris.
- Moi, Tori (2001). 'What Is a Woman?'. In *What is a Woman and Other Essays*. Oxford: Oxford University Press.
- Mouffe, Chantal (1984). 'Por una teoría para fundamentar la acción política de las feministas'. In Askoren artean. *Jornadas de feminismo socialista*. Madril: Mariarsa.
- Pateman, Carole (1989). *The Disorder of Women*. Stanford: Stanford University Press.
- Puleo, Alicia (1995). 'Patriarcado'. In Celia Amorós (zuz.). *Diez palabras clave sobre mujer*. Madril: Eva. 21-54.
- Puleo, Alicia (2005). 'Introducción al concepto de género'. In Juan Plaza, Carmen Delgado (arg.). *Género y comunicación*. Madril: Fundamentos. 13-32.
- Saward, Michael (2000). *Democratic Innovation: Deliberation, Representation and Association*. Londres: Routledge.
- Smith, Graham (2009). *Democratic Innovations. Designing Institutions for Citizen Participation*. Cambridge: Cambridge University Press.
- Spivak, Gayatri (2003). '¿Puede hablar el subalterno?'. *Revista Colombiana de Antropología* 39: 297-364 ([www.redalyc.org/articulo.oa?id=105018181010](http://www.redalyc.org/articulo.oa?id=105018181010); kontsulta: 2014-07-25).
- Suso Alicia; Martínez, Jone (2015). 'Las mujeres en la democracia participativa. Itinerarios, obstáculos y estrategias'. In *Libro homenaje a Pedro Ibarra*.
- Tilly, Charles (2010). *Democracia*. Madril: Akal.

# Gaztea eta partaidetza: distantziak

Jon Markel Ormazabal

*Soziologian lizentziaduna eta Aztiker Soziologia  
Ikerguneko teknikaria*

**Ez dugu nahi edozein preziotan parte hartu, ezta geure isiltasuna onartu, ezta ere onartu... ardo beltza eta ukazioa kafe etxeetan. Etsipenezko lehen egiak ez dira bizitza hauen amaiera izango, isiltasunaren amarruen aurka, inoren edo ezeren alde bustitzeko ehunka moduen aurka defenditzen hain zailak diren bizitza hauek.**

*Guy Debord*

Dagoeneko frogatu da: lerro zuzena. Horixe puntu biren arteko distantziarik motzena. Bi puntu, gaztea eta partaidetza. Eta hauxe iritzi eta hautemate bilduma honen helburua: bien arteko distantzia neurtzea. Horretarako, ezinbestekoa deritzogu, lehenik eta behin, gaztea zer den edo gazteria zeri deritzon zedarritzen ahalegintzea; gizarte kezka eta inplikazioaren bide orriak ezagutzea; politikarekiko gazteen usteak arakatzea; eta horietatik partaidetzara jauzia nola egiten den aztertzea, izan daitezkeen oztopo eta aukerez jabetuz ibilbidetan zehar.

Esan dugunez, jarraian aurkezten duguna partaidetzarekiko gazteen iritzi eta hautemateen bilduma bat da. Izan ere, esku artean dugun gaia lantzeko derrigorrezkotzat dugu gazteen beraien usteak irakurketa ororen erdigunean paratzea. Eta,

horretarako, ondorengo ikerketa kualitatiboen gaineko irakurketa garatu dugu:

- *Gipuzkoako gazteak eta politika*, 2009. Aztiker.
- *Gipuzkoako udalerrietako eta eskualdeetako parte-hartze politiko eta sozialari buruzko azterketa*, 2010. Aztiker.
- *Hernaniko gazteriaren diagnosa*, 2014. Aztiker.
- *Jóvenes y diversidad en el Territorio Histórico de Gipuzkoa*, 2013. Gipuzkoako Foru Aldundia.
- *Gazteak eta parte-hartzea. Gazteen parte-hartzeari buruzko ikerketa*, 2013. Euskadiko Gazteriaren Kontseilua.
- *Eta gazteok zer? Euskal Herriko gazteen aldaketa eta joera sozio-politikoak*, 2010. GITE-IPES.

Artikuluari Hego Euskal Herriko gazteen inguruko ikuspuntua soilik jaso dugu.

## **Gazte gara gazte... Konforme, eta zer da hori?**

Zer da gaztea izatea? Zeri deitzen diogu gaztea izatea?... Galdera horiek eta gehiago pausatzen dira orri zuriaren lau ertzetan gazteriari buruzko edozein lan egin behar aurrez. «Ez dago halako subjekturik, ez da gazteria deitzen diogun hori existitzen», entzun ohi da bulego askotako mahai inguru-

rietan. Ezin da, nonbait, gazteriaz hitz egin, gazte ezberdinez baizik. Baina halakoak esan berrikan, jarraian denak hasten gara hitz egiten nolakoa den gazteria, zein premia dituen...

Gaztaroa honela definitu izan da gazteriaren soziologian: norbanakoa heldutasun biologikotik heldutasun sozialera doan tarte gisa. Ikuspegi horren arabera, ar-

durak bereganatuz (lana, etxebizitza eta familia) eskuratuko luke norbanakoak heldutasun soziala, prozesu mailakatu eta gehienetan luzean. Tartean, urtetan luzatu daitekeen prozesu

Gaztaroa honela  
definitu izan da  
gazteriaren soziologian:  
norbanakoa  
heldutasun biologikotik  
heldutasun sozialera  
doan tarte gisa

horretan, bizi-estilo bat garatzen dute gizabanakoek (gazteek). Bi euskarriren gainean eraikitzen da bizi-estilo hori: betebeharra bata, ikasketak (edo lana, ikasi ezean); dibertsioa eta plazera bestea, aisialdia eta festarako joera.

### **Ilegala banaiz, alda zuen legea**

Gazte izatearen definizio hori kontsentsu sozial, politiko eta akademiko baten abaroan mugitu da orain artean. Eta gaztea ‘tar-tean’ bizi den pertsona gisa definitzeak, gazteria kategoria sozial gisa ez definitzea ekarri du. Kontsentsu horrek ‘gazte izatearen’ egitatea ‘itxoite pasibo’ baten kondizioarekin lotzen du; hiritartasun erabatekora eta helduaren kondiziora heltzeko aurreikuspena duen ‘itxoite pasibo’ bat.

‘Itxoite pasiboak’ definitzen duen egungo gazte kondizioak ukapen soziala beharrezkoa du. Eta ukazio horrek, aldi berean, kolektiboaren zedarritze eta ondorioz bere izatearen baieztapen bat suposatzen du. Ukapen horrek, halaber, maiz modu esplizituan, posizionamendu moral jakin bat hartzea dakar. Zeren gazteak pertsona helduen proiektu soil direla baieztatzen denean, ‘babesaren’ argumentuarekin justifikatzen da proposamena; pertsona oso eta heldu edo eskubide denak dituen hiritar aktibo izan gabe pairatu ditzaketan ‘balizko arriskuak’ aipatzen dira, eta onartzen da orientatu, lagundu eta zuzentzearen beharra forma seguru batean heldu kondiziorako bidean. Aurrerago ikusiko dugun bezala, pertsona ‘helduen’ jokatzeko era horrek ondorio zuzenak ditu gazteen balizko parte hartzean.

### **Baina duda baizik ez naiz**

Gaztetasunaren esanahia elementu eztabaidatua da, dudarik gabe. 1952. urtean Charlie Chaplinen aurka *letristek* egin-dako protesta akzio baten kritikaren ondotik, Isidore Isou kanporatua izan zen urte batzuk lehenago martxan jarri zuen *letristen* mugimendutik. Goetheren *Fausto*-k egin bezala

sententziatu zuten kide ohiek: «Hogeita hamar urtetik gora badituzu, hilda zaudela esan daiteke». Bada, adin-tarteak dira gaztea denaren eta ez denaren ulermenari dagokionean elementu argienak eta adostasun gehien biltzen dutenak. Dena den, eta gazteekin egindako ikerketen emaitzak erreparatuz, ez dira esanahi generikoak aurkitzen. Gaztetasunaren inguruko gogoeta aldatu egiten da, kasuan kasuko belaunaldi-espazioaren eta gizarte-harremanen espazioaren arabera. Eta autopertzepzioa aldatzen da norbanakoaren inguruaren eta bere pertzepzio propioen arabera. Adibidez, Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak 2013an aurkezturiko ikerketaren emaitzek aditzera ematen dutenez, adostasuna dago haurra izatetik gazte izatera trantsizio bat dagoela, interakzio soziale-rako modu berri bat suposatzen duena. Baita 12-14 eta 26-28 urte artekoak gazteak direla ere. Ez dago taldea borondatez uzterik. 28 eta 35 urteen arteko tarteak desadostasun gehiago dakartza, adinak gora egin ahala desadostasunak areagotzen baitira. Ez dago nozio hegemonikorik. Ez behintzat *letristek* maneiatzten zutenaren antzekorik.

### **Gazteok ono, dena geroko**

Gazteria ez da zerbait homogeneoa. Askotariko pentsaerek, interesek, kezkek eta bizi-xedeek osatzen dute gazteen begirada. Gazteen artean, esan daiteke, gazteriaren ikuskera estereotipatuaren errefusatzea orokorra dela, bai ikuspegi positiboari dagokionean, bai eta ikuspegi negatiboari dagokionean. Dena den, onartzen da ezaugarri negatibo horietariko batzuk badaudela gazteriaren sektore batzuetan. Jendarte modernootako seme-alabak dira egungo gazteak. Kontsumismo eta oparotasunean oinarritutako ongizate pertsonala dira gazteen bizi-xedeen zutabe nabarmenak. Indar ezberdinez bada ere, ikerketetako gazte diskurtsoetan aurkitzen ditugu indibidualizazio prozesuaren zantzuak. Hots, autoerrealizazioaren eta garapen pertsonalaren balioek leku berezia dute gazteengan: norbere hitzaren eta ahotsaren garrantzia;

autonomia pertsonalaren defentsa; autoerrebindikazioaren joera; nor izate pertsonalaren bilaketa eta lanketa...

Etorkizuneko ongizatearen oinarri izango dira ikasketak ikuspegi horren baitan. Eta festa, parranda eta aisialdia 'gazte izatearen' nortasun agiriaren beste aldea. 'Gazte izate' horren bi alde horietatik at geratzen diren esparruak bigarren mailako kezka izango dira. Norberaren hautuaren arabera, koa izango da gizarte gaien gaineko interesa izan ala ez, baina horiek 'gazte izatearen' betekizunen koordinatuetatik kanpo geratzen dira. Batzuen ustetan, gainera, gaztaro aldia gainditzea suertatzen denean, orduan, zentzua izango du bestelako kezka-eremuetan murgiltzeak. Momentuz, beste gauza horiek dute lehentasuna, eta gai sozialagoak urrun geratzen zaizkie.

Indibidualizazio  
prozesuarekin subjektu  
indibidualak autonomia  
irabazi du, baina  
horrek ez du zertan  
adierazi gizartearekiko  
arduragabea denik

### **Izan nahi nuen baina ez naiz**

Aipagai duguna, ordea, prozesu konplexua da. Interpretazio arinetatik ihes egin beharra dago. Indibidualizazioaz ari garenean, ez da ulertu behar indibidualismo hutsa eta norberekoitasun arduragabea. Indibidualizazio prozesuarekin subjektu indibidualak autonomia irabazi du, baina horrek ez du zertan adierazi gizartearekiko arduragabea denik. Areago, jarrera axolagabeak, gazteei berezkoak zaizkienak izatetik urrun, motibazioa galdu duen eta bere gaitasunen jakitun ez den belaunaldi batekin lotzen dira gehiago.

Atsekabe eta geldotasun sentipen horren zergatia gazteria egoera ekonomikoak bereziki ukitutako kolektiboa izatean datza. Zailtasun ekonomikoek, elementu praktiko-materia- lak ukitzeaz gain, espektatiben ziurgabetasuna betikotzea dakartelako.

Hain zuzen ere, eta aldakortasunarekin batera, ziurgabetasuna da gazte belaunaldi honen marka. Belaunaldi moduan ezaugarritzen dituen gakoetako bat da, beste belaunaldi batzuetan hain nabarmena izan ez dena. Gurasoek bizi izandakoaren kontra, bizi maila eta ongizate pertsonalaren hazkunde-joera zailagoa irudikatzen dute haien bizi-ibilbidean. Bizi-xedeen eta bideragarri egingo luketen gizarte-baldintzen arteko etena sumatzen dute gazteek.

### **Posibilitateen infinitatean itotzen du fatalitatea**

Finean, ondorengoa da formulatu beharko genukeen galdera: indibidualizazio prozesuarekin subjektu indibidualak autonomia irabazi du, baina nola eragiten dio horrek gizarte-ehundurari? Eta gizartearekiko ardurari?

Herritar estandarraren kezka nagusia gaur egun norbanakoari oso lotuta doa. Gizarte gaiak bigarren mailan kokatzen dira, eta kezka pertsonalak, gorago ere esan dugu, norbanakoa eta bere inguruko ongizatea bilatu eta mantentzeari lotuta doaz.

Gazteak ez dira bestelako mundu batean bizi, eta gazteen artean gizarte-inplikazioa eta parte hartzea ez daude bere onenean dagoeneko. Gizarte-inplikazioaz hitz egiten dute-nean, galera ikuspegi bat islatzen da. Bakoitza berera doala, hori da nagusitzen ari den joera. Indibidualismoak eta kontsumismoak sustrai sendoak egin ditu gure gizartean. Gazteen irudipen hori askotariko aipagaiek sostengatzen dute, hala nola, iraganean sendoak ziren zentzu-erreferentzia kolektiboak indarge azaltzen direla egun; ideia handien galeraz harago, egunerokotasunean bizimoduaren gizarte-ehundura izan diren elkartasun jarreraren falta sumatzea; edo, erosoago biziarekin batera, inplikatzeko arrazoiak gutxiago direla sentitzea, lehen arazoek jende guztiari eta modu zuzenean eragiten bazieten, egun zailagoa dela gizarte askotariko eta konplexuan subjektuen arteko interes komunaren arteko esparruak topatzea.

## Gazteak eta politika

Aipagai izan dugun egungo garaien aldakortasuna norbanakoaren bizimoduan ere ikus dezakegu, malgutasuna delarik hitz gakoa. Rol ezberdinen aukera-aniztasunaren ondorioz identitate-aniztasuna ere izaten da, eta testuinguruaren arabera ere rol bakoitza aldatzen da. Lehen norberaren rol soziala definituago bazen komunitatearen baitan, egun, komunitateak pisua galdu duen heinean eta norbanakoak protagonismoa hartzen duen heinean, talde zein kolektiboaren identitatea ere lausotu egiten da. Eraldaketa bat iragan da interes kolektibotik interes indibidualerako norabidean, eta, ondorioz, dimentsio kolektibo publikoek indarra galdu dute eta pertsonal pribatuek indarra hartu. Norbanakoak etengabe du bere inplikazio maila eraldatzeko aukera bere nahi edo behar indibidualen arabera.

Ondorioz, egungo gizarte-joeren baitan, politika ulertu eta politikarekin harremantzeko moldeak eraldatze bidean dira. Batetik, tradizionalki politika egiteko betiko moduak aurki ditzakegu, eta, bestetik, aipagai izan ditugun aldaketen baitan sortu diren molde berriak. Alegia, gazteek, beste garai eta belaunaldien aldean, politika ulertzeko eta politikarekin harremantzeko molde ezberdinak adierazten dituzte. Iraganean, politika egiteko momentu, espazio eta subjektu jakin batzuk zeuden; hau da, politika egitea zuzenki estatuari eta alderdiei atxikitzen zitzairen. Egun, aldiz, gazteek gero eta gehiago politika egunerokotasuneko praktiketara aurkitzen dute. Gehiegizko instituzionalizazio politikoak gizarteari politika egiteko aukerak murrizten dizkiola ulertzen da, horren praktika politikoa lau urtetik behineko bozkara mugatuz. Baina, oro har, gizarte parte-hartzearen eremua hurbil bizi dutenek politikaren adiera 'osoago' hau darabilte: «politika dena da» ulertzen duena, alegia.

Politikarekiko jarrerak eta interesak, noski, askotarikoak dira. Baina salbuespenak salbuespen eta ñabardurak ñabardura, gazteek urrun bizi dute politika, eta, prozesu beraren baitan,



politika gizarte-esparru espezializatu moduan egituratzen dela dirudi gazteen artean. Politikaren adiera politikagintza formalaren eremura murrizteko joera erakusten du gaur egun gazteen diskurtso nagusi batek. Gazteen artean aurkitzen den iritzi zabal eta orokorra, halaber, politikarekiko eta eragile politikoekiko iritzi eta hautemate eskasa da. Politikarekiko eta politikariekiko aldentzea gertatzen da, Elizarekiko gertatu denaren antzekoa, baina askoz ere egoera aurreratuagoan dagoena. 2012an EAEko gazteen %70ek adierazten zuen politikarekiko interesik eza edo interes txikia. 2009an, berriz, interesik agertzen ez zuen gazteen ehunekoak %64tik %81era egiten du jauzi (*Jóvenes y diversidad en el Territorio Histórico de Gipuzkoa. Mapas, itinerarios, discursos e identidades*. Gipuzkoako Foru Aldundia, 2013).

Baina kritikak kritika eta urruntasunak urruntasun, gazte gehienek onartzen dute gaur-gaurkoz gure eguneroko bi-

Kritikak kritika  
eta urruntasunak  
urruntasun, gazte  
gehienek onartzen  
dute gaur-gaurkoz  
gure eguneroko  
bizitzan politika kontu  
garrantzitsua dela

zitzan politika kontu garrantzitsua dela. Sistema demokratiko ordezkatzailen kudeaketa-eredua, oinarrian, zalantzan jartzen ez duen politikagintzaren gaineko irudia da gazteena. Botoa emateari dagokionean, adibidez, eta nahiz eta jarrera askotarikoak erakutsi, orokorrean, politika formalaren gaineko iritzi txarrak ez du erabat baldintzatzen gazteek botoa emateari buruz duten ja-

rarrera. Gizartearekiko kezka eta ardura duen subjektu indibidualizatuaren inplikazio-tresna bilakatu da botoa.

Iragan hurbileko ikuspegi kolektiboen eragina indartsua da gazte-sektore baten baitan, ukaezina da hori. Baina, oro har, gazte indibidualizatua beste era batez hurbiltzen da politikaren esparrura. Orokorrean, euskal gazteak ez ditu hein handi batean bere praktika politikoak diskurtsoetan oinarritzen, ezta horietaz baliatzen ere. Aurreko garai batzuekin alboratuz,

gazteen arteko eztabaida politikoak geroz eta gutxiago direla esan daiteke. Gipuzkoako datuei erreparatuz, gazteen %10ek soilik adierazten du politikaz hitz egiteko ohitura. Eta familia nahiz lagunartea dira horretarako eremu nagusiak, %28 eta %26ko datuekin hurrenez hurren (*Jóvenes y diversidad en el Territorio Histórico de Gipuzkoa*. Gipuzkoako Foru Aldundia, 2013). Diskurtsoa ez da garrantzizkotzat jotzen, bere indarra galdu du, eta praktikak gailentzen dira gazteen artean. Politikaren alde ludikoak ere pisua hartu du, zeinetan praktika politikoak burutzen diren orduan ongi pasatzeko nahia ere agerian gelditzen den.

## **Inplikazioa ez dago modan**

Gazteek adierazten dutenaren arabera, gizarte-kezkak badi-tuzte eta gai horien gaineko nolabaiteko jarraipena ere egiten dute. Baina, oro har, kezka hori ez da bihurtzen inplikazio edo parte-hartze. Eta joera nagusi hori eguneroko ekimen txikietan ere sumatzen da.

Konpromisoa, elkartasuna, inplikazioa, militantzia, entrega... Parte-hartzeari lotzen zaizkion hitzak dira guztiak. Teorian, diskurtso mailan, pisu handia duten hitzak dira, modan baitaude. Herritar konprometitu eta solidarioa herritar zintzo eta zuzena da. Izan ere, konpromisoak, benetakoa izateko, iraunkorra izan behar duela uste dute herritarrek. Badira urteak militantzia kontzeptuak kutsu ezkorra hartu duela.

## **Full time eredua**

Aipatu iraunkortasun hori ez dator bat gure gizartean eta bizi ereduetan gailentzen diren balio eta interes indibidualekin. Errealitatean, argi dute guziek konpromiso eta parte hartze puntuala gailentzen dela. Are, konpromisoari beldur zaio-la adierazten da. Eta, bestela, gazteak konpromiso zehatzak nahi ditu, ez denboran iraunkorrak. Beharrezkoa da denboraren erabilerari erreparatzea, gazteak larriki kezkatzen di-tuen aspektua baita. Egungo belaunaldia denborarik gabeko

belaubildiz jo daiteke. Erregela guziak aurretiaz araututa daudelako sentipena adierazten dute gazteek: gehiegizko babesa, bikaintasun akademiko-profesionalaren bilaketa, gehiegizko estimulazioa... Denbora gabezia indar handiz agertzen da behin eta berriz parte hartzerik eza nahiz parte hartzearen etetea azaltzeko. Alegia, parte hartzea, prozesu sortzaile eta progresiboa den heinean, ukituta gera daiteke egitate hori finkatzen bada.

Are, gogorik eza, utzikeria eta denbora falta dira, hain zuzen ere, herritarrek ez parte-hartzeko agertzen dituzten hiru arrazoi nagusiak. Denborari hertsiki loturik azaltzen den beste zailtasunetariko bat espazioen bikoiztasuna da.

## **Partaidetzaz ari garela**

Parte-hartzeari dagokionean, gazteria da parte-hartzailearen profiletik gehien urruntzen den sektorea, balio kolektiboak izatetik urrunen dagoena. Hiritartasun-kontzientzia eta politika 'plaza publiko' moduan ulertzeko joera aski ahula da gazteen artean. Baina bada gazteak nagusi direla uste den parte-hartze esparru bat: protestara bideratutako parte-hartzea, alegia.

Bestelako ondorioetara heltzen diren ikerketak ere badi-ra. *Gazteak eta parte-hartzea* ikerketan, adibidez, gazteen dimentsio parte-hartzailean hondatze garrantzitsurik ez da nabaritzen. Halere, adierazten da inplikazio era berriek gazteen parte-hartzeari bultzada eman diotela.

Egun, gazteek inoiz baino talde gehiagotan hartzen dute parte, eta horrek kolektibitate eredu berria dakar, talde ezberdinetan egoteak atxikipen ezberdina baitakar. Talde anitzetan parte hartzeko aukera izanik, gazteak ere emaitza hobeak edo onurak lortzeko aukera gehien dituen parte hartze politikoa lehenesten du. Norberaren nahiak lehenestea oinarritzat duen logika horrek, ordea, inplikazioan eragina du; esan bezala, gazte militante geroz eta gutxiago egotea eta geroz eta gazte asoziazionista edota noizean behineko parte hartzaile gehiago egotea da horren adibide adierazgarriena.

Gazteen parte-hartzea, gainontzeko herritar sektoreetan bezala, errealitate feminizatua da. Baita parte-hartzearen lidergoa ere. Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak argitaraturiko ikerketaren arabera, diagnostiko hori bat dator Gazteen Euskal Behatokiaren datuekin; 2012an osatu eta 2013ko abenduan argitaratutako ikerketak aditzera ematen baitzuen boluntariotzako profilen artean emakumezkoen proportzioa gero eta handiago dela.

## A

Ikerketa beraren ondorioen peskizan, parte-hartzearen inguruko diskurtsoaren azalean, erdialdean kokatzen da motibazio transzendentalei egiten zaien aipamena. Alegia, aldaketarakoak, kontzientziakoa, eraldatzea bilatzen dutenak. Zentzu honetan, gazteek uste dute partaidetza tresna boteretsua izan daitekeela uste osoak irudikatzeko. Uste horiek edukiz betetzen diren lekua litzateke partaidetza. Modu berean, gizarteratzea eta giza-talde bat erdiestea parte-hartzearen ahalmen nagusietako bat bezala dute. Eta horren osagarri gisa sartzen dira faktore emozionalak, afektuaren bilaketa, errealizazio pertsonala eta psikologikoa.

Politikarekin harremantzeko bideetan bezala, familia-jarraipenak oso eragin esanguratsua du parte-hartzeaz ari garela. Eta familia inguruak positiboki eragiten duen era berean, parte-hartzea inguru horretatik irteteko eta giro ezberdin batean gizarteratzeko espazio gisa erabiltzen duten profilak ere badaude. Parte-hartzeak gaztea subjektu gisa kokatzen du, besteen erabakien menpe daudela sumatzen duten testuinguruan.

Gazteen parte-hartzea, gainontzeko herritar sektoreetan bezala, errealitate feminizatua da. Baita parte-hartzearen lidergoa ere

## B

Hein handi batean, gazteen diskurtsoetan, parte hartzerik ezaren erantzukizuna kanpokoak edo orokorrak diren eragileei esleitzeko joera dago. Indibidualizazioari botatzen zaio errua, kasu, edo komunikabideetan ematen den ohiko irudiari. Ez alferrik, aipatu dugun gazteria definitzeko logikak gazteria (modu etengabea) ukatua izatea eskatzen duela esan dugu. Logika horrek azpimarratuko du, batetik, gazteek ez dutela parte hartu nahi eta apolitikoak direla, sistemak hiritar aktiboagoak nahi lituzkeela baina gazteek ez dutela nahi ondorioztatzen delarik. Eta, bestetik, gazteek beren kabuz abiatu ditzaketen edozein ekintza susmagarria dela.

Diskurtsoetan sakontzen denean, hautematen da gazteek esfortzu berdinagatik esker on gutxiago jasotzen dutela. Parte-hartzea eta parte-hartzen duen pertsonaren ahalegina ez dira baloratzen orokorrean. Parte-hartzearekin inongo loturarik ez dutenek ondo ikusten dutela diote, baloratu behar dela, baina parte-hartzailea ez da baloratua sentitzen. Hoztasuna eta ezaxola hitzek labur dezakete sentitzen dutena, eta gazteen artean sentsazio horiek biderkatu egiten direla esan daiteke. Horren ondorioa da modu estrukturalean parte-hartzeari pizgarria kentzen zaiola. Ondo zabalduta dagoen pertzepzioa da gazteak era gutxiesgarrian ikusiak direla gizarteko gainontzeko sektoreen aldetik, eta, ondorioz, emaitza bera edo hobea lortu arren egiten dutenari balio gutxiago aitortzen zaiola. Horri lotuta, eta hasieran luzaturiko hariari tiraka, era berean gehiegizko babesa onartzen da, efektu perbertsoa dakarrena: erantzukizunak hartzeko ezintasuna. Dena errazteko asmoarekin, orain guztia zailagoa da. Gazteria ikusezintasunean dago. Eta existitzen ez denak ez du gizartean parte hartzen.

Indar berezia duen arrazoirik baldin bada, ordea, hori parte-hartze jardueraren hutsaltasunaren sentimendua da. Sentimendu hori, bereziki, parte-hartze instituzionalari dago-kionean agertzen da gordinen. Kanpotik ikusita, nolabaiteko

mesfidantza sortzen da parte-hartzearekiko, horren azkeneko arrazoiak zalantzan jartzen direlarik. Demagogia kutsua darie politikarien kezka eta ardura asmoei. Parte-hartzea, zentzu horretan, 'saldu nahi diguten' ilusio modukoa da. Instituzioek partaidetzaren kontzeptua bereganatu dute, eta maila batean lortu dutela ere esan daiteke. Izan ere, parte-hartzeaz galdetzerakoan, instituzioei lotutako parte-hartzea dute ahoan gazteek.

EAEko gazteen %62k baino gehiagok adierazten du instituzioek ez dutela behar bezainbeste sustatzen partaidetza. Eta kontsulta da gazteek ehuneko handienean parte hartuko luketen eredia, %45,5ek hain zuzen ere (*Jóvenes y diversidad en el Territorio Histórico de Gipuzkoa*. Gipuzkoako Foru Aldundia, 2013). Dena den, diskurtsoaren eta praktikaren arteko distantziak ere aztertzeak izan daitezke. 2014ko maiatzaren 9an, Zarautzen, malekoian bizikletan ibiltzeko aukeraren inguruko herri-galdeketa egin zen. 2.800etik gora zarautzarrek hartu zuten parte: ezetzak 1.600 bozka atera zituen, eta baietza ez zen 1.100era heldu. Parte hartzaileen adina jaso ez bada ere, emaitza ikusita ez da zaila irudikatzea bozkatzera joandakoen artean pertsona heldu edo adinekoak gehiago izan zirela.

Egoera sozioekonomikoa batzuetan talde edo erakundeekin lankidetzan aritzeko pizgarri den modu berean, zailtasun gehigarri gisa agertzen da zailtasun gehien dituzten gizarte mailetan. Eta aurrekoarekin lotuta, horrek parte-hartzearen elitizazioa ekar lezake. Belaunaldi erreleboen zailtasunak ere parte-hartzea oztopatzen du. Ikerketek aditzera ematen dutenez, neurri handi batean, zahartzen ari da gazteen parte-hartzea (parte-hartzen duten gazteen batez besteko adina gora doa), eta eragileen arteko belaunaldi aldaketa bat beharrezkotzat jotzen da.

Aintzat hartu beharreko beste elementu bat teknologia berrien erabilerarena da. Sare sozialen erabilera hegemonikoa da parte-hartzen duten profilen artean. Ohiko jarduerak antolatzeko tresna erabilgarritzat dituzte gazteek. Hala ere, aho bateko adostasuna dago kontaktu digitalak ez duela

kontaktu fisikoa ordeztan, ez delako hain eraginkorra eta erabakitzailea. Izan ere, sare sozialak pertsonen euren desadostasuna adierazteko espazioak izan daitezke, inplikatzeko beharrik izan gabe.

### **A ala B: ondoriorik baldin bada**

Politikak gazteak erakartzeko zer-nolakoa behar lukeen galderaren aurrean, baina, ez da erantzun taxutu egirik jasotzen. Orokorrean, gazteei ezezagunak zaizkie instituzioek garatu ditzaketen eta eredu parte-hartzaileagoa oinarri duten tresnen erreferentziak, eta, gazteak eta politika bi mundu erabat bereizi moduan ulertzen dituztenek ziurtasun osoz adierazten dute ez dagoela ezer egiterik.

Baina, kultura parte-hartzaileak oinarri sendoak aurki ditzake egungo gizarte-baldintzetan. Gizarte-bokazioa adierazten duten gazteek ibilbide hori hurbil lukete baldin eta herri-mugimenduen eta administrazioaren artean lankidetzak ikuspegiak indartuko balira. Herri-mugimenduen zubi eta erakarpen-lana funtsezkoak izango dira zeregin horretan. Herri-antolakundeen lana aitortu eta balioa ematea eskatzen du horrek, sarri aurkakotasun-harremanak direnak lankidetzak-harreman bilakatzea. Bestetik, gazte indibidualizatu arduratsuen ikuspegiak erakarri beharko ditu gazteen eta politikaren arteko harremana irauli asmo duen politikagintza-egitasmoak.

Dena den, litekeena da Joseba Sarrionandiak arrazoi izatea: «oraindik ikertze dagoena bestea da, puntu bien arteko distantziarik luzeena zein den». Distantzia hori neurtzen jarraitu beharko. 🧑🏻‍🔬

# Guztion partaidetzarako baldintza eta aukera errealak jomugan

Nerea Agirre  
Olaia Jimenez

*Mondragon Unibertsitateko HUHEZI Fakultateko irakasle eta ikertzaileak*

## Atariko hitzak eta aldarriak

Lerro hauen aldarri nagusia kolektibo baztertuek eta aintzatesten edo gutxiesten diren horiek ere herri-proiektuetan aukera berdintasunez lekua eta ahotsa izateko duten eskubidea izango da. Hau da, herritar ororen eskubideen bermeez ariko gara. Horretarako, presentziaz gain, ikasteko aukerak, parte hartzeko, ekarpenak egiteko eta harremantzeko aukera errealak sortu eta baldintzak eraiki behar dira. Ondorioz, hurrengo lerrootan, baldintza horiek sortzen hasi edo/eta jarraitzeko lan-ildo nagusi eta eztabaidagai ditugun gogoeta-bideak identifikatu eta irekitzea izango dugu helburu.

Aldarria egiteko bandera gisa, pertsonon eskubideen, beharren eta komunitateko kide gisa garatzea ahalbidetzen duten erantzunen bermea hartuko dugu. Benetako justizia sozialaren eta inklusioaren bidetik, gurean bizi den herritar orok bere lekua izan, sortu eta topatzeko aukera izan beharko luke gure auzo/herri/hirietan, bertan bere burua aintzat hartu, autoeratu eta bere bizi-proiektua (pertsonal eta kolektiboa)



aurrera eramateko erreferentziak bilatuz. Gizarte xede nagusia honexek izan beharko luke: komunitateko partaide guztiek bizitzako garai guztietan bizi kalitatea eta ongizatea bermatuak izatea, hartara, herritar guztien garapen pertsonal, sozial eta garapen komunitarioa ere ahalbidetzeko. Marko orokor hori hezkuntzaren xedeekin lotzen dugu zuzenki, hezkuntza inklusiboaren helburuak hauek baitira: ikasle guztien ongizate maila altuena lortzea, eta ikaskuntza nahiz partaidetza prozesuak bizi, iraunkorki mantendu eta sustatu ahal izateko ahalik eta gaitasun handiena berenganatzea.

Haur eta gazteen parte hartzeaz hitz egiteak, herri eta herritar ereduez, justizia sozial eta ezberdintasun sozialen desgertzeaz, hezkuntzaren xedeez, herritar ororentzako ikaskuntza eta partaidetza aukerak sortzeko prozesu eta baldintzez, komunitatearen dimentsio hezitzaileaz eta zeregin horretan eragile bakoitzak dituen ardura eta erantzukizunez hitz egiteko aukera eskainiko digu. Gure begirada, testuan zehar, txiki(ago/tu)enen kolektiboetan jarriko dugun arren, ideien transferigarritasuna bilatzen ahaleginduko gara.

## **Jauzi kualitatiboa: parte hartzetik partaidetasunerako proposamena**

Badira hamarkada batzuk prozesu parte-hartzaileak protagonismoa eta lekua hartuz joan direla jendarteko eremu ezberdinetan. Hamaika dira gaiaren inguruan sortzen diren galdegai, kezka eta buruhaustek (terminologikoak batzuk, praktikoak besteak), eta baita han-hemenka abian jarri eta garatu diren esperientziak.

Partaidetasuna definitzeko ariketa konplexu honetan, partaide izateko tasunaz, zerbaiten parte edo kide sentitzeaz ari gara, baina baita eskubideen bermeaz; inklusio eta ekitatearen printzipioetan oinarritzen diren praktikez, hain zuzen ere. Norbanako eta kolektiboek erabakitze prozesuetan aho-tsa izateko eskumen, gaitasun eta aukeren egikaritzeaz ari gara, beraz. Parte-hartzetik partaidetasunerako jauzi horrek,

azaleko eta kontzeptualizazio mailako aldaketak gaindituz, gure praktikan eragina izango duen begirada aldaketa eskatzen du. Intentzio bati erantzunez artikulatutako/antolatutako prozesuak diseinatu eta garatzeaz gain, pertsona eta kolektibo bakoitzak betetzen duen posizioez hausnartu eta antolaketa moduak eta baita harremanak ere birpentsatzeko ariketari heldu beharko genioke.

Hezkuntza zein beste eremu batzuetan aurrera eramaten den jardun praktikoan kokatzen bagara, parte hartzea ezin da mugatu herritar edo inplikaturako eragileen iritzi emate hutsera. Ezin da mugatu beste pertsona batzuek erabaki duten gai baten inguruan lan egitera, beste pertsona batzuek pentsatutako espazio edo jardueretan sartzera. Sherri R. Arnsteinen parte-hartzearen eskailera ezaguna oinarri gisa hartuta, esperientzia askotan informazioa helaraztean oinarritzen direla ikus daiteke; hots, ekintza/asmo/egitasmo baten aurrean bultzatzaileek informazioa zabaltzen dute, baina gainerako herritar edo kolektiboek ez dute iritzia emateko eta erabaki-hartzeetan parte hartzeko ahalmenik.

Beste zenbaitetan, egitasmoen gaineko iritzia emateko bideak irekitzen dira, eta informazioa jasotzen da, baina ez dago aukerarik erabakietan eragiteko. Elkarlan eta erabaki-hartzeetan parte hartze handiagoa identifikatu daiteke zenbait esperientziatan, non, esaterako, egitasmoaren bultzatzaileak eta herritarrak edo kolektibo ezberdinak lankidetzan aritzeko espazioak irekitzen diren eta erabakiak denen artean hartzen diren. Kasu askotan, ordea, adostutako egitasmoak aurrera eramateko garaian, parte-hartzerako premisa eta berme guztiak lotu gabe egon ohi dira.

Hezkuntza zein beste eremu batzuetan aurrera eramaten den jardun praktikoan kokatzen bagara, parte hartzea ezin da mugatu herritar edo inplikaturako eragileen iritzi emate hutsera

Aurretik aipatutako urratsek partaidetasunerako bidean jar gaitzakete, baina argi dago ez dela benetako partaidetzarik egongo komunitatea/herritarrak/inplikaturako kolektiboak ez baldin badira egitasmoaren garapenaren protagonista; eta komunitatea bera ez baldin bada parte-hartzerako espazio eta espazio politiko bilakatzen, talde edo kolektiborik bazter utzi gabe.

## **Zein dira jauzi horretan lagundu dezaketen baldintzak?**

Baldintzak diogunean, parte hartzeko uneak, guneak eta aukerak guztiontzako izateko kontuan hartu beharrekoak dihardugu. Horiei luzatuko diegu begirada jarraian:

- *Komunitateko bizitza sozialarekin konexioa izatea.* Edozein ikaskuntza prozesuk modu testuinguratuan hartzen du zentzua (gure bizi espazioen jabe izan behar dugu, errealitateak eta errealitateetatik ikasi ahal izateko eta horiek eraldatu edo aldatzeko intentzioetan pentsatzen hasteko). Beraz, partaidetzaz hitz egiterako orduan ere, ingurune hurbilak berebiziko garrantzia hartzen du, ingurune hori baita erreferenteak, identitatea, partaidetasun sentimendua, onarpena, errekonozimendua, inklusiorako eta jabekuntzarako aukerak eskaintzen dizkiguna. Ingurune soziokulturalean erroturik dauden balioak, identitatea, kultura eta egunerokoa kontuan hartu behar ditugu, eta, era berean, ezin ditugu bazter utzi egungo komunitateen ezaugarri global berriak, hala nola, komunitateen izaera kulturantzuna eta konexio globalak. Irakurketa horietatik, etengabe presente izan beharko genituzkeen adierazleak eratortzen dira: batetik, egiten dena herritarren, auzotarren, ikasleen eguneroko eta behar zehatzekin konektatuta egotearen garrantzia; eta, bestetik, egiten dena komunitateko bizitza sozialarekin lotuta egotearen inportantzia.

- *Subjektuak protagonista gisa irudikatzea,* eragile gisa, eragile aktibo eta esanguratsu gisa. Ildo berean, parte hartzeko uneak eta guneak edozein pertsona zein kolektiborentzako

aukera berdintasuna eskaini behar du. Parte izateko aukera (parte/lekua/presentzia/ahotsa) izatea, parte sentitzea eta parte hartzea, denak ziurtatuz. Talde edo komunitate izaerari eta sentimenduei lotuta dauden prozesuak izatea, aldaketa errealak eragiten dituen, benetako beharrak eta interesak abiapuntu harturik.

- *Parte hartzeak ikaskuntzarako aukera eman behar du.* Partaidetasuna, horrela ulertuta, ez da berez gertatzen. Batez ere, gizartean nagusi den eredu bestelakoa dela aintzat hartzen badugu. Partaidetasuna ez da eskubidea soilik, ikaskuntza ere bada, inork ez baitaki berez parte hartzen edo partaide izaten. Partaidetzan oinarritutako egitasmotan parte hartzen duten elkarte, erakunde, eskola, kolektibo zein herritarrek bi norabidetako ekarpena izan behar dute: batetik, bakoitzak beretik egitasmoari egiten dion ekarpena, eta, bestetik, egitasmoan sortzen denak partaide bakoitzari egiten dion ekarpena. Partaidetza eraikuntza gisa irudikatu behar dugu, norbere auzoa, herria, proiektua eraikitzeko lanabesa izateaz gain, norbanakoaren izaeraren eraikuntzan ezinbesteko ezaugarri moduan.

Aberastasun handiena subjektu-protagonista-partaideak eta prozesua uztartzen diren puntu horretan aurkitzen da; izan ere, errealitateen gaineko ikuspegi anitzek prozesua aberasten dute, eta parte-hartzeak ikasteko aukera bihurtzen du gatazka. Ondokoaren errekonozimendutik eta aukera berdintasunetik abiatzen den eraikuntza kolektibo eta pertsonal gisa pentsa dezakegu parte-hartzea, horrenbestez. Esandakoak aintzat hartuz, elkarrengandik eta elkarrenganako ulermenerako, eztabaidarako eta elkarrizketarako espazio erosoak eskaini beharko lituzkete partaidetzan oinarritutako egitasmoei.

- *Ilusio eta harreman-sareen sorgunea ere izan behar du.* Partaidetza eta inplikazioa hertsiki loturik ulertzen ditugu; indibidualismoa gainditu bide, pertsonak bere baitatik harago sare komunitarioaren parte sentitzea dugu xede. Hots, haur eta gazteak, adibidez, eskola barruan nahiz kanpoan,

norbere buruaz eta besteekin konprometitzea, inplikazio aktibo horretatik ikasi ahal izateko. Parte hartzeak elkar ezagutza eta elkarrizketa ere bermatu behar ditu, eta horrek harremanen garapenean izan behar du eragina, kolektibo ororen harreman sarea zabaltzeko aukera eskainiz. Freirek zioen bezala: «Besteekin elkartzean pertsonak esnatu egiten gara, eta neurri horretan ezagutzen dugu elkar. Ezagutzean, ekintzarako argitasuna pizten zaigu, eta ekiten diogu, eraldakuntzarako subjektuak garelako konbentziturak».

## **Nondik has gaitzke bidea urratzen? Eskola eta herria subjektu politiko eta hezitzaile gisa**

*Eskola (hezkuntza eskubideak, kalitatezko hezkuntza eta marko inklusiboan kokatua)*

Partaidetzaz eta hezkuntza jardun askotarikoak gurutzatzen diren eremuaz ari garela, eskola bera gune garrantzitsu gisa aurkeztu nahi dugu. Era naturalean jendea elkartzeko gune esanguratsua izan daiteke; herritar guztiak leku izango duten eremua, eskolara sartu orduko herriarekin lotura eta kone-

Partaidetzaz eta hezkuntza jardun askotarikoak gurutzatzen diren eremuaz ari garela, eskola bera gune garrantzitsu gisa aurkeztu nahi dugu

xioak sentitzen diren espazio irekia, bertan 'bizi' direnek herriarekiko lotura afektiboa agertzen dutelarik, eta eguneroko jardunean eremu ugaritan esanahi-esangura eta forma aldetik eraldaketak bultzatu eta bizitzeaz gain, ikastearen definizio jakin batetik abiatuz, herritarrak bizitzarako, bizitza deskubritu, ulertu, ikertu eta eraldatu ahal izateko besteekin batera hezteko helburu-

tzat duen gune gisa irudikatu dezakegu, zeinak herriarekin konexioan jarriko dituen ikaste prozesuetan inplikaturako pertsona guztiak.

Inklusibotasunerako bidean, haur eta gazte guztien hezkuntza eskubideen bermea xede gisa harturik, kalitatezko hezkuntzaren beharretik abiatzen gara, kalitatea bazterketa eza ziurtatzeko elementu gako gisa ulertuz. Partaidetzak, finen, aniztasunaren onarpenari eta aitortzari erantzuten dio, horren atzetik pertsonak ulertzeko moduak daudelarik. Ez bakarrik pertsonak, baita heziketa-guneen xede eta funtzioak ere. Partaidetzan oinarritzeak eskola bera ikaskuntza eta partaidetzarako komunitate gisa irudikatzen eramateen gaitu, non bertan eraikitzen diren harreman guztiek justizia, elkarrekiko zaintza, kritika, ardura eta konpromisoa duten oinarri.

Aurrerabideen bila ari garen honetan, arreta ikaste-irakaste prozesuetan jarri behar dela uste dugu. Hezkuntza arloko profesionalok heziketa-ingurunean dauden premia eta aukeren inguruan gogoeta egitekin hasia ariketa interesgarria litzateke, estrategia berriak aktibatu eta ikastetxe nahiz hezkuntza zentroetan ekintzara pasa ahal izateko. Proposamen eraldatzaile eta berritzaileak planteamendu metodologikoei lotuta etorriko direla esatera ausartuko ginateke.

Ikasle guztien garapen indibidual eta kolektiboari erantzun ahal izateko, berrikuntza planteamendu metodologikoetan egin beharko litzateke. Ikasle guztien garapena bultzatuko duten ikaste-testuinguru egokiek nagusitu beharko lukete; hau da, ikasle guztien garapen integrala ahalbidetuko duten testuinguru/egoera/arazo/eszenatokiak behar ditugu (testuinguru horiek eskolatik kanpo ere egon daitezke; gaur egun ekintza asko ikastetxeetan kokatzen diren arren, beste hainbat ekintza hezitzaile komunitatean artikulatzea ezinbestekoa izango da). Ingurunearen ezagutzatik abiatuta eta horretara bideratuta, arazoren batekin motibatuta, inguruan ekintzak egikaritzuz, ekintza errealitatean gauzatzen den heinean ikaskuntzari zentzua emango dioten eta ikaskuntza eta herritartasun jarduna uztartuko dituzten planteamendu metodologikoetatik tiraka jarraitu beharko genuke. Horren eredu ditugu, besteak beste, arazo eta proiektuetan oinarritutako metodologiak, eta baita ikaskuntza-zerbitzua metodologia ere. Beraz, hainbat

leihu zabalik ditugu berrikuntza metodologikoari eusteko eta lanean jarraitzeko egiazki ikasleen protagonismo eta partaidetzan sinesten baldin badugu, planteamendu metodologiko horiek erantzuten baitiete partaidetzarekin lotuta azaldu diren printzipio politiko eta pedagogikoei.

*Herria (subjektu politikoa eta komunitatearen dimentsio hezitzailea)*

Ukaezina da azken hamarkadetan gure herri eta hiriek egitura eta antolamenduan jasan duten eraldaketa. Horrek, gainera, bizitza sozialaren alderdi askotan izan du eragina, bizitzeko, harremantzeko eta hezteko moduetan eraginez, besteak beste. Badago egon gaiarekiko kezka; horren lekuko, egun bizi-bizirik dauden espazio publikoen gaineko eztabaidak, generoaren eta segurtasunaren ikuspegitik egiten diren lanak, eta hirien antolamendu prozesuetan herritarren parte-hartzeari lotuta garatzen diren esperientziak, esaterako. Bizi dugun errealitatearen aurrean, hezkuntza esparruan badaude asaldatzen gaituzten hainbat gai eta galdera: zein baliok gidatzen dute egun gure bizimodua? Heziketa lana neutroa ez den heinean eta izaera politikoa duen neurrian, horrek guztiak ba ote du zerikusirik egungo politika ereduarekin? Eta horren guztiaren aurrean zein paper jokatzten dute eskola, familia eta gainerako sozializazio agenteek egun? Zein esanahi eman nahi diegu gure herriei?

Galdera horiei erantzuna ematerakoan, herri eta hirien antolamenduaz harago, komunitatearen beraren subjektu izatean eta duen dimentsio hezitzailean jarri nahi dugu arreta. Gure herriei esanahi berria emateko beharra ikusten dugu, eta birdefinizio ariketa horretan, herriaren subjektu izaera eta dimentsio hezitzailea erdigunean kokatzea interesgarria iruditzen zaigu. Auzoan, kalean, ludotekan, udalekuan eta abarretan izandako esperientzia hezitzaileak ezin dira pertsonon ikaste prozesu eta garapen integraletik baztertu.

Herri eta hiriak guztiontzako hobeak izateko eta giza garapen integrala lortzeko, funtsezkoak dira komunitatearen

partaideak eta horien parte hartzea. Komunitatearen garapena oso lotuta egongo da komunitateko kideek dituzten beharrekina eta horien arabera komunitatearen ongizatea bermatzeko sortzen diren parte-hartzerako aukera errealekin eta beharrei ematen zaien erantzunekin.

Komunitateak engaiatzeko ahalmena oinarri hartzen duen eta elkarbizitza eta izaera askotarikoak biltzen dituen komunitate ikuspegia indartu nahi da. Hortik abiatuta, erabateko garrantzia izango du kidetasuna sentitzeak, hori izango baita kide bakoitzak bestearekin sorturiko hartu-emanen, interes eta gai komunetan eragiteko gaitasunaren, kide bakoitzaren beharren integrazioaren eta erantzunaren asebetetzearen eta, nola ez, emozio-loturen ondorioz eraikiko den sentimendua. Argi dago, beraz, komunitate izaeraren muinean, harreman esanguratsuak ni eta gu loturan daudela, «besteekin nagoela sentitzen dut» eta «sentitzen naiz»-«sentitzen gara» daudela. Komunitate sentitzen gara, beraz, inplikatzeko garenean, parte hartzen dugunean eta konektatuta gaudenean. Gune natural horiek identifikatuta izan beharko genituzke.

Herri eta hiriak guztiontzako hobeak izateko eta giza garapen integrala lortzeko, funtsezkoak dira komunitatearen partaideak eta horien parte hartzea

## Gogoetarako gaiak

- Haur eta gazteen kolektiboak protagonismoa hartuz doaz partaidetzan oinarritutako esperientziez ari garenean. Haur eta gazteak parte hartzerako, kritikotasunerako, herrian erabaki-hartze gune ezberdinetan parte hartzeko heztearen aldeko aldarriak ugarituz doaz praktikan engaiatutako pertsona eta taldeen eskutik. Sarritan haur eta gazteak etorkizunarekin lotzen diren arren, herritarrak dira orainean, eta hezkuntza



egitasmoek hemen eta orain hartzen dute zentzua, eginez eta ikasiz eta, horrela, egiten ikasiz. Hala ere, horrekin lotuta, bidean jartzen garen momentutik parte hartzea zer den eta nola definitzen dugun argitzeak ere garrantzia izango du, diskurtso eta praktikaren arteko jauzi eta amu kontraesan-korretan eror ez gaitezten. Non daude haur eta gazteak erreal-ki partaide diren guneak? Non partekatzen dituzte beraien kezka/behar/amets/proiektuak? Lehenengo urrats moduan, herriko parte-hartze gune indartsu eta aktiboak identifika-tzen has gaitezke, bertatik eragin ahal izateko.

- Harremanetan oinarritutako prozesuak eraikitzearen aldeko proposamena egiten da, eta, beraz, prozesuak harremanetatik eraikitzen hastea. Abiaturuko oinarri horiek izan dezaketean garrantzia ikusirik, haur, gazte, ikasle, herritarre-kiko, orokorrean bestearekiko dugun begiradak nola baldin-tzatu dezakeen ere ikusi eta bizi ahal izan dugu esperientzia praktiko ezberdinetan. Ondorioz, besteen gaitasunetan (pentsatzeko, ekiteko, inplikatzeko, aritzeko, proposatzeko, parte hartzeko, bere ideiak defendatu eta argudiatzeko, besteekin batera eraikitzeko...) sinestetik hasi beharko genuke.

- Parte-hartzearekin lotutako egitasmo eta esperientzia ez-berdinen atzean badago egon herritar eta herriarekiko kezka; ez ditugu edonolako herri eta herritarrak nahi. Herriak beste era batera pentsatzeko eta ikusteko aukera baliatu beharko genuke, eta, horretarako, gogoetagai hauetan aurkitzen di-tugun hausnarketa kolektiborako lehenengo gakoak haue-xek dira: nolako herri eta herritarrak nahi ditugu? Zertaz ari gara herritarron ongizate eta bizi-kalitateaz hitz egiten dugunean? Hori al da gure egitasmoen xede nagusia, edo bestelako interesak daude atzetik? Herriko eragile ezber-dinon arteko eztabaidak oraindik arrotz zaizkigun arren, herri-nortasunaz, sustraiez, historiaz, lankidetzaz, auzola-naz eta bestelako balioez herriko eragileok eztabaidatu eta kontsensuak lortzea osasungarria eta ariketa interesgarria izan daiteke oso partaidetzan oinarritutako egitasmoak ga-ratzeko bidean.


- Herriak subjektu hezitzaile gisa. Hezkuntzaren begirada eta praktikak ikuspegi zabal eta sistemiko batetik begiratzeko aukera baliatu behar da. Eskola ingurunera ireki behar da, eta herriak/hiriak eskola denontzako espazio ireki gisa erabili beharko luke. Inguruko baliabide, zerbitzu, administrazio, eragileekin lan egitea, helburuak partekatzea eta azpiegitura publikoak (plazak, parkeak...) erabiltzea litzakete. Era berean, eskola eta lurraldearen arteko harremanak estutuko lirateke.

Egitasmo eta egituretatik harago, partaidetza komunitateak bere burua eraikitzeke duen gaitasuna aintzatestetik hasi behar dela uste dugu. Partaidetzak esanahi partekatua eskatzen ditu; inplikazioak bezala, parte hartzeak ere aurrez pertsonen eta taldeen arteko konexio beharra du. Hots, partaidetza ez da etorriko egituretatik tiraka, ez eta egitasmo ponpoxoei esker. Partaidetza interes edo behar komunak eta osagarriak aitortzetik, eta erantzukizun sozial horri erantzuteko espazioak, ekintzak, ulerkerak edota balio berberak partekatuz etorriko da. Beraz, egituren sorrerak edo egitasmoen zedarritzapenak ez lukete obsesio bilakatu behar. Indar handiagoa jarri beharko litzateke herriko foro naturaletan harremanetan dauden pertsona, talde edo kolektiboek egituretan ahotsa izateko ahaleginean; beraien behar eta eskakizunei toki egin eta bide ematen laguntzeko egituren osaketan. Bideak behetik gora eraikia izan behar duela ahan-tzi barik, eta partaidetzaz ari garenean herriko gunen natural horietan gertatzen den horretaz ari garela kontuan izanik.

- Udalgintza-logika berria aztergai izan behar dugu. Komunitatea eta erantzukizun kolektiboa muinean jartzen hasteko, herriek eta hiriek beraien papera zeinek izan behar duen aztertu behar dute. Paper horrek hezitzailea izan behar duen erabaki behar dute, kohesiorako, kidetasuna sentiarazteko, balioen transmisiorako –ezberdintasunarekiko errespetua, aukera berdintasuna, askatasuna...–, eraldaketarako... Berebiziko garrantzia dauka erabaki horretan hezkuntza edozein politika, plan edo zerbitzuren muinean kokatzea. Horrela, hezkuntza ikaskuntzarako tresna eraldatzaile estrategikotzat

hartuko da, gure errealitateak eraldatzeko eta eraldaketa prozesu horietatik erakundeek ere ikasiz joateko.

- Gainditu beharreko zailtasunei dagokienean, parte hartze prozesuetan erabaki hartzeak eta gauzatzeak nola kudeatu daitezkeen kezka azaltzen zaigu. Ez dugu sorgin-belarririk gai horri erantzun bat eta bakarra emateko; baina, ideia gisa, arreta fokua nola egingo dugun horretan jar dezakegula esatetik hasiko ginateke. Prozesuen aurretik urratsak diseinatu eta elkarrekin adostuz. Hots, kolektiboki erabakitzea aurrez nola egingo den talka oztopatzaileak saihesteko. Harremanetatik eraikitzearen aldeko ideiak ere berriz azaleratzen dira puntu honetan. Herriko erabaki guneetan herritarrek aktiboki eta arduraz parte hartzea baldin bada helburua, heziketan ere begirada hori txertatuz joatearen ideia ere interesgarria da. Eta aurrerabide gisa, logika instituzionalak eta logika komunitarioak aurrez aurre, mutur ezberdinetan irudikatu ditugu; beraz, aldagai horiek izan dezaketen eraginean ere pentsatzen hasi beharko genukeela uste dugu, logika ezberdinen arteko engranajea egiteko moduen bila hasi nahi baldin badugu.

Haur eta gazteen kolektiboa erreferentzia eta aitzakia gisa hartuta, jarrai dezagun bada komunitatean kolektibo bakoitzak parte hartzeko dituen aukera errealean inguruan asaldatu, kolektiboki eztabaidatu, pentsatu eta lan egiten. 

# Metamilitantzia. Herri mugimenduen baitatik gogoeta

Marta Luxán  
Andere Ormazabal  
Unai Txurruka  
Olatz Dañobeitia

*Joxemi Zumalabe Fundazioaren militantzia-ereduen  
inguruko lan-taldeko kideak*

## Egin dugun bidea

Esku artean duzun testua ez da militantzia ereduen inguruko gogoeta akademikoa, prozesu kolektibo baten emaitzen azterketa eta, horien harira, Joxemi Zumalabe Fundazioko kideek plazaratutako hausnarketa eta proposamenen laburpena baizik<sup>1</sup>. Artikuluaren abiapuntua militantzia politikoa aldaketa garaian dagoela litzateke; ideia horren bueltan, egindako prozesuaren nondik norakoak, orain arte militantziarekin lotu izan ditugun bi- zipenak, gaur egungo egoeraren diagnostia eta, aurrera begira, jorratu beharreko gakoak zeintzuk diren azter- tuko ditugu.

Joxemi Zumalabe Fundazioak, 18/98+ makrosumarioa eta gero, fase berriari ekin zion. Talde berriaren birsortze lane- tan genbiltzanok, proiektuaren helburuak finkatu aurretik, eragile ezberdinekin kontraste xumea egitea erabaki genuen. Biler horietan, herrigintzaren eremuan une hartan zeuden

zalantza eta erronka nagusien inguruan jarduteko aukera izan genuen. Eta ahots horiek, beste gogoeta batzuekin batera, herri mugimenduen antolaketa eta lan egiteko ereduaz aritzeko beharra zegoela nabarmendu zuten. Gauzak horrela, militantzia ereduaren inguruko lan ildoak martxan jartzea adostu genuen. Badakigu ez garela eztabaida gai hau jorratzen lehenak, zenbaitek aspalditik dihardute-eta aktibismoaren eredu eta erritmoaz hausnartzen; hortaz, hari mutur asko dituen lan ildo horren bueltan bildutako erreferentziak ere aintzat hartzen saiatu gara.

Militantziaren gogoeta gertukoekin eta ez hain gertukoekin batera eztabaidatu, hausnartu eta sakondu nahi genuenez, taldearen lehen urratsa gogoeta saio irekien diseinuarekin abiatu zen. 2012 eta 2013 urteetan zehar hamaika gogoeta saio egin ditugu, guztira berrehundik gora pertsonak parte hartu du. Profil ezberdineko pertsonen begirada jasotzeko ahaleginak egin ditugu; halere, jakitun gara zenbait kasutan aniztasun politikoa bermatzeko zailtasunak izan ditugula. Era berean, egun militantzian aritzen diren pertsonekin batera egindako hausnarketa duzue hau, ez baititugu gureganatu ibili zirenak baina egun ez dabiltzanak. Bestalde, euskaraz garatutako prozesua izanik, parte-hartzaile gehienak euskaldunak izan dira. Hauexek dituzue, beste batzuen artean, gogoeta horren ezaugarriak eta mugak.

Edozein kasutan, hausnarketa honek amaierarik ez duen prozesu baten hasiera baino ez du izan nahi, lan honen xede nagusia herrigintzan diharduten pertsona eta taldeen etengabeko begirada autokritikoa elikatzea baita.

Beste noizbait aipatu dugunez, militanteok identitate anitzeko unibertsoak garela aintzat hartzen saiatu gara, eta zentzu horretan gure aktibismoa *taldera* edo *bilera* eremura mugatzen den zerbait baino askoz zabalagoa dela nabarmendu nahi izan dugu. Gauzak horrela, publiko zein pribatu izendatuak izan diren horiek eremu politikoak direla aldarrikatzeaz gain, zatiketa hori alboratzeko nahia plazaratzen dugu.

## Saihestu eta indartu beharrekoak

Zeintzuk dira militantziaren indargune eta ahulgune nagusiak? Zer gertatzen ari da aktibismo politikoarekin? Zertan jarri arreta? Zer dugu hobetzeko? Galdera horiek izan ditugu tailerretako egituraren oinarri eta jasotako emaitzen iturburu. Talde dinamikak bidelagun, pertsona guztien iritziak ahalik eta modu erosoenean jasotzeko ahalegin berezia egin dugu. Buruak eta gorputzak astinduz, bi ariketa nagusi planteatu ditugu saio bakoitzeko. Batetik, bakarkako gogoetan militantziaren gaziak eta gozoak identifikatzea, eta, bestetik, talde txikietan aurrera begira indartu eta saihestu beharreko elementuak adostea.

Laburki bada ere, saioetan agertutako ideiak hona ekarri nahi genituzke, horien bitartez orain arte izandako parte-hartze politikoaren nolakotasunera hurbil gaitzkeelakoan. Izan ere, dinamika horiek aldatzen ari dena eta eraldatu nahi duguna identifikatzeko oso baliagarriak suertatu zaizkigu.

Hasteko, hel diezaiegun parte-hartzaileek aldatu edota saihestu nahi dituzten elementuei. Jasotako emaitzak lau ataletan sailkatu ditugu: 1) eredu zurrinak eta derrigortasuna, autoritarismoa, ghattizazioa; 2) botere harreman asimetrikoak; 3) taldeen finantziazioa; eta 4) frustrazioa.

Eredu zurrunen inguruko aipamenak oso ugariak dira eta, besteak beste, horrelako hitzak aurki ditzakegu: *deshumanizazioa*, *makinizazioa* edota *ekarpen totala edo ezer ez logika*. Sakrifizioan oinarritutako militantzia eredia hegemonikoa izan dela diote eta, horrekin batera, militantzia eta bizitza eremu banatu eta bateraezinak direlako ideia gailendu dela. Botere harremani dagokienez, bertikaltasuna, sexismoa, rolen gogortzea, lan banaketa iraunkorrak, botere harremanak ez esplizitatzea eta abarrekoak agertu zaizkigu. Finantziarioari dagokionez, sarritan dirua helburu bilakatzen dela eta herri mugimenduen dinamika erabat baldintzatzen duela azpimarratzeaz gain, berrikusi beharreko bi afera markatu dituzte: liberatuen gaia eta diru-laguntzekiko menpekotasuna.

Bukatzeko, frustrazioarekin lotuta, helburuak ez betetzea, plangintzan aurreikusitakoa espero ez bezala ateratzea, nekea, kontraesanak eta mintzen duten bizipenak ez lantzea zein balio negatiboetan tematzea aipatu dituzte.

Baina badira ere indartu nahi diren elementuak: 1) errespetua eta elkar zaintza ardatz izanik, harreman pertsonalen lanketa; 2) formazioa, kritikotasuna, irakaspena, esperientzia; 3) talde dinamika osasuntsuaren garapena; eta 4) ikuspegi eraldatzailea elikatu eta indartzea.

Gazi eta gozoen artean, bietan, kidegoaren sentimendua eta zaintza azpimarratu dituzten bezala, nabarmentzeko elementuen artean elkar zaintza eta harreman pertsonalen lanketa agerrarazi dituzte. Partaideen arabera, taldekideen arteko harremanek eragin zuzena dute proiektuen eta lan ildoen emaitzetan, eta, horrexegatik, motibazioari, gogoari eta bestelako aspektuei arreta berezia jartzeari garrantzitsua deritzote. Talde giroa, kideasuna edota afektibotasuna aurrerantzean gehiago eta bereziki sakondu beharreko elementuak direla adierazi digute.

Ezinbestekotzat jotzen dute, era berean, parte-hartze politikoa ikasteko aukera –bizitzarako eskola eta garatzeko bidea delakoan–, kritikotasuna eta balio kolektiboak bultzatzeko beharra, formazioa potentziatearen garrantzia eta sormena garatzeko espazioak zabaltzea. Horrekin batera, talde dinamika osasuntsuaren garapenari arreta berezia jarri beharko geniokeela diote. Hau da, kolektibotasun eredu berri eta osasuntsua bultzatearen beharra, norbanako eta taldearen arteko oreka, erritmo eta inplikazio maila ezberdinei tartea irekiz, askatasuna, autonomia eta konfiantza bermatuko dituen giroa sortuz.

Ikuspegi eraldatzailearen harira, erresistentzia ikuspegi-tik sortze ikuspegi batera jauzi egiteko premiari buruz aritu dira, hausnarketarako zein jarduera politikoetarako tresnak berrikusteko beharra azpimarratuz. Amaitzeko, txikitasunetik handitasunera, tokian tokiko hurbileko arazo eta errealtate-tik abiatzearen garrantzia nabarmendu dute.

Ekarpen horiek guztiak oinarriztat hartuz, militantziaren ereduaren inguruko gogoeta abiatu eta gaur egungo egoeraren inguruko diagnosa, gure argazkia, jorratzeari ekin diogu. Gogoeta horretan bost ardatz landu ditugu nagusiki: militantziaren ulerkera, kideen eta kidegoaren zaintza, boterearen ulerkera, sexu-genero sistema irauliz militantzia eredu eta eremuetan, eta, azkenik, antolatzeke eta lan egiteko modua.

## **Gaur egun, non gaude? Militantziari egindako argazkiaz**

Tailerretako emaitzek zer adierazten digute? Lehenengo eta behin, militantzia politikoa aldaketa garaian dagoela. Jendar-tea zein militantzia une oro aldatzen ari direla jakin arren, eraldaketaren nolakotasuna azpimarragarria dela nabarmendu dugu, militantziaren ulerkera bera mudatzen ari delako.

Egun, bi mutur edo paradigmaren arteko dantzan eta tentsioan murgilduta gaudela sumatu dugu. Mutur batean, sakrifizioaren kontzeptua jasotzen duen eredu dugu, *egin behar da* eta *tokatzen da* logikei erantzuten diena. Abiadura eta konpromiso handiko eredu, baina galera handien eragilea ere bai. Izan ere, isolamendua, berdinen arteko harremanetara mugatzea, neke fisiko eta mentala, diziplina denaren gainera egotea edota norberaren izaera eta beharren desagerpena ditugu sarritan militantziarekin lotutako bizipenak.

Beste muturrean, bizipozen kontzeptuak leku handia hartzen dueneko dugu. *Nahi dudanean, nahi dudalako eta nahi dudan bezala* logikaren xerka dagoen eredu. Asetasunari, poz iturriari eta beste bizi esparruekiko orekari erreparatzen diena.

Bakoitzak zer du derrigorretik eta zer askatasunetik? Militantzia politikoa inperatiboz jositako eremu izatetik

Tailerretako emaitzek  
zer adierazten digute?  
Lehenengo eta behin,  
militantzia politikoa  
aldaketa garaian dagoela



norberaren hautu eta kontrolaren gain egongo den eremu izatera igarotzeko gogo nabarmena da. Interes kolektiboen izenean interes pertsonalak ez desagerraraztea aldarria bilakatu zaigu. Aitzitik, norberaren eta taldearen interesak zein konpromisoa lotzeko unean, gatazka eta hautu ezberdinak atzeman ditugu. Tentsioz betetako uztarketa konplexuaz ari gara, etengabeko itaunketaz. Talka horretan, nork agintzen du? Noiz ari gara interes eta oreka pertsonalez eta noiz konpromiso faltaz?

Aldaketa hori, bestalde, askotarikoa dugu erritmo, norabide eta eratan. Guk bi polo edo mutur irudikatu ditugu, eta bi mutur horien arteko tentsioan, dantzan ari garela iruditzen zaigu, jarrera anibalenteekin sarri. Ez da mutur batetik bestera doan bide lineala, bidegurutzez osatutako espazio zabala baizik.

Aldaketa ez dugu, gainera, pertsona eta eragile guztiek ezinbestean beteko duten prozesua; izan ere, iraganean parte hartze politikoa ez da modu bakarrean bizi eta ulertu, eta, dakigunez, une soziohistoriko bakoitzeko mundu mailako paradigmek eragin ezberdina izan dute kide, eragile eta familia politiko bakoitzarengan. Beraz, ez gara hasiera eta bukaera zehatzak dituen prozesuaz hitz egiten ari.

Aldaketaren nolakotasunaz harago, aldaketa hauspotzen ari diren gakoei dagokienez, ezin iturri bakarrera jo. Herri mugimenduen urtetako bideak eta belaunaldiz belaunaldiko transmisio eta esperientzia propioek metatutako jakintzak eragina izan dutelakoan gaude. Hala ere, bizi dugun testuinguruari erreparatzea ezinbestekoa dugu, maila mikro zein makroan jazotako aldaketek eta gizarte joerek eragina izan dutelakoan baikaude. Euskal Herritik harago, beste mundu, herri eta bizitza askeagoen alde lan egiten duten mugimendu politikoek egin dituzten bide historikoak –izandako lorpenak eta akatsak– paisaia berria margotu digute, eta egindako urrats horien ondorioak gure artean ere suspertu dira.

Gurera etorritz, Euskal Herriak bizi duen gatazka politikoari eta bertan bizitako fase ezberdinei lotutakoek bere

pisua dutenik ezin ukatu. Horretaz gain, gizarte ordena eta antolakuntza asko aldatu da azken hamarkadetan; harreman-tzeko moduak, komunikazio kanalak, balio sistema eta, oro har, bizi ereduak nabarmenki mudatu dira. Funtsean, beste eszenatoki eta beste aktore batzuekin topo egiten ari garela nabarmendu behar dugu. Eta horren guztiaren ondorioz, elkarrekintzarako modu eta abiapuntu berriak erdituz doaz.

Azkenik, militantzia politikoaren izaera eta ulerkeria deritzogun pantailaren atzean, nolako gakoak agertzen zaizkigu? Arestian aipatu dugun moduan, guk, militantzia gidatzen duen etikari lotutakoek gain, identitatea, sexu-genero sistema, denbora, harremanak eta profesionalizazio zein instituzionalizazioari lotutakoak identifikatu eta landu ditugu. Azter ditzagun.

*Identitatea.* Militantzia politikoa bizitzaren zentzua eta identitatea eraikitzen duen elementuetako bat dugu. Maila ezberdinetan bada ere, munduan egoteko moduaz ari gara, inguru hurbil eta urruna ulertzeko moduaz, harremanak izateko edota sentitzeko moduaz. Hori guztia pertenezkoa sentimenduari oso lotuta agertzen zaigu, 'gu'-a osatzearekin; horrexegatik, pertsonon subjektibitatean eragin handiko elementu dela nabarmendu dugu. Dena dela, militantzia politikoa ez da identitatearekin harremanetan den gako bakarra. Biografietan leku nabarmena hartzen duen arren, beste eremu batzuekin konektatuta dago, eta horrek ondorioak ditu.

Alde batetik, militantziari lotutako identitate ezaugarriak eta beste ezaugarrien arteko oreka/desoreken aldaketa. Gaur egun, esparru bakoitzak zer leku betetzen du gure identitatearen eraikuntza prozesuetan? Jendarteak jasandako aldaketek nola eragiten diete oreka/desoreka horiei? Eta militantziaren balorazio sozialak?

Bestetik, identitate ezaugarri ezberdin horien arteko harreman eza dela eta, batzuetan militantziaren eta bizitzaren beste esparru batzuen arteko talka suertatzen da. Bukatzeko, militantzien arteko talkak ere aipatu behar ditugu, batez ere talde ezberdinetan aritzen diren pertsonen artean; horren

adibide argia da talde feministetan eta bestelako taldeetan parte hartzen dutenen egoera.

*Denbora.* Denbora eta denborarekiko buruhausteak erdigunean kokatu beharreko elementuak ditugu. Denbora azterterakoan, bi dimentsio jorratu ditugu: ibilbide biografikoa eta eskasiaren pertzepzioa.

Ibilbide biografikoari dagokionez, ondoko korapiloa indar biziz mintzatu zaigu: norberak moldatu behar du militantzia erritmorra, ala militantzia erritmoa norberaren bizi erritmoetara moldatu behar da? Halaber, bigarren hautuarekiko desio aseezin handia sumatu dugu, kontrako norabidean doan inertzia indartsuari aurre egin ezinik. Lehen hautuak, izan ere, militantzia osasun eta energiaz lepo eta ustezko ardu-retatik aske gauden arora lotzeko arriskua dakar, gaztarora, alegia. Soldatapeko lana edota zaintza lanen biderkatzea militantzian aritzeko oztopo gisa bizi dira. Eta obligazio moduan sentitzen den arren, albo batera uzten den lehena izaten da, erruduntasun sentimenduak eragiteraino.

Denbora eskasiaren pertzepzioari dagokionez, bi gako azpimarratu nahi ditugu. Bata, egungo gizarteak eragindako denbora eta espazioaren hausturak sortutako galera. Lana,

Norberak moldatu  
behar du militantzia  
erritmorra, ala  
militantzia erritmoa  
norberaren bizi  
erritmoetara moldatu  
behar da?

hezkuntza formalerako tokiak, aisialdia, sozializazioa, bizitokia... Denboran eta tokian bat egitea nekeza da. Horien arteko urrunketak, beste faktore batzuekin batera, egunerokoa maratoi amaiezin bihurtzen du sarri, bereziki emakumeentzat. Horrek guztiak parte hartze politikorako baldintzak kamusten dituelako sentimendua zabala da. Hots, kapitalismoaren abian bizi eta

militatzen dugun honetan, parte hartze politikoa ito larrian bete beharreko beste gauza bat gehiago bihurtu zaigula. Hau da, militantzia-denbora denbora propio gisa bizi dugu ala

kentzen diguten denbora lez? Eta hori, halaber, egunerokoan garatzen ditugun jardueri aitortzen diegun garrantziarekin lotzen da, horren arabera antolatu eta hierarkizatzen baitugu gure denbora. Zentzu horretan, militantzia ordu eta leku zehatz bat duen eremu bihurtzen zaigu nahi gabe. Eta hona hemen horretaz guztiaz dugun proposamena: militantzia integralagoa garatze aldera, militantzia, gauza bakoitzerako leku eta ordu zehatz eta ezberdindua duguneko gizarte antolaketa honetan, zatiketa eta bereizketa horiek josteko orratz posible moduan birpentsatzeko erronka.

Azkenik, denbora eragiteko ahalmenarekin edo boterearekin lotuta ere agertzen zaigu. Pertsona orok 24 ordu ditugun arren, denok ez daukagu denbora-aurrekontu berbera. Egoera sozioekonomikoak edota genero rola, adibidez, eragin nabarmena dute denbora aurrekontuetan.

*Sexu-genero sistemaren<sup>2</sup> eragina.* Sistema hori gizarte antolaketa ardatz izanik, parte hartze politikoa bera ere erabat zeharkatzen duela nabarmendu nahi dugu. Mugimendu eta kolektiboetara hurbiltzeko prozesutik hasi eta horien barruan izango dugun ibilbidea, talde barruko antolaketa beteko dugun papera eta izango dugun ardura... Horiek guztiak ditugu sexu-genero sistemak zeharkatzen dituen gaiak. Are gehiago, militantzia eremuetan sistema berrelikatzen da; guk geuk, gure egiteko moduekin, berrindartzen dugu.

Parte hartzeari dagokionez, sexu-genero sistemak, emakumeon parte-hartzea zailtzeaz gain, askotan emakumeon ekarpenak isilarazten ditu. Horrekiko begirada izatearen premia berria ez bada ere, bide horretan ibilbide luzea egitear dagoela ikusi dugu; horrek militantziaren aniztasun eta indar politikoetan eragin kaltegarriak eta zamatsuak dituela azpimarratu nahi dugu.

*Egitura instituzio bihurtua.* Ibilbide luzeko eragileen egiturak *instituzio* bilakatzen direlako fenomeno. Urteen poderioz, erritual, errutina eta kolokan jarri ezin diren arau ez esplizituak garatzeko joerak agertzen dira, eta horrek eragin negatiboa du kideen asetasun mailan. Muturreko egoeretan,

eragilea bera helburu bilakatzen da eta *instituzioaren* pisuak potentzial politikoa ahultzen du.

*Profesionalizazioa.* Militantzia ordaindutako lana bihurtzen denean edota profil profesional bati lotzen zaionean, militantzia ulertu, bizi eta garatzeko moduan eraginik baduela konfirmatu dugu. Ez dira gutxi horren inguruko kezka eta ezinegonak; askatu gabeko korapilo zail eta mingarria dela dirudi. Eragileen bizitza politikoa eta kideen arteko harremanak zein esanahiak sortzeko prozesu kolektiboetan eragina izaten ari den fenomeno dela nabarmendu nahi dugu.

*Harremanak erdigunean.* Pertsonen arteko harremani eta talde mailako harreman dinamikei geroz eta arreta gehiago eskaintzeko gogo nabarmendu dugu arestian. Horrek militantziaren sostengarritasunean eta asetasun mailan duen garrantziaz jabetzeko prozesua, barrura zein kanpora begira, abian dela baieztatzen digu. Alde batetik, emozioei, sentimenduei, zaintzari, ulermenari eta errespetuari leku eta tarte handiagoa egiten zaie, talde bizitzetan gauzatu ohi diren botere harreman asimetrikoak eta *makinizazio* prozesuak gainditu nahian. Bestetik, antolatu gabeko kideekin eta jendarteko gainontzekoekin harremantzeko zailtasunak topatu ditugu, parekoen arteko harremanetatik harago joateko, pertsona ezberdinak ezagutu, elkar ulertu eta elkarlanean aritzeko ezintasunak, alegia.

## **Gure proposamena: zeri heldu?**

Aktibismo politikoa ulertzeko, bizitzeko eta praktikatzeko modu *estandarrik* ez dagoela berretsi dugu prozesu honetan. Hots, errealitatea modu kolektiboan eraldatzeko praktikak ez zaizkiola halabeharrez eragile bateko kidetasunari lotzen, ez eta une eta gune zehatz bati ere (militantzia digitala, edota enplegua militantzia gisa eraiki duten aktibistak, kasu).

Gure lan honek, hala ere, bereziki eta batez ere taldetan antolatuz jarduten duten militantzia ereduak izan ditu hizpide eta aztergai. Eta, ondorioz, aktibismo politikoak talde

bizitzan funtzionatzeko moduekin dituen loturei erreparatu diegu. Baina zer dela-eta barnera begirako eremu horri erreparatzeko lehentasuna?

Motibazio ideologikoez harago, badira gure militantziaren bidez asetzen ditugun pertsonon oinarrizko beharrak: talde baten partaide sentitzea edo identifikazioa, onarpen soziala, baliagarri sentitzea, sortzaille izatea, jendarteratzea. Beraz, helburu politikoen lortze mailaz gain, gure militantziaren kalitate-maila talde dinamika eta bizitzari erabat lotuta dagoela aldarrikatzen dugu. Talde barneko giroa, harremanak, funtzionatzeko moduak ere

Helburu politikoen lortze mailaz gain, gure militantziaren kalitate-maila talde dinamika eta bizitzari erabat lotuta dagoela aldarrikatzen dugu

politika dira, eta horiexek politizatzeak militanteon eta taldearen ongizatean zein eraginkortasunean eragina izango du.

Maiz, proiektuaren helburu politikoetatik eratoritzen diren dedikazioa eta premiak, horiek gauzatzeko osatu dugun taldearen ezaugarriak eta norbanakoen behar eta nahiak ez datoz bat. Eta beharrezkoa da, gure ustez, konpromiso antolatua gugandik eskatzen duenaren eta horrek eragiten digun ajetasunaren artean oreka egotea, bestela militantzia ez delako jasangarria suertatzen.

Desoreka horiek, ordea, uste baino sarriago gertatzen dira taldeetan, eta ez dira ustekabeak. Izan ere, egungo gizarte ordena honen kosmobisio, balio eta zapalkuntza oro uste baino errotuago ditugu gure zein pertsonen arteko harremanetan. Are gehiago, sarri, hori horrela izango ez balitz bezala jokatzeko dugu.

Baina bizitza (eta, beraz, gure taldeetako bizitza) osatzen duten denbora, espazio, pertsona, lan eta funtzioak zein identitateak zatikatuta eta hierarkizatuta aurkezten zaizkigu. Eta ohikoa izaten da, adibidez, herri eragile askotan espazio publikoa pribatuaren gainetik agertzea (lehena soilik

politikotzat joz), lan banaketa sexuaren arabera gauzatzea eta produktibo/erreproduktibo dikotomia elikatzea (bata baloratu eta ikusgai agertuz, eta bestea ez-baloratu eta ezkutuko), edota lana eta plazera bateraezinak bailiran bizitzea (militantzia, bilera edota manifa ondo pasatzeko eremuak ez bailiran).

Militantzia, aitzitik, horretaz guztiaz ohartzeko, hausnartzeko eta eraldatzeko praktika gisa ere irudikatzen eta aldarrikatzen dugu guk, bide batez, militantzia gure baitan dagoen sistema kapitalista heteropatriarkala deseraikitzeke tresna bihurtuz eta eraldaketa soziopolitikoan izan dezakegun intzidentzia biderkatuz.

Beraz, prozesuek emaitzetan garrantzi handia dutelakoan, egin nahi duguna zer den zehazteaz gain, nola gauzatuko dugun pentsatzea derrigorrezkoa dugu. Gauzak horrela, nolakotasunaren garrantziaren bueltan eraiki dugu gure proposamena, talde barruko bizitzari begira jarri eta 1) talde-autokontzientzia landu, 2) aniztasuna aitortu eta landu, 3) botere asimetriei heldu, 4) norbera, taldea eta proiektua zaindu, 5) subjektuaren eraikuntza helburu bilakatu, 6) osotasuna garatu eta 7) proiektua gaurdanik bizi.

*Talde-autokontzientziaren lanketa.* Taldeak talde bizitza propioa du. Eta talde bizitza gure arteko elkarrekintzek, harremanek, arau esplizitu eta ez esplizituek, ideia multzoek, balioek eta jarrerak osatzen dute. Taldearen autokontzientzia lantzeaz dihardugunean, horiek guztiak eremu ez ikusgarritik ikusgarrira atera eta lantzeaz ari gara, modu kolektiboan heltzeaz eta aztertzeaz, beharrezkoak diren aldaketak abiatzeaz. Esaterako, zein da gure taldean gailentzen den balio sistema? Bat al dator gure proiektu politikoarekin? Zer nolako ondorioak ditu?

*Botere asimetrien lanketa.* Zapalkuntza-sistema askotarikoa dugun heinean eta zapalkuntzek elkar elikatzen duten heinean, gutako bakoitzak argazki edo objektibizazio ezberdina gorpuztuko du. Bestalde, zapalkuntza ez da soilik estutzen gaituen zerbait, baizik eta askotan gure jarreraren, harremanen eta bizitzeko moduen bitartez birsortzen dugun zerbait.

Zentzu horretan, gure portaeren ondorioak kontzienteki aztertzeari eta autokontzientzia garatzeari oso garrantzitsua deritzogu. Bitartekorik ipini ezean, hegemonikoa dena berrelikatzen baitugu, zapalduak izateaz gain zapaltzaile bilakatuz.

*Aniztasunaren aitortza eta lanketa.* Talde-autokontzientzia lantzeak gutako bakoitza berdina ez garela ohartzera eramango gaitu. Gaztelaniak badu gure hizkuntzak ez duen ñabardura lagungarria, 'diferencia' eta 'desigualdad' ezberdintzen dituela. Gurean ezberdintasuna bi ezagueretan erabili ohi dugu, bi horien arteko nolakotasuna lausotuz.

Lehenengo eta behin, talde bereko kide izateak eta proiektu bera partekatzeak berdintzen ez gaituela ohartzeko gonbita egin dugu. Ez gaitu berdintzen ezaugarri-identitate-interesekiko, ezta aukera-eskubide-gaitasun-ahalmenekiko ere. Beraz, gure artean asimetriak eragiten dituzten faktoreak gure arteko harreman eta jardunean lantzeaz gain, gure artean gauzatzen diren ezberdintasunak onartu eta aitortzearen aldeko proposamena egiten dugu. Izan ere, sarri homogeneizatzeko joera izan ohi dugu. 'Gu'-a osatu beharrak 'gu' hori berdindu eta homogeneizatu egiten du eta, bide batez, 'gu' horren barruan ez daudenak 'haiek' bilakatzen ditu.

*Norbera, Taldea eta Proiektuaren zaintza.* Norbera dena, Taldea dena eta Proiektua dena, esan bezala, ez da erraza ezberdintzen. Taldea gu gara, proiektua gu gara... Ni taldeak egiten nau. Ni proiektuak egiten nau. Denak bizi gaitu. Zentzu horretan, hiru entitate horiek zaindu beharrekoak ditugu. Proiektuaren, taldearen eta norbanako ezberdinen ongizate eta garapena lehentasunezko eginbeharra dugu.

*Subjektuen eraikuntza helburu bilakatzea.* Jendarte eredu honek bizitza, bizipen, sentipen eta eragiteko ahalmena dugun subjektu gisa ukatzen gaitu. Gure helburua, beraz, subjektu kritiko eta sortzaileak eraikitzea ahalbidetuko duen praktika eta formazio prozesu integrala bultzatzea da. Esparru orotan ulertzeko, proposatzeko, eragiteko eta ekiteko gaitasunak lantzea dugu zerumuga. Zentzu horretan, subjektu/objektu, jakitun/ez jakitun, emaile/hartzaile, teoria/praktika,



arrazoimena/gorputza dikotomiak deseginez eta logika linealak gaudituz, prozesuaren logikari eutsi eta boterea eraitzeari ekin beharko genioke, ahalduntze indibidual eta kolektiboaren bidean aurrera eginez.

*Osoatasunaren lanketa.* Razionaltasuna eta gorputza/sentipenak, lana eta gozamina, bizitza pertsonala eta bizitza militantea, publiko eta pribatua banatzen dituen logika gainditze bidean ipiniko dituen harremantzeko, lan egiteko eta antolatzeako erak erditzearen beharraz ari gara.

Non hasten da militantea eta non amaitu pertsona? Banaketa hori egiterik ba al dago? Militantzia ate batzuetatik barrura eta ordu zehatzetan, ekintza eta aktibitate zehatz batzuei loturiko jardueratzat al dugu? Militante/pertsona guztien eremu oro ez al dira lan politikorako esparruak?

Subjektu politiko osoak izateko bide horretan, eremu oro dira politikoak eta borrokagai. 24 orduko militantzia, disposizio eta prestasunean ulertu beharrean, munduan egoteko, bizitzeko, ekiteko modu banaezina eta iraunkorra dela proposatzen dugu.

*Proiektua gaurdanik bizitzea.* Taldearen proiektu politikoa urrun eta bandera handien atzean dagoen gauza ukiezin izateari utziz, guk geuk egunero gorpuztu eta bizi beharreko esperientzia dela azpimarratzen dugu. Oro har, deseraikitze eta eraikitze prozesu horiek gugandik abiatu ditzakegula norberaren zein talde bizitzan. Inposatutako eredu hori jasanezina egiten zaigun heinean, kate horietatik askatu eta beste bizi eredu batzuen arabera gaurdanik bizitzearen aldeko apustua aldarrikatu nahi dugu, amesten dugun mundu, herri eta bestelako bizitza hori gaurdanik bizitzera ausartzeko gonbita luzatu. Zentzu horretan egin beharreko deseraikuntzak asko eta konplexuak direla jakitun, militantziak berak urrats horretan kolektiboki abiatzeko gonbita osatu beharko lukeela da guk proposatzen duguna. 🌱

### **Oharrak**

1. Informazio eta zehaztasun gehiago nahi izatekotan, ikus Joxemi Zumalabe Fundazioa (2014).
2. Zenbait egilerentzat, sexu-genero sistemaren proposamenaz harago jo beharko genuke, eta sozialki eraikitako generoak sexu eraikuntzan zer nolako eragina duen aztertu, besteak beste. Sexu-genero sistema erabiltzen badugu ere, ekarpen horiek oso interesgarritzat jotzen ditugu eta ez ditugu alboratu nahi.

### **Bibliografia**

- Álvarez Moles, Pili (2012). *Movimientos sociales, relaciones de género y cultura. El caso de los gaztetxes en Euskadi* ([www.emakunde.euskadi.net/u72-20010/es/contenidos/informacion/pub\\_publicaciones/es\\_def/adjuntos/B-3\\_2011.pdf](http://www.emakunde.euskadi.net/u72-20010/es/contenidos/informacion/pub_publicaciones/es_def/adjuntos/B-3_2011.pdf)).
- Geure Buruak Zainduz (2013). 'Geure buruak zainduz. Militantziari eta oreka emozionalari buruzko hausnarketak'. *Ekintza zuzena* 40 (gaztelaniazko bertsioa: <http://primeravocal.org/cuidandonos-cuidandonuestras-cabezas>).
- Joxemi Zumalabe Fundazioa (2014). *Dabilen harriari goroldiorik ez*. Bilbo: Joxemi Zumalabe Fundazioa.
- Martínez López, Miguel Ángel; Lorenzo Vila, Ana Rosa (2005). *Asambleas y reuniones. Metodologías de autoorganización*. Madril: Traficantes de Sueños.
- Vercauteren, David; Crabbé, Olivier; Müller, Thierry (2010). *Micropolíticas de los grupos. Para una ecología de las prácticas colectivas*. Madril: Traficantes de Sueños.

## EGUNEN GURPILEAN

### **111** Kultura

Artedrama Euskal Laborategia  
Garoa Kultur Laborategia  
Nagore Amondarain

### **117** Ekonomia

Euskal industriaz  
Kolabo-kontsumoaz  
Udan ere ez da giro  
Joseba Barandiaran

### **123** Soziolinguistika

Giltzak aurkitzeko argi-iturriak  
Datu soziolinguistikoen kudeaketa  
Datuek erakusten digutena  
Zergatik?  
Dabid Anaut

### **129** Telepolis

SyNAPSE  
Hiri inteligenteak eta partekatze  
ekonomia  
Mugikorrarekin ordaindu  
Gorka Julio



## Kultura

Nagore Amondarain

### Artedrama Euskal Laborategia

Azkenaldian modan jarri den terminoa dugu 'Laborategia' edo zabalkundearen estrategietan '-lab' atzizkia. Asko dira kulturarekin lotuta laborategi izenak lagundurik ageri diren egitasmo, elkarte, denda edo erakunde publikoek bultzaturiko ekimenak egun. Baina denboran atzera egiten badugu apur bat, laborategi horien beharrak zein izan diren ikus dezakegu, modatik harago. Gizarte aktibaziorako hazitegi bezala jaio ziren asko, erakundeetatik kanpoko esparruan. Formazioa gertutasunetik lantzea zuten helburu, komunitateak sortuz, erabiltzaile aktibo eta inplikatuena sarea sortuz horrela.

Antzerkiola Imaginarioa edo FTI (Fábrica de Teatro Imaginario) 1998an sortu zen Mina Espazioan, Bilboko Guggenheim museoa sortzen den une berean, hiri berean. Mina diziplina anitzeko espazio artistikoa zen eta alternatiba soziokultural eta artistiko baterako gune izan nahi zuen hasieratik, toki ireki bat bertatik bertarako harremana izango zuena bertako artistekin.

Ander Lipus antzerki zuzendaria nabarmendu behar dugu egitasmoaren sustatzaile moduan. Madrilen, William Laytonen eskolan ikasirikoa dugu berau. Layton Espainiako antzerkiari molde berriak sartzen aritu izan zen pertsona moduan izendatu genezake, Estatu Batuetako antzerki zuzendariak Espainian kokatzean garatu baitzuen, besteak beste, William Laytonen Teatro Laborategia. Laborategi hitzak arte eszenikoen sorkuntzarako eta ikerketarako gunea esan nahi zuen. Izango zuen zerbait horretatik Antzerkiolaren sorrerak ere, eraikuntza teatrolean ziharduen taldea baitzen

eta laborategi teatral gisara definitu baitzuten beraien taldea zein espazioa. Ikuspegi intuitibo batetik sortu zen beraien lehen lana, *8 Olivetti poetiko* antzezlan; aktore, gidoilari eta musikarien ekarpenek osatuko zuten obra kolektibo eta esperimental hori. Kaosaren poetikari gorazarre egiten dion obra horrek Elorrioko Arriola Antzokira narama, 1999ko garai hartara, ordura arte antzekorik ikusi gabekoak ginen sasoir. Abandonatutako egunkari bateko erredakzio bat irudikatzen zuen eszenarioak, idazteko makina zaharren hotsarekin; zortzi espiritu burlatik kaosaren erritmoa sortuz ematen zioten hasiera obrari. ‘Zer’ sortzen dugu eta ‘zelan’ sortzen dugu galderei bueltaka zebiltzan orduan Antzerkiolakoak, beti ere kolektiboak ziren galdera zein erantzunak. Sasoi hartan, *8 Olivetti poetiko*-rekin ezagutarazi ziren, Lipus ez ezik, Miren Gaztañaga *Puck*-en paperean, Alex Gerediaga *Shylock*-en paperean, zein Jon Gerediaga testuetan. Gidoia, aurretik esan bezala, zortzi pertsonen artean sortu zen; Lipusek berak *Enrie Kagots* heteronimoa erabili zuen, adibidez.

Antzerki puruaren atzetik zebiltzan orduan. Antzerkia haur-heldu-jubilatu etiketatik erantzi eta antzerkia gertaera bat bezala irudikatzen zuten, komunitate zabal batera iritsiko zena. Oteizaren jarraitzaile taldea zen ordukoa, FTIren logoa bera ere oso Oteizaren kutsukoa zen. Antzerki obra paperean betikotu zuten (*8 Olivettis poéticos*, Hiru, 2001), eta liburuaren sarreran Ander Lipusen hitzek honakoa zioten:

Nosotros no hacemos nada nuevo, Oteiza dice que la vanguardia está en la prehistoria. Nos ha sido todo dado y ahora lo que tenemos que hacer es alquimia con todo ello, jugar desde nuestra condición actual, reinventar la poesía, la tragedia, la dramaturgia del teatro.

Hainbat izan ziren ondu zituzten abangoardiako lanak: *Fitola balba*, *Karpukit tui*, *Mundopolski*, *Yuri Sam*, *Au Revoir Triunfadores* eta *Ezequiel*, besteak beste.

Antzerkiolaren errautsetatik, 2007an Artedrama Arte Eszenikoen laborategia sortzen da, euskara mugarri izanik

arte eszenikoen inguruan eztabaidak, trukeak, formazioak sortzeko asmoz. Euskal terminologia dramatikoaren garapena, aktoreen euskarazko sormen prozesuen gauzatzea eta sortzaileen arteko harremanak dira laborategiaren helburu nagusiak. Plataforma horren sorreran jauzi bat legoke, Euskal Herri zabaleko antzerki konpainiek osatzen dutelako laborategia, hau da, Iparralde eta Hegoaldekoek: Dejabu, Le Petit Théâtre de Pain, Hameka eta Huts Teatroak.

Politika kulturalak kontsumo moduak sustatzeaz arduratzen ziren garaian, bazen bestelako kezkarik, jendarte kritiko eta aktibo baten beharra martxan jartzearena, alegia. Arte eszenikoen laborategi horiek, denboran izan duten bilakaerarekin gaurdaino, helburu berarekin jarraitzen dute. Profesionalak, amateurak eta ikusleak bildurik, gozamina, aztoramena eta hausnarketa probokatzea. Eta hori asko da egungo garaian. Ikustea baino ez dago *Hamlet* obrak izan duen arrakasta eta zeresana, geruza ezberdinetara iristeko gaitasuna.

## Garoa Kultur Laborategia

Artedramak, egun dena izateko, bide luzea egin du atzetik; laborategiaren hasierako ideia haietatik, gaur egun laborategi batek eman dezakeena ikus dezakegu. Arte eszenikoetatik harago ere ikus daiteke laborategi hitza kulturari lotutako bestelako eremu batean; azken adibidea, Donostian ireki berri duten Garoa liburu dendan. Kanpotik begiratzean, erakusleihoaren gaineko kartelak ere horrela dio: «Garoa Kultur Lab». Laborategi izateko asmo horren jatorria ez da hain aspaldikoa, ordea.

Esango nuke jakintzaren produkzioa papereko liburuetatik harago eramatea dela Garoakoen gogoia eta kulturari zabalik egongo den espazioa izatea berori. Pentsatu nahi dut Lab horrek hiri edo auzoaren gertutasunetik landu nahi duela erabiltzaileen komunitate bizi bat, hau da, ekosistema kultural

bat. Mota horretako laborategietan sortzen den ekosistema kulturalak profesional eta aditu ez diren herritarren arteko amildegiak ezabatu beharko lituzke. Garoan esku artean dituzten ekimen guztiekin, herritarra bezero baino zerbait gehiago izan daiteke.

1973an sortu zen Zarauzko Garoa liburu-denda. Baina 2008an, bertako kudeaketa semeek hartu zutenean, etorri zen hazitegiaren aurreneko hazia. Eneko liburu-dendaren beheko aldean web consulting erako zerbitzua ematen hasi zen lanean eta Imanolek dendako lanari ekin zion. Handik gutxira, 2010ean, abiatu zen Jon Benitok gidatzen zuen irakurle taldea, eta, 2012ko bukaeran, *Labegunak* deritzon egitasmoari ekin zioten. Azken ekimen hori Zarauzko lagun arte batean gauzatu zen; arlo desberdinetatik zetorren jendeak teknologiari buruzko gaiak proposatu, aurkeztu eta eztabaidatu egiten zituen. 2013ko azaroan lehenengo *Paperezko kontzertuak* antolatu zituzten Zarautzen. Tartean dendak arte erakusketak ere antolatzen zituen; beraz, hasia zen dendatik haragoko espazio bihurtzen. Donostian denda berria irekitzeko unean etorri da Kultur Lab izena gehitzea orduko Garoari. Hiru sailetan bereizten dira liburu artean eskaintzen diren egitasmoak:

- *Paperezko atala*

Hemen kokatzen dira dagoeneko Zarautzen hasita dauden *Paperezko kontzertuak* eta irakurle taldea. Groseko irakurle taldeak, antza, *Paperezko lagunak* izena hartuko du. Baina horiekin batera *Paperezko filmak*, *Paperezko antzerkia* eta *Pulpitutik* deiturikoa jarriko dira abian. Uneko bizipena izatea dute xede ekintza horiek guztiek, hau da, Garoara hurbiltzen denak apurka-apurka ekosistema bat sortzea auzo zein hirian. Laborategi kulturala deitu dioten honek gunek kultural bat eskainiko die bertaratzen direnei. Uneko bizipena esatean, honakoa esan nahi da, behin soilik bizitzeko esperientziak izango direla, esperientzia konpartituak guztiak sortzaile-hartzailearen paradigman zein hartzaileen euren artean.

Paperezko agerkari bat sortuko da, bertan gertatu denaren berri emateko (kronikak, iritziak... jasoko ditu). Bestetik, aldizkariak formatu digitala ere izango du, baina sortzearekin batera «agortua» dela adieraziko duena. Papera izatea nahi da erreferentzia, eta aterako den tirada neurtua izango da, ia-ia eskatzen duen horri begira aterako baita, uneen isla edo gordailu izan nahi duen paperekoa. *Paperezko kontzertuetan* bezala atonduko dira filmen eta antzerkien saioak ere; ordu erdi lehenago hurbilduko dira entzuleak, ardo bat hartuko dute sarrera gisa eta gertutasunetik abiatuko dira saioak: moderatzaile batek gidaturiko musika (film/antzerki pieza) emanaldia, beti ere liburu bat harturik ardatz. Bertaratzen direnek bono bidez edo eguneko sarrera erosita izango dute aukera uneaz gozatzeko, eta hasieran sortzen den hartzaile taldeak izango du lehentasuna etorkizuneko emankizunetan ere. Atzerritik datozen taldeen solasa ulertzeko itzultzaile bat egongo da, aintzat hartu behar baita hurbiltzen den hartzaileen soslaia oso anitza dela.

*Pulpitutik* asteazkenero antolatuko diren eztabaida saioak izango dira. Doakoak izango dira, eta urritik aurrera, Pako Aristi, Zaldieroa, Fermin Muguruza... programatu dituzte, adibidez.

#### • *Osoigo plataforma*

Politikariak eta herritarrak web bidez hurbiltzeko saiakera da osoigo.com, galde-erantzunen bidezko komunikazioan. Estatu mailako 51 politikari daude dagoeneko parte hartzen, 13 alderditakoak.

#### • *Tako egitasmoa*

Euskal argazkigintza sustatzeko modu bat da Tako; egurrezko tako batean, 20x20ko neurrietan, inprimatzen dira bertako sortzaileen argazkiak, erakusgai jarri eta bide batez saldu, 30 eurotan. Donostiako dendaren azpiko espazioan dago Tako erakusketa.



Artedramaren laborategiak diziplina batekoak elkartzen baditu, hemen erraz suma daiteke anitza dela aktibatu nahi duten jendartea. Aurrenekoak, bildutako esperientziatik, erakutsi du zilegi dela kultur komunitate baten benetako inkubagailu izatea laborategi bateko lana. Garoak urratzeko bide berri bat du aurretik; beraz, ikusgai den laborategia dugu hori. Sortzaileak eta irakurleak/zaleak/entzuleak aurrez aurre jartzeko giro horrek interakzioa ahalbidetzen du, sortzailea zein hartzailea estimulatzuz, eraldaketa bat sortuz. Baina horrek ez du zertan merkatuko errealitatearekin bat egin behar, merkatuak bere bide propioa baitu. Hiritartasun aktibo baten hazitegiek egitearen eta ekitearen kultura dimentsio sozial, politiko, ekonomiko zein sortzailera zabal dezakete. Instituzioek egiten dutena ordezkatu beharrean, ez baitut uste instituzio batera inportatzeko modukoa denik eredia, instituzioetako lana osotu eta akuilu izan beharko lukete antzeko esperientziak. Erakunde publikoen arreta bereganatu, finean, instituzioak ohar daitezten beraien lana ere badela gizarte kritiko eta aktiboa hezteak. 🌱



## Euskal industriaz

«Krisitik ez gara industria eredu berarekin aterako; aldaketa handi bat iritsi da». Arantza Tapia Jaurlaritzako Garapen Ekonomikorako sailburuak esana da, abuztuak 10eko *Berria*-n. EAEn 2008ko industriako 250 mila lanpostuak 200 mila bihurtu zaizkigun honetan, krisiaren latza ukatzerik ez dago. Baikorkeria latza izan zen krisia gurera iritsiko ez zela esatea.

Eustatek lurraldez lurralde emandako datuetan, berriz, gutxitan aipatzen den datu deigarri bat: Araba eta Gipuzkoan lau lanpostutik bat galdu da 2008-2014 bitartean: industriako 15 mila lanpostu galdu dira Araban, 20 mila Gipuzkoan. Bizkaiak, ordea, hobe eutsi die zituen lanpostu industrialei: 108 milatik 94 milara jaitsi dira (%13ko galera); proportzioan, galera puskaz txikiagoa.

Tapiak aldaketa handia aipatzen du. Sektoreka, zertan aldatu da euskal industria? 2008-2012 epealdirako datu xeheak eskaintzen ditu Eustatek. Sektore bakoitzak guztira euskal industrian duen pisua aztertuz gero, sektore irabazleak (edo ez hain galtzaileak, zehatzago) badira epe horretan: makineria eta garraio industriaren kasua da hori. Lanpostuetan euskal industrian duten pisu erlatiboa igo egin dute, eta, proportzio are handiagoan, baita balio erantsian duten pisua ere. Hortaz, krisialdia dezente hobeto gaingitu dute industri sektoreok: enplegu gutxiago galdu dute eta enplegu horren emaitza ere baliotsuagoa da egun, erlatiboki. CAF, Irizar, CIE Automotive edota Danobat datozkio bati burura boteprontoan. Oro har, tamainarena ere bada gure enpresek duten erronka.

Doikuntza bizi izan duten sektoreen beste muturrean, forja eta metalarekin zerikusia duen industria dago: euskal

industri enpleguan pisua galdu dute (2 puntu gutxiagoko ekarpena), eta galera (txikiagoa, baina galera) izan dute balio erantsiari egindako ekarpenean. Hortaz, hain errentagarriak ez zitzaizkien langileak kaleratu dituzte. Produktibitatea handitzea dakar horrek, baina modu txar edo lazgarriean: langabezia igoz. Dena den, hiltzen ez zaituenak indartsuago egiten zaituela ere esan liteke, lehiakideak jausi ahala merkataua zabaltzen baita bizirauten dutenentzat. Dena den, alor horietan euskal enpresek eskuratzen duten zenbateko osoa lehen baino gutxiago da orain.

Oihal, egur eta paperarekin zerikusia duten sektoreek ere pisua galdu dute sortzen duten enpleguari erreparatuta, baina balio erantsian duten pisua mantenduz. Hortaz, 2012ra bitartean, ez dira forja eta metala bezain 'galtzaila' suertatu, nahiz doikuntza sufritu duten horiek ere.

Enpleguan pisu erlatiboa irabazi baina balio erantsian pisua mantendu bakarrik egin dutenetan, jakien eta lehengaien industria, etxetresna elektrikoak nahiz etxeko gailu eta altzariak ditugu. 2012ra arteko datu xeheak baino ez ditugu, ordea; 2013an gertatutako doikuntzak iristeke zeuden oraindik datu eta sektoreotara, hein batean bederen. Fagor Catari esleitu berri dioten honetan, ikuskizun dago puzzlearen azken itxura zenbateraino aldatzen den.

Azkenik, fintze eta kimika sektorea dugu: euskal datuak lar baldintzatzen ditu Muskizko findegiaeren pisuak. Urteotan Petronorrek eraikitako koke plantak inbertsio handia eragin du eta jardueran berregokitze nabarmena ere bai: enpleguan duen pisu erlatiboa ia mantenduz, %4ko pisu galera ikusten da 2008-2012 artean balio erantsiari egindako ekarpenean. 2013an, bere historian lehen aldiz, galerak plazaratu zituen gainera Repsolen filialak. Baina, itxuraz, momentuko berregokitzea izan da: 2014an esportazio eta inportazioen handitze nabarmena bizi du erregaien sektoreak, Muskizen jarduera berrabiatzea protagonista duelarik. Marjinen estutzea ikaragarria ez bada, irabaziek laster itzuli behar lukete Barbadun ibai ertzeko findegira.

Hortaz, sektoreka ere, arrazoi du Tapiak: krisia latza da eta eragindako aldaketak itzelak. Espainian eta gurean erai-kuntzak izandako goraldiak ispilukeria eragin zuen gure in-dustrian ere. Ginen baino ederrago islatu gintuen datuetan. Indarguneak izan baditugu, baina krisiak hain latz jo gaitue-nerako, gantz batzuk ere bagenituen oparoaldiak ezkutatuak. Erronka teknologikoa aipatu du hainbatek, nazioartekotze beharrarekin. Prozesu osoak eta enpresa hornitzaile kateak eskaintzeko beharra ere aipatzen du Tapia sailburuak, Basque Country markaren indartzeaz ari dela. Hori dena eta gehiago beharko da, munduko merkatuetan, lidergoan izango diren enpresak lortzeko. Tamaina eta ikerketa nahitaezko dira, nazioartekotze bidean. Legegintzaldi bat baino gehiagorako erronka, bistan denez. Bitartean, pixkanaka baina etengabe galduz, higatuz joateko arriskuan gaude.

## Kolabo-kontsumoaz

Ekainean Europako hiri nagusietan (Euskal Herrikoetan ez) taxilarien greba deialdi bateratua izan zen, historian lehen aldiz ziurrenik. Uber plataformak egiten dien konkurrentzia desleiala salatu nahi zuten, eta, Streisand efektua deritzon horrekin, inoizko publizitate kanpainarik handiena oparitu zioten euren lehiakide horri. Beste horrenbeste ari da ger-tatzen Kataluniako Generalitateak isun bidez zigortu duen Airbnb moduko plataformekin: nonahi ostatua eskuratzeko aukera eskaintzen dute, norbanakoak harremanetan jarriz eta hotel, pentsio, landetxe eta gainerakoei merkatua janez.

Berrikuntza teknologikoek duten indar (ikuspuntu hone-tatik) suntsitzailearen adierazpen bat gehiago dira aipatu adibide biak. Bere garaian olak, idazmakinak, posta zigiluak edo telefono kabinak (ia) desagertu ziren bezalaxe, kontsu-mitzeko eta harremanetarako moduak ere eraldaketa aldi sakonean daude. Uste baino gertuago ditugu Internet bidez sortu diren bikoteak, oporretarako etxea trukatzan duten

sendiak edo arropa dendan probatuta (edo gabe) Internetez erosten duten lagunak.

Berrikuntzaren gidaritza duenak, oro har, abantaila izan ohi du. Legeak, lobbyak, ohiturak eta beste aurka izan arren, norbanakoari mesedegarri zaizkion gisako aldaketek aurrera egiten dute, aurrez ezarritako lizentziadun eta interes taldeek gatazka piztu eta protesta puztu arren. Talka suntsitzailea gertatzen da tarteka, edo, beste zenbaitetan, industria zaharra teknologia berria bereganatzen saiatzen da, berearen defentsan, hibridazio moduko batean.

Adibidez, banku arruntek Internet bidezko bankuak sortu eta zerbitzuak eskaintzera nola jo duten ikusi dugu. Saialdiok ez dute noski beti arrakasta erabatekorik izaten, eta, nolana den, epe luzerako eragin ukaezinak izaten dituzte sektore bakoitzean. Euskal Herriko banku bulego sarea izango da, urte batzuk barru, eraldaketa horien lekukoetako bat, bidaiaria agentzia izan den legetxe. Hotelgintzan edo garraioan ere, oro har, ez dirudi gauzak lehenera itzuliko direnik.

Gehienok dugun autoko aulki hutsari edo etxeko logela hutsari etekina ateratzeko aukera inoizko handiena eta errazena da gaur egun. Hotel edo taxi sektorearen kalte eta Ogasunaren kezkarri izango da, baina hala da. Baina diskogintza, liburugintza, prentsa idatzia edota argazkilaritza goitik behera aldatu diren bezalaxe, sektoreotan ere ez gara lehenera itzuliko.

Aparretan hazten ari den kontsumo mota horri 'kolaboratzaile' izenlaguna gehitu dionik bada. *Segundamano* egunkaria, kasu, sei urtetan paperetik Internetera pasa eta bikoiztu den negozioa; Bilboko Maiatzak 2 kaleko azokaren, Madrilgo *rastro*-aren edo Parisko *marché aux puces*-en bertsio elektronikotzat jo daitekeena. Taldekako erosketak eta beherapenak sustatzen dituzten Mauka.eu, Colectivia.com edo Groupon ere hor dira.

Urtean %10etik gorako hazkundera erakusten dute gisako hainbat jardunek azken urteetan, eta, aurrera begira ere, merkatu hazkorra eskura dezakete. Dena den, kontsumo

‘kolaboratzaile’ horren atzean, ez da kontsumoaren paradigma aldaketa nabarmen bat atzematen. Lehen herritik herrira stopean egiten genituen joan-etorriak BlaBlaCar.com bidez egin litezke orain, joanaldi askoz luzeagoak ere erraztuz; baina, oro har, ongizatea kontsumoa maximotuz lortzen duten norbanakoak ari dira, ahal teknologiko handiagoz, elkar eragiten, baina norbere hobe beharrez beti ere. Trukearen onuradunak harremanetan jartzea errazagoa eta merkeagoa delako hazten dira trukeok, elkarren interesak lerratzten diren heinean. Hortaz, horri ‘kolaboratzaile’ deitzeak gehiegikeria dirudi, aurrezki garrantzitsuak lortzen dituen arren ez baitu, inondik ere, ‘deshazkundera’ moduko kontzeptuekin edo ekonomiaren ikuspuntu sozialagoekin inongo bateragarritasunik. Norbanakoen aurrekontu muga kudeatze hutsa du atzean, kontsumo alternatiboetarako baliabideak aurreztuz. Gainera, baliabide aurrezki hori sistemak ezarriak dituen baldintza arautzaileen lepotik lortzen da hein handi batean. Lizentziadun ohiko negozioei (taxi edo hotelen kasuan) edo ogasunei erronka latza sortzen diete, horrenbestez. Eta aldean nahia gehi teknologia fabore izanda, fenomenoak geldiezina dela esan liteke. Hortaz, zenbat eta lehenago moldatu (edo ahal den heinean arautu), hobe.

## Udan ere ez da giro

Alemania eta Frantziako ekonomiak ere geldotzen, Italiakoa lez; Espainiako zor publikoa bilioi eurotik gora; KPI zero azpitik Hego Euskal Herrian ere. Horratx udako giroaren adierazgarrietako batzuk. Euskal ekonomiaren bezero nagusiak ez dabilta euren onenean, eta, ingurumari horretan, Euroguneaz harago saltzen saiatzea beste erremediorik ez da euskal enpresentzat, adabaki gisa bederen.

Nolanahi den, euro sendoak Euroguneari prezio egonkortasuna ekarri dion arren, denbora luzeegiz inflazio aurreikuspenak zero inguruan finkatuz gero, Japoniako deflazioa

eta hamarkada galdua gogorarazten duten ezaugarriak pilatu ditzake EBZren menpeko Europak. Eta, horren guztia-  
ren aurrean, egiturazko erreformen alternatiba baino ez du  
uzten egungo Eurogunearen arkitekturak, alegia, langileen  
baldintzen txartzea, modu politikoki ez zuzenean esanda,  
lehiakortasuna helburu.

Aurreko horri tokian tokiko hauteskunde egutegiak gehi-  
tuta, neurri bateratu eta koordinatuak hartzeko zailtasuna  
ere bistakoa da. 🌱



## Giltzak aurkitzeko argi-iturriak

Hizkuntza politikaren alorrean edo, zabalago agian, soziolinguistikaren esparruan nolabaiteko esku-hartzea egin nahi duenak hamaika aldagai edo faktore izan beharko ditu gogoan ziu-rrenik, eta zenbait tresna beharko ditu. Informazioa, adibidez, egoeraren zentzuzko balorazio eta estimazio bat egiten utziko diotenak. Datuak edukitzea komeniko zaio, ahalik eta zehatz-zenak, errealitatea ongi interpretatzen lagunduko diotenak.

Datuak izateak, ordea, zenbaitetan izaten dugun datu zaparradak esaterako, ez du nahitaez esan nahi egoerak ongi kudeatuko ditugunik. Gerta liteke, izan ere, zuhaitzek basoa ikusten uzten ez diguten moduan, datuen erauntsi horrek ikuspegi osoaren jabe egin gaitezen galaraztea, zenbaki zehatz eta xeheek liluratuta; edo gerta liteke, konparaziora, giltza non galdu dugun jakin gabe farolak ematen digun argiaren ondoan bilatzen dugun bezala, hizkuntzaren normalizazioaren alorrean ere eskuragarri ditugun datuen argipean gakoena bila aritzea, erantzun garrantzitsu batzuk beste nonbait bilatu behar ditugula ohartu gabe. Datuen azterketan erantzun linealak bilatzea ere litekeena da, noski, akaso erantzun ez-linealak eta konplexuak behar diren tokian.

Eta, jakina, gerta liteke datu pertinenteen irakurketa zuzena egitea eta irakurketa horrek esku-hartze egokiak egiten laguntzea, eta are horren ondorioz eraginkortasunez aurrera egitea ere. Hori ere gertatu da, eta gerta zedin norbaitek egin behar izan du datu horien bilketa, askotan lan neketsua, grisa eta astuna.

Gurean, bistan denez, azken hamarkadotan informazio eta datu estatistiko ugariz hornitu da euskararen egoeraren



inguruko azterketa. Garai batean intuiziotik asko zeukan go-goeta horrek gaur egun ikerketa, azterlan eta neurketa ugari emandako zenbaki eta ehuneko xeheak ditu lagun, baita bestelako teknika batzuen bitartez, ikerketa kualitatiboen eta parte-hartzaileen bidez esate baterako, bildutako iritziak, pertzepzioak, usteak eta abar ere. Horrek guztiak informazio zaku gizen bat ematen digu, behar den bezala kudeatzen ez asmatzeagatik alferrik galtzen utz dezakeguna, edo, aitzitik, non gauden hobeki ulertzen lagun diezagukeena.

Garrantzitsua iruditzen zait, nolahi ere, datuen uholde horretan arraun egiten ongi asmatzea, ezinbestean behar den ikuspegi globalak datuen irakurketa orokorra eskatzen duelako, eta zenbakiei eta ehunekoei iskin egiten dieten errealitateak atzeman behar direlako.

## Datu soziolinguistikoaren kudeaketa

Gizakiok gure usteak, iritziak eta aurreiritziak baieztatu eta indartzen dituzten datuak eta informazioa kontuan izan, gorde eta lehenesteko joera omen dugu. «Berreste alderako isuri» esaten zaio horri euskaraz –Euskaltermen bederen–, eta nahikoa fenomeno hedatua eta unibertsala da, ziur asko eboluzioaren ikuspegitik azaldu litekeena. Gure iritziak eta usteak indartzen dituen informazioa aiseago ikusten eta gogoratzen dugu, eta horiek zalantzan jartzen dituen errazago ahaztu edo gutxietsi.

Euskararen inguruko datu soziolinguistikoekin –errolda, inkesta, neurketa eta askotariko ikerketetatik eskuratzen ditugun horiekin– gauza bera egiten dugula ikustea ez litzateke, beraz, oso harritzekoa izanen. Zenbakiakin eta ehunekoekin jantzita datozkigun datu objektiboak ez ditugu denok berdinean irakurtzen, eta geurea berresteko aipatu dugun isuri edo joera hori arlo honetan ere gerta liteke, eta gertatzen da.

Pesimista denak aisa aurkituko ditu iluntasunetik ez ateratzeko datuak, bistan denez. Baina optimistak ere izanen du

nondik jan eta baikortasuna zerekin elikatu. Horrek ez du esan nahi irakurketa guztiek zorrotzasun, objektibotasun eta zuzentasun maila bera dutenik, ezta irakurketa orok berdin balio duenik ere. Esan nahi duena da datu soziolinguistiko ugari, zehatz eta ustez objektiboak edukitzeak ez duela bermatzen ondoren etorriko diren interpretazioak eta –are garrantzitsuago– neurri eta politika jakinak gauzatzeko proposamenak, ustez oinarri sendo eta zientifiko samar bat izanagatik, adostuak, bateratuak eta onartuak izanen direnik.

Pentsa lezake inork, aurrekoa irakurrita, inkestek, neurketek eta ikerketek ematen dizkiguten datuei balioa kendu beharra proposatzen ari garela, edo haien beharrezkotasuna zalantzan jartzen ari garela. Ez, noski, ez da hori gure ustea. Informazio eta datu soziolinguistikoen irakurketan eta kudeaketan ikuspegi ideologikoak eta politikoak nahasten badira ere, eta datu berberak desadostasuna eta proposamen ezberdinak sorraraz ditzaketen arren, joko-zelaia zein den eta nola dagoen jakin beharra daukagu, ahalik eta zehaztasunik handienarekin. Alderdi teknikoek eta metodologikoek izan litzaketen mugak eta ezintasunak gorabehera, eskuratzen ditugun datuak lagungarri izan litezke, lagungarri izan behar dute, eta isuriak eta joerak ahal den neurrian baztertuta, begien bistan dugun hori kudeatu behar dugu. Datuak ez dira optimistak edo pesimistak, hori gure aldarteari dagoen kontua da. Datuak direnak dira, eta marrazten diguten errealitateari, dena delakoa, aldarte optimista edo pesimistarekin ekin diezaiokegu. Pesimismoak ez du, nire ustez, askorako balio, aukeran nahiago jarrera optimista informatua eta errealista, askozaz sortzaileagoa eta eraikitzaileagoa baita.

## Datuek erakusten digutena

Datu orokorrak eta xehe-xeheak ditugu, euskararen nondik norakoaren panoramika zabala nahiz deskribaketa zehatza ematen digutenak, makroan nahiz mikroan aritzen uzten digutenak. Fokua asko zabalduz, nik ondorio bat aterako

nuke ikerketa, inkesta eta neurketa guztiek erakusten diguten horretatik: gure lurralde honetako hizkuntza gutxituari eusteko, euskarari eusteko alegia, sekulako ahalegin soziala eta pertsonala egiten ari da, urte askoan mantendu den ahalegina, denbora, gogo, ilusio, energia, diru eta bestelako asko eskatu eta xahutu duena. Eta ahalegin ikaragarri horrek, datu soziolinguistikoko gordin eta zenbakizkoetan begiratuta, ez du ekarri nahi eta espero genuena. Ez dago ahaleginaren eta emaitzaren arteko proportzio egokirik, ahalegin horretan ari den edo ahalegin horretaz kontzientea denaren ikuspegitik behintzat, horretaz ohartu ez denak ez baitu proportzioekin arazo handirik izanen. Lorpen eta irabazi handi eta txiki askoren ondoren, balantze soziolinguistikoa ez da bereziki azpimarragarria, ez dugulako lortu euskara berme egoera batera ekartzea, besterik ez bada nolabaiteko konfortera ere ekartzea. Ahalegin ikaragarria, eta 0tik 10erako eskala batean 2,5etik 3rako borroka batean gabilta, edo 1,5etik 2rakoan, berdin dio. Gutxienekotik behera beti ere.

Etsiak hartzeko modukoa al da hori? Alferrikakoa izan al da dena? Ez, jakina, inolaz ere ez. Ahalegin izugarri horrek eutsi dio hizkuntzari bizirik eta ahalegin horrek ekarri ditu ezin ukatuzko hobekuntza eta aurrerapen batzuk, nahikoak ez baina ezinbestekoak zirenak. Egindakoa egin ezean non eta nola egonen ginatekeen asmatzea ez da oso zaila. Baina, bestalde, gauzak –hau da, politikak, estrategiak, inbertsioak, mentalitateak...– errotik aldatu behar direla erakusten digute datu soziolinguistikoek, ahalegin hutsean eta jauzi bat eman nahian ito nahi ez badugu behintzat. Aldaketa kualitatibo bat euskararen garabidean, euskararen hizkuntza politikan, eus-kalgintzaren estrategian... Aldarte optimistatik abiatuta, noski.

## Zergatik?

Oso oker ez banago, masibo samar diren inkesta eta neurketetan, edo lagin adierazgarriak hartzen dituzten ohiko

ikerketetan, ez da galdetzen zergatik egiten dugun euskaraz eta zergatik erdaraz –ikerketa kualitatiboetan errazago planteatuko da, noski, galdera hori, modu irekian–. Beste-lako datu batzuk jasotzen dira, eta horiekin nahiz erabileraz ditugun datuekin korrelazioak egin eta ondorioak ateratzen ditugu. Korrelazioa, ordea, ez da kausazko lotura, baina hala ere sarritan gauzak horrela ulertzeko joera izaten dugu. Azalpen askotan, korrelazioak egiteko erabili ditugun datu horietan baino, datu horiekin batera gertatzen diren beste faktore edo aldagai batzuetan egon liteke ikasgai interesgarririk eta funtsezkorik.

Bada, inozente samarra izanen da akaso, baina neronek galdera horixe eginen nuke gustura modu masibo eta ireki batean, informazioa kudeatzea asko zailduko lukeen arren. *Zergatik ez duzu euskaraz egiten? Eta, batez ere, zergatik egiten duzu euskaraz? Hori euskaraz dakienari. Edo Zergatik ez zara euskara ikasten ari? eta Zergatik ari zara euskara ikasten?, ez dakienari. Horiek izan litezke, izan ere, normalizazioaren motorra mugiaraziko luketen galdera nagusiak. Egiten duena galdetzen diogu jendeari, masiboki. Zergatik egiten duen galde geniezaioke ondoren. Arrisku handia egonen litzateke erantzunen %90 «ohituragatik» izatea, baina hori saihesteko baliabideren bat bilatu beharko litzateke. Asmatuz gero, euskararekin norberak zer irabazten edo galtzen duen jakin genezake, akaso, eta hortxe aurki genitzake behar ditugun gakoak, zer saihestu eta zer bultzatu behar dugun jakiteko.*

Jakina, jendeak ez du euskaraz edo erdaraz egiten. Batzuetan euskaraz eta besteetan erdaraz egiten du normalean, baina denetan izaten da arrazoi bat hala egiteko edo ez egiteko. Horren berri izan beharko genuke, zehatz-mehatz, eta hizkuntzaren protagonisten ahotik, herritarren ahotik alegia, zuzenean jasota.

Datuak, izan ere, egoerak ezagutzeko eta ulertzeko behar ditugu, baina batez ere egoerak aldatzeko. Eta euskararena aldatuko bada, zergatien bila joan beharko dugu. Emozioekin

eginen dugu topo erantzunetan, ziur asko, estatistiketara biltzeko labainkorragoa eta zailagoa den materiala hain zuzen ere, baina tratamendu zientifikopean jartzeko nekezagoa izanen den arren, ezinbestekoa izanen da hizkuntza den fenomeno sozial eta pertsonalean eragin nahi bada.

Eta datuak datu –horiek izan lezaketen objektibotasun maila gorabehera eta horiekin erabat itsutu gabe– eguneroko lanean eta jardunean oraindik ere gure ohiko tresna kognitiboekin ari beharko dugula iruditzen zait, subjektibotasunaz ziprztinduta badaude ere, orain arte lagun izan dugun eta hainbatetan emankorra izan den intuizioa erabat bazter utzi gabe. 🍷



Teapolis

Gorka Julio

## SyNAPSE

Garuna inspirazio moduan hartuta sortutako txip arkitektura berria aurkeztu du IBMk. Orain arteko txipek Von Neumannen arkitektura izan dute oinarri; bada, hura gure garunaren dis-einu biologikoan dago inspiratuta. Ideiaren garapenak izango duen arrakasta aurreikustea zaila bada ere, konputazio mota berri baten hastapena izan daiteke, txip kognitiboena.

Ikerketa prozesuan Cornell Tech-en laguntza izan dute, eta baita ere DARPA *Defense Advanced Research Projects Agency* agentziaren finantziazioa. Internet eta beste teknologia asko bezala, beraz, eremu militarretik abiatutako proiektua da hau.

Orain arteko txipak Von Neumannek asmatutako arkitek-turan zeuden oinarrituta. Arkitektura horretako konputa-gailuek bost atal nagusi dituzte: unitate aritmetiko-logikoa (UAL), kontrol-unitatea, memoria, sarrera-irteerako sistema eta datu-busa, datuen garraiobidea eskaintzen duena atal guztien artean. Azken urteetan hobekuntzak egin bazaizkio ere, finean egituraketa bera mantendu izan du urteetan zehar.

IBMk, ikerketa talde anitz batekin batera, SyNAPSE *Systems of Neuromorphic Adaptive Plastic Scalable Electronics* txip kognitiboa aurkeztu digu orain. Garunean inspirazioa hartuta, neuronak eta horien arteko konexioak oinarritzat hartu dira diseinuan. Milioi bat neurona, 256 sinapsi, 5.400 milioi transistore eta 4.906 nukleo neurosinaptiko ditu txip berriak. Nukleo bakoitzak memoria, konputazioa eta ko-munikazioa gauzatzeko gaitasuna dauka, eta gertakarietan oinarritutako konputazio paraleloan erabiltzen du.

Txiparen funtzionamenduari esker, eskalabilitatea posible da. Hau da, txip askoren baturaz, beharren arabera sistema

handiagoak eraiki daitezke. Hori frogatzeko, IBMk berak 16 txip barne hartzen dituen sistema bat ere aurkeztu du.

Funtzionamenduan 70mW bakarrik kontsumitzen omen ditu, txip normalekin alderatuz gero, askoz gutxiago. Energia kontsumo txikiaz gain, temperatura ere asko jaisten da, denbora guztian funtzionatu beharrik ez dutelako. Horrek bereziki interesgarriak egiten ditu gailu mugikor eta sistema txertatuetan ere ezartzeko.

Zenbaki eta datuez gain, IBMk horren guztiaren garapena ziurtatzeko hardware eta software ekosistema propioa ere eskainiko du. Arrakasta izanez gero, kontsumoa eta izaera berezia kontuan hartuta, erronka berriei atea irekitzen dizkieten txipak izan daitezke. Banatutako sentsore sareak, superkonputazioa, sistema paraleloak... arlo askotan bide berriak ikertzeko atea irekita daude orain.

Horien artean, noski, makinaren kontzientzia hartzearen gaia, singularitate teknologikoaren agerpena. Aspaldiko gaia izan da literatura eta zinean, baina, gero eta gertuago sentitzen dugulako edo, berriro ere interesa pizten ari dena. Horren erakusgarri, *Transcendence* filma, azken aldiko ekarpen interesgarrietako bat, hori bai, Hollywood estiloan. Ahal baduzue ikusi.

## Hiri inteligenteak eta partekatze ekonomia

Hiri inteligenteak (*smart cities*) eta partekatze ekonomia (*sharing economy*), beste termino asko bezala, azkar txertatzen ari dira jendartean. Batzuetan erreflexiorako denborarik gabe ere, *smart* kaleak ditugu gure herrietan edota oporretan *sharing* zerbitzuak erabiltzen ditugu.

*Smart cities* terminoak, hirien arteko lehiakortasunari lotutakoak diren ezaugarriez gain (ekonomia, kudeaketa, mugikortasuna...), hiritarren bizitzarekin harremana duten beste batzuk ere barne hartzen ditu (ingurumena, jendartea, bizikaltasuna...). Datu horien guztien erabilerekin, hiri bat

inteligenteagoa, ordenatuagoa, efizienteagoa, bizigarriagoa... bihurtzen omen da.

*Sharing economy* edo partekatze ekonomia delakoa, komunikazio zerbitzu digitalei esker, bakoitzak izan ditzakeen baliabideak trukatzean datza. Horien bidez, etxeak, autoak, espazioak, ezagutza... trukatzeko dituzten jendeak, batzuetan diru truke, baina ez beti.

Bata zein bestea, Web 2.0 garaian marka horrek suposatu zuenaren ondorengo logikoak dira. Interneteko zerbitzuen ostean, gure ondasun publiko zein pribatuetatik sor daitezkeen aukera ekonomikoen bitartekari bihurtzea bilatzen dute.

Web 2.0 garaiak hasieran behintzat irekitasuna suposatu zuen, aukera berri ugari, baina zentralizazioan bukatu dute gehienek. Sortu ziren milaka zerbitzu eta software ostean, Google, Facebook, Twitter eta gutxi batzuen eskuetan gelditu da guztia. Hau da, zentralizazio prozesu bat gertatu da Interneteko zerbitzuei dagokienez.

Batzuentzat gauza interesgarri asko ekarri baditu ere, pribatasuna eta autonomia bezalako esparruetan eragin handia izan du guztiongan. Jende askoren bizitza zerbitzu horietan dagoen informazioa baliatuz ezagutu, bertan eragin eta laster etorkizuneko jarrerak iragarri ahalko dira.

Esparru berrietan eragiteko jauzi berri bat izan daiteke hori guztia ezer egiten ez badugu. Teknologiarik katalizatzaile rola ere ematen zaio; sor daitezkeen sareak, komunikazio aukeren eta sentzore kontrolen bidez eskuratu nahi dena, aldiz, harreman horien bitartekaritza edota informazioa da.

Hiri inteligenteen kasuan, orain arte gure kabuz hedatzen genituen informazioez gain, gure ekimenek sortzen dituzten metadatuak nahi dituzte. Guri buruz gure kabuz ematen dugun informazioan gezur asko esaten ditugula dirudi. Partekatze ekonomiaren kasuan, jabetza eta beharren arteko harremanak aztertu eta errentagarri bihurtu nahi dituzte.

Ekimen horien guztien diskurtsoetan pertsonak kokatzen dira, eta, ustez, horientzako, guretzako onurak bakarrik ekartzen dituzte. Hori bai, inoiz ez dituzte aipatzen detektatuta



ditugun bestelako milaka arazo (pobrezia, prekaritatea, langabezia).

Gure jendartearekin inongo harremanik ez duten pertsona eta agenteek gure hiriak eta harremanak kontrolatzeko arriskuan gaudela argi dago. Eztabaida eta kezka leku guztietan dago, eta iritzi eta posizioak ere askotarikoak dira.

Enrique Dans enpresa gizon ezagunak merkatua aukera paregabe bezala ikusten du eta orain arteko industriak hankaz gora jarri izana txalotu (<http://tinyurl.com/sharing-enrique-dans>). Bruce Sterling zientzia fikzio idazleak arrisku larriak ikusten ditu Uber (autoak taxiak balira bezala ibiltzea proposatzen duen zerbitzua) bezalako adibideek hirietan izan dezaketen eraginean (<http://youtu.be/OYNaoMkY8qY>). Evgeny Morozov-ek arlo ekonomikotik bereizitako afera bat bezala tratatzeak dauzkan arriskuak eta larritzeko moduko ondorioak ere azaleratzen ditu (<http://tinyurl.com/data-evgeny-morozov>). Ivan Miró katalanak *smart city*-aren aurrean hiri kooperatiboak proposatzen ditu, eta horretan beharbada partekatze ekonomiak bere papera izan dezakeela uste du (<http://tinyurl.com/smartcities-ivan-miro>).

Aipatutako bi eremu horietan sar daitezkeen adibide interesgarriak ere badira, arrazoi ezberdinengatik. Hirien alorrean, herritarrek sortutako sentore sare libreak proposatzen dituen Smart Citizen proiektua (<https://goteo.org/project/smart-citizen-sensores-ciudadanos>), edota, gertuago, Donostian sortutako Smart Kale (<http://smartkalea.com>) proiektu publikoa bezalakoak.

Partekatze ekonomiaren alorrean, asko dira zerbitzuak, gehienak gastuak partekatzeko enpresa bitartekariak: autoak (BlaBlaCar, <http://blablacar.com>), etxeak (Airbnb, <http://airbnb.com>), bisitak eta ekimenak (Trip4Real, <http://trip4real.com>), bazkari eta afariak (EatWith, <http://eatwith.com>). Interesgarriak bai, batzuk oso bereziak, baina denak aipatutako eskemetan sartzen dira.

Aldiz, pauso bat gehiago ematen duten adibideak ere badaude. Partekatze ekonomia baino, ekonomia partekatua

deitu ahalko genieke: ez dira kontsumora bakarrik mugatzen, jabetza eta kontrola ere partekatua da, komuna, alegia. Horren barnean sartuko lirateke sortzen ari den kooperatiba irekien fenomenoak. Bi adibide, energia berriztagarria kontratatzeke Goiener (<http://goiener.com>) edota komunikazio zerbitzuak kontratatzeke Eticom (<http://eticom.com>), azpimarragarriak dira arlo honetan. Horiek eta beste batzuk ezagutzeko webgune interesgarria: <http://mecambio.net>.

Ikusiko ditugun marka berri horiek guztiak erabili behar ditugu? Ordezkatu? Esanahi berri bat eman? Alboratu? Ertz askotako eztabaida... Baina benetako aldaketa bat bilatzen duenak argi asko ikusiko du, helburua jendartea hobetzea bada, hasteko hobe dela ezagutzen ditugun eta soluzio erraza duten arazoak konpontze bidean jartzea.

## Mugikorrarekin ordaindu

Visa, Master Card eta American Express bezalako enpresak aspaldi ari dira mugikorrek ordainketak egiteko estrategiak ezarri nahian. Askok NFC *Near Field Communication* teknologian oinarrituz proposatu dituzte beraien soluzioak. Hau da, gure mugikorrak NFC sistema erabiliz gero, ordainketa lekuetara gerturatu eta zuzenean ordaintzeko aukera izango dugu.

Horretaz gain, finantza erakunde horietatik aparte ere, aspalditik sarean online erosketak eta diru transferentziak egiteko bideratutako zerbitzuek ere zeresana emango dute. PayPal ezagunak, mugikorrerako aplikazio baten bidez, ordainketak oso erraz eta segurtasun handiarekin egiteko sistema garatu du. Google Wallet Googleren ordainketa sistemak ere bide antzekoa hartu du; baina, berezitasun moduan, Gmail kontu batean orain fitxategiak atxikitzen ditugun moduan dirua atxikitzeke aukera garatu du.

Hala ere, berrietasun gehiago dago pertsonen artean zuzenean ordainketak egiteko aukera ematen duten sistemetan.

Mugikorrerako aplikazio simple baten bidez (webgune edota posta elektronikoz ere batzuetan), pertsona batek besteari edozein momentutan dirua pasatzeko aukera ematen dute horiek. Horrelakoak dira Venmo (<http://venmo.com>) eta Square Cash (<http://square.com>).

Horietan egiten diren diru truke asko dohainik edo oso tasa txikiekin egiten dira, kontuan bertan dagoen dirua bada edota debito txartelei badagokie. Kreditu txartelak erabiltzen badira, aldiz, tasa bat ordaindu behar izaten da, behintzat Venmoren kasuan. Hori bai, dirua jasotzea beti da dohainekoa, momentuz. Helburua, oraingoz, erabiltzaile kopuru handia lortzea da, gero horrela ordainketa sistema hori erabili nahi duten enpresei, horiei bai, kobratzeko.

Betiko finantza erraldoiek segurtasuna eta estandarizazioa eskaintzen dute, tasa nahiko altuak badira ere. PayPal eta Google Walletek tasa gutxiago eta online ordainketetan erakutsi duten esperientzia. Azkenek, berriz, segurtasun nahikoa erakutsi dute oraingoz, baina oso fenomeno berriak dira, oraindik gurean gehienak erabili ezin direnak. Hala ere, azken horiek beste leku batzuetan izaten ari diren harrera ikusita, laster botea Venmo edo beste aplikazio batekin ordaintzeak ez ninduke batere harrituko. 🐼